

GAILURREAN

Biziak bizilan

Juan Manuel Etxebarria

IBAIZARAI



Juan Manuel Etxebarria, Zeberio, 1948.

Filosofia eta Magisteritzaz gain, ohorezko matrikuladun lizentziatua da eta "Cum Laude" eta guztizko doktorea dugu Euskal Filologian, Deustuko Unibertsitatetik. Gaur egun, irakasle katedratikoa da, Euskaltzaindiakoa eta J. M. Barandiaranen Etniker taldekidea. Euskararen ikertzaile izanik Etno-Hizkuntzalaritza bidean, idazlea ere badugu, herri-euskararen sustraiak jaso, aztertu eta etorkizunera bideratzea helburu duelarik, bizkaiera literarioan zein batuan, baina beti, aberasbidean.

Besteak beste, bereak dira:

- *Zeberio Haraneko euskararen azterketa Etno-Linguistikoa* (Tesia), 1988
- *Gorbeiatarrak*, 1994, Ibaizabal
- *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*, 1995, Labayru
- *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*, 1995, Ibaizabal
- *Gure fabulak (bertsoz)*, 1997, Ibaizabal
- *Iaun Zuria*, 1997, Ibaizabal
- *Txorien zoria*, 1998, Ibaizabal
- *Bibliako kontaera-antologia*, 1999, Ibaizabal
- *Eguberri eta Gabon ipuinak*, 1999, Ibaizabal
- *Zeberioko kantak*, 1999, Senda
- *Cuentos vascos de Navidad* (Itzul.: S. Calleja), 2000, Ibaizabal

GAILURREAN



IBAIZABAL

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du.*

Bildumaren diseinua: Juan Carlos Landa

Maketazioa: Begoña Garaizabal

© Juan Manuel Etxebarria

© Ibaizabal argitaletxea

Orue auzoa z/g

48340 Amorebieta-Etxano

ISBN: 84-8325-464-6

Lege gordailua: BI-1027-01

Fotomekanika: Croman

Inprimaketa: Ingugom

Ale kopurua: 2000

GAILURREAN

Biziak bizilan

Juan Manuel Etxebarria

*«Biziak bizilan...
zintzo eginez gero,
zahar on egin arte,
baztertuko duzu,
... eta hila lurrak jan».*

Bihotzerik harako taupadotsak eginena lakoa eman zidan harako gure amamak eta biok egin genuen berbaldiak Bilboko Guggenheim inauguratu zen arrasti-iluntze lainabera-tsuau.

Nire neure logelan geunden, Bilboko etxeko neure kuartu txikian. Amama Pantxike, neure ohe ertzean eserita neukan alborik hara oheadarrari deusala eta ni neu, berriz, estudioko mahai aurrean alboz jarrita amamari adi, eskuineko eskua ordenagailuan nuela.

Ordenagailua, berri-berria genuen, erosi berria eta ez harantza-horrantzakoa, merkatuko modernoenetariko baizik. Amamak berak erosi zidan bere urteetako jubilazio dirutik, Empresariales ikasteko beharko nuela eta, neure aitari tresna horren beharizana ahotik askatu nionean.

Jakin ere ez nekian nola eskertu opari eder hori eta besterik ezean, erakutsi egin nahi nion amamari ordenagailu polibalentearen balioa eta etorri ere horretarakoxe etorri zitzaidan amama Pantxike nire gelara.

Ni neu pozik baino ere pozago nengoena jakina zen baina ez dakit ba amama bera oraindik pozago ez ote zegoen nire neure barruak hartuezinerainoko poza ikustean.

Inon diren azalpenak eman nizkion amamari ordenagailu horren posibilitateak argituz kolore eta guztizko pantailan zirraborro batzuk egiten nizkion bitartean.

Amamak, denari baietz erantzuten zion bere buruari gora eta behera eginaz edo «usfsfsf» arnasots baiezkoa ezpainetatik barrurantz ahoskatuz. Egia esan, banekien, jakin ere, ezertxo ere ez zidana ulertzen baina pozik geunden, bata era batera eta bestea bestera.

Arrastiak aurrera egin ahala, geroago eta ganosoago ekiten nion amamaren opari ederrari eta interneten nabigatzen nenbilela, gustura ibili ere, amama Pantxikeri begiak bete zitzaizkiola konturatu nintzen. Ezpainetako irribarrea ez zuen galdu baina begi-txapelak mugitzerakoan negarranpuluak dariola neukala ohartu nintzen.

Atzamarrak jaso teklatutik eta zer gertatzen zitzaion galdetu aurretik, amama bera hasi zitzaidan berbaz, moko-zapi orde haginadura eta guztizko amantal barrenaz begiak igurtzi-sikatuz:

—Hara, Jon bihotzekoa, nondik hasi baneki? Ez zaitez larritu, negarrez naukazu baina pozagaz nago negarrez. Aspaldiko partez, aitarien gaixotasuna dela eta disgustua baino besterik ez dugu izan baina gaurko zure poza ikustean pozezko negarrak irteten dit bihotzetik. Aitita gizagaixoa ere ez litzateke gutxi poztuko bere buruaren jabe izango balitz, baina zer egingo dugu ba, burua galduz doakio baina gutxienez min barik bizi zaigu birik baten ospitalera ostera batzuk egin behar izan arren.

»Horrexegatik gaude hemen, Bilbon. Aitita gauza ez zenean izan baserriari eusteko, zure aitak etxe honetara ekarri

gintuen eta gauden gaudenean, hementxe izan beharko du gureak Jaungoikoak gura duen arte. Gu pozik egoteko gaude zuon etxean baina bati baino gehiagori orain kontatuko dizudana ere pasatu izan zaio.

»Zahartzaroa, onena izanda be, zahartzaroa da, bai, eta batzutan zaharrak okerrak direlako, beste batzuetan gazteak eurak bihotz gogorrak, ba, sarritan bat baino gehiagok aurkitu du bere burua asiloan edo lehenago ospitalea esaten zitzaion etxean.

»Behin baten, seguru, gizon zekenen batek bere aita hartu oherik hara eta asilorako bidean plantatu zen aita hori lepoan zuela.

»Joan zen burpiderik burpide, bidezidorrik bidezidor txit erdi bera ere egin barik aitari eta halakoren baten, han bidekurtzeroren bateko harri nagusi baten jartzea pentsatu zuen zigarro bat egiten.

»Elkarri lepoa emanda zeuden aita- semeok deskantsu apur hori hartzen, isilik, bata besteari aditu ere egin barik zein atzera egin.

»Baina halakoren baten semeak ezin zuen erremediatu eta adikuna bat bota omen zion aitari eta begi bietatik negarranpuluia dariola zegoela ikustean badiotso:

«—Zeri egiten dio ba negar berorrek orain tertzio honetan? Nahikoa ez diot ba aguantatu bikuntzako bizimoduan?

«—Ba semetxoa, zeri egingo zioat negar ba, nire neure aita asilora ekarri nuenean hementxe bertan, berbertan ezarri ninduan deskantsu apur bat hartzeko eta ez nian euki bihotzik neure aita hartu eta ostera ere etxera eramateko! Ez nian uste neure burua egoera honetan inoiz ikusiko nianik, baina

niri neuri heldu zaidak nire txarto eginaren pagua! Gurasoak dena zioz zor semeari, bazekiat, baina nik neuretzat egin diat lartxo eta hik heuk ere nire neure bidea hartu dukala uste diat, baina, berandu baino lehen, har ezak nire kontsejua, zein? eta hauxe: nik hi heu lez, hik heuk ere badituk seme-alabak eta honelako gauzetan “zer ikusi ha ikasi edo haltzaren ondoan haltza erne” sugertatzen duk. Ni ez nauk luzarorako eta ez zidak hainbeste ardura nire azken egunak etxean zein asiloan egiteak baina hik atzera begiratu behar duk eta orain erein gerorako hazia, hau duk, ejenploa.

»Semeak horiek hitzok entzun zituenean, bihotz ikara batek jota lez, hartu berrien berriz aita lepoan eta ez omen zuen inoiz etxerako bidea arinago egin. Han akabatu ziren asilorako bideok.

»Bai, gaur ere, jokabide asko eta asko, porreak buruan jo arte itxaron barik lehenago arteztuko balira, zenbat hobeto!

—Tira amama —erantzun nion—, ez zaitez larritu. Hemen ondo egongo zarete, baserrian baino hobeto. Nire aita ere erazago dabil zuok hemen edukita. Aititarentzat, behar denerako, ospitalea ere hurbilago daukagu eta aitak ere ez dauka baserrira ibili beharrik joan etorrietan bideak betean. Lasai, amama, kontu hori entzunda daukotsat aitari eta sekula ere ez du entzun izan nahi asilo konturik.

—Bai, Jon, arrazoia daukazu, hemen zuokin, zer gura eta haxe daukagu, baina badakizu, hainbeste urte baserrian emanda gero ez da batere erraza mendia hartzea hemen Bilbon, baina tira, lehen zure aita eta, geuk mantenitzen genituen eta orain, ostera, alderantziz. Horregatik ba orain geuk egokitu

behar dugu eta ahal bada zuoi ere lagundu, enbarazu izan beharrean.

Amama Pantxike zutundu egin zitzaidan eta koxoka-koxoka leihoraino joan bere hainbeste urtetako baserriko bizitzak imantatuta bezala edo.

Nik neuk amama lepoz neukan arren, alborik hara ere ikusten nuen bere aurpegia baseritik ekarritako eskapolot gaineko ispiluari esker.

Gaulendia zen eta Bilboko argiak isioturik zeuden. Lainabera zarratuak ito egiten zituen kale-farolak eta argi bate-tik bestera iluntasun mehatzunez josita ikusten zen aurrez aurre geneukan udaletxeko zubia.

Amamak leihoa zabaldu, besoak kurtzeatu eta ukondoak bentana-markoan ipiniz badiost:

—Jon, erdu hona eta aditu. Zuk hamazortzi urte baino ez dituzu eta entzunda beharbada bai baina ikusita euki ere ez duzu eukiko hau Bilboko udaletxeko zubi hau zabaltzen!

—Ez amama, Deustukoa ikusi dut birritan edo hirutan, harako Deustuko Unibertsitatearen aurrez aurreko atrakalekura barku nagusiak erremolkatuta ekartzen zituztenean, baina gaur egun Deustukoa ere ez da zabaltzen, goitik dabilen trafikoak kaosik sortu ez dezan.

—Orduan zuk, Jon, gabarrak ere ez zenituen ikusiko gure aurreko zubipetik pasatzen, ezta?

—Ba, hara amama, jakin badakit Bilboren historia nire ikasketetatik baina dokumental eta erretratuz kanpo, birritan bakarrik ikusi dut gabarra ibaia gora, noiz? eta Athletikek liga-txapelketak irabazi zituenetan. Baina ikustea izango zen

izan ere zure ume garaiko mogimendua Puentekolgantetik hasi eta San Antonera bitarteko ibai-arro guzti honetan!

—Hobe ez, Jon. Nik neuk ikusita ere bai, baina batez ere nire neure neba Peruk kontatuta dakit. Peru Bilboko portura etorri zen beharren. Solterutan egunaren zati handi bat bi-dean ematen zuen. Ia-ia goizaldean jagi, oinez egin kilometro batzuk eta gero Arratiako tranbian etortzen zen Bilbora.

»Urteak aurrera joan ahala, modua egin zuenean, ezkondu egin zitzaigun eta Erriberara etorri bizitzen, etxerik hara beharren ekiteko, euki ere hortxe zeukan bere grua, San Antoneko zubiari deusala. Gerra aurrean ez zegoen gaur beste zubi Bilbon eta zeudenak gaur baino altuagoak, arrantzaleen barkuak pasatu ahal izateko azpitik. Ikatza edo eta burdina garraiotzeko gabarrak erabiltzen ziren barku nagusiak sartu ahal ziren lekutik San Antonerainokoa egiteko. Gaur ez dago ez gruarik ez ezer. Peru bera ere ez, goian bego! Makina bat gauza eder ekartzen zigun baserrira etortzen zitzaigun bakoi-tzean. Badakizu, portuan erazago lortzen zituzten generoak, makailoa, gabonetarako bisigua eta holakoak. Makailoa aipatu dizudanean, burura etorri zait harako, baten nire neba Peruren peoi bati gertaturikoa barku deskarga baten:

»Gabon aurretuxa zen eta egun horretan, beste genero batzuen artean, makailoa deskargatzen zebiltzan. Txomintrasto, zelebrea zen izan ere, bereak zerabilen makailo bat ostuteko. Handik buelta hortik buelta, lortu zuen makailo eder bat ostu eta gordetzea okelu baten. Iluntzean, kintzenea kobratu eta etxerantzean, bulto gutxiago barruntatzeko edo, ez zitzaion gogoratu besterik makailo hori jakepean sartzea baino. Estukuraren estukuraz, bera ere ez zen konturatu kokotetik gora

agirian zeukala makailo buztana. Jakina, enkargatuaren aurretik igaro zenean altoa bota zion esanez:

»—Hi, zer daramak hor, Txomintrasto?

»—Nik ezer ere ez, —eskuetako morrala zabaldu eta erakutsiz.

»—Ez, ez, zakutoan ez, zer sartu duk jakapean?

»—Ezer ere ez ba!

»—Zelako ezer ere ez, kokotetik buruko galbar okerre-raino makailo buztana agirian daukak eta!

»Eta Txomintrastok hantxe utzi behar izan zuen makailo ederra lotsatuta eta buru makur alde eginik.

»Baina trastoia bazen zeozergatik izango zen eta handik egun batzuetara, beste makailo eder bati buztana ebagi zion eta etxerantzean kokotean jarri, beren beregi, enkargatuak ikusteko moduan. Enkargatuak berriro bota zion altoa eta zer? Ba tranpa egin ziola eta enkargatua bera utzi lotsaturik.

Amamak, barre eta guztiak egin zizkidan portuko fetxoriak kontatzen eta han leihoan erdi makurtuta egon beharrean, berriro jartzeko esan nion eta halaxe egin zidan ohe ertzera etorriaz.

Arrastiko zazpiak ziren baina ez geneukan afaltzeko pris handirik. Nire arreba Izaro bibliotekan zegoen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etxe-lanak osatzen, aita unibertsitatean doktoraduko kurtsoa ematen, ama irratia entzunez afaria atontzen eta aitita erdi lotan ohean, orduen kontrola galduta.

Nik, nire aitari entzunda, jakina, asko nekien gure aurrekoei buruz. Nire aita oso zalea izan da eta gaur ere horretan dario aurrekoen bizikerak biltzen eta mundu horretako euskararen erabilera lantzen. Baina, ordenagailua eta magnetofonoa

eskura nituenez, biak jarri nituen martxan amamaren jakituria altxorretik zertxobait jasotzeko. Ordenagailuko ahots-programa sarturik neukan dagoeneko, baina beharbada, amamaren ahotsa errekonozitu ez zuela egingo eta, badaezpada, magnetofonoa ere ipini egin nuen, ez nuelako ezer galdu nahi.

Amamak, aparatu guztiokin ikusi ninduenean, badiost esan ere karkaxada eta guzti: «Aitearen eta semearen... zu ere hasiko ote zara ba zure aitaren antzera nire eta nire aurrekoen kontuak batzen?».

—Amama, ez horrenbeste, gutxiagorik ere ez. Nire aitaren estudioak eta nireak ez doaz bide batetik, ha, letretatik dabil bere hezkuntza klasikoa bitarteko eta nik, ostera, ekonomiatik burutu nahi nuke. Dena dela, hau gure gaurko hau nire neure kapritxo bat duzu. Hemen hirian beste era batera bizi gara baina niri beti jo dit barrua aitaren esakera batek, zeinek? eta honexek: «Gaurra, lehenak eman digu eta geroa gaurrak egingo». Horregatik, amama, nik neuk behintzat, ha eta hori eta bestea ikusi arren nire inguruan, ez nuke zuon bizikera munduari tabula rasa egiterik gura. Hamalau-hamabost urtekin, lagun talde edo eta telebistaren eraginez edo, «karrozzat» kontsideratzen nituen nire aurrekoak baina zenbat eta edadean sartuago, «karrozok» ez ditut hain «karroza» ikusten. Nire aitak eta zuk uste nuen baino gauza gehiagotan egiten duzue bat, batez ere bizitzarako gauza inportanteetan, jakina.

—Bueno, bueno, Jontxu, holan bada ez dakizu zenbat pozten nauzun. Mundu honetan balio izatealakorik ez dago eta beste barik hasi egingo natzaizu gure bizitzako bizikera batzuk kontatzen. Gura eta ere dena ezin izango dizut kon-

tatu, je-je-je, laurogei urte, urteak dira gero e! Baina tira, nonbaitetik hasiko natzaizu bai, eta goazen!

»Gu, nire partetik, hamabi neba-arreba jaiο ginen mundu honetara. Ni gazteena. Zaharrena, Jose, etxagun geratu zen, Juan, baserriaren atzeko parteko dolare zaharrean obra egin eta haraxe ezkondu zitzaigun. Peru, Bilboko portuan beharren zebilenez, Bilbora ezkondu zen, pisu berrira. Bi hil egin zitzaizkigun, hobeto esanda hiru. Bat ume-umetan, beste bat kaskonduagoa eta hirugarrena gerran, sasoi-sasoian. Ahizpa bi, Pilipa eta Kontze monja sartu ziren euren aldi guztirako, bata klausuran eta bestea Frantzizkotarrean. Neba bi abade joan zitzaizkigun, bata praile Pasionista eta bestea abade-abade, eta kargu handia lortu, lortu ere. Falta den ahizpa, krida etorri zen honaxe Bilbora eta jubilatatu zenean neba abadeagana joatea ebatzi zuen.

»Aitita Martinen partetik, beste hamaika jaiο ziren. Aitita zaharrena izatera heldu zen aurreko hiru anaia hil egin zitzaizkiolako eta etxaguntzarako geratu zenez, ba ni aititaren etxaldera ezkondu nintzen. Ezkondu eta propietatearen erdi-banako jaubetza izateko, gure partetik erosi egin genuen etxaldearen partea eta zure aita jaiο zenean, alkarpoderoso egin ginen eta harrezkero neuk ere partea daukat erentzia ebatzietan. Esan dizudan lez, aititaren hiru anaia zaharrenak gudariak izan ziren eta gerra negargarri haretan hil zitzaizkion. Bi Artxandako azkenengo astrapala bildurgarrizko bonbardaketan eta hirugarrena gaur ere ez dakigu non galdu zen.

»Aititaren beste anaia bi kriadu joan ziren Enkarterrietara, mantenitalde eta bide batez erdera ere ikasteko asmoz, garai hartan don zen erdera zekiena. Eta begiratu zelan diren

gauzak e? Han ezkondu ziren eta muebleria banaren jaube egin. Aititaren beste hiru arrebetatik bat serora sartu zen eliza nagusian eta urteakarrenean monjatzako bidea hartu. Beste arreba biak, kriada agindu zituen zure birraititak. Bata hona Bilbora eta bestea, hasieran Bilbon geneukan baina gero Negurira joan zen ugazaba modu onekoa zitzaizun eta.

»Negurira joan zenak, Errosario gureak, gaineko ezkontza egin zuen. Majea zen izan ere eta salamerea. Horrexegatik lortu zuen mediku batekin ezkontzea. Bestea, berriz, Paula, Bilbora etorri zena, Begoña partera ezkondu zen. Gure Paula, beste bere antzeko neskame konprimentu bako asko bezala, Bilboko La Casilla dantzalekura joaten zen domeka arrastietan, aberatsak Gran Viatik ibiltzen baitziren, eta jakina, hantxe aurkitu zigun nobioa, erdalduna baina kapitalekoa eta aditu, Begoñan eta Begoñara ezkondu.

»Aititaren anaia gazteen biak mundutik zehar joan ziren. Bata Rusiara eramán zuten ebakuazioko barku baten eta bestea Ameriketara Gernikaldeko indiano bati esker. Rusiakoa-ren berririk ez da gehiago jakin. Heldu zela bai baina besterik ez. Ameriketakoa, osterá, Paulotxu, bizi dugu eta modu onean gainera, aberastuta, amerikak eginda.

»Zelako etxekadak e, alde bietatik? Gure hurrengo belau-naldian ez da ezagutu hainbesteko etxekadarik. Zure aita eta, lau baino ez dira. Bat hil egin zitzaigun, hobeto esanda hilda jaio zen.

»Jaio esan dizut, nire eta aititaren nebarrebak, denok izan gara baserrian bertan jaioak. Parterak nahinon eukiten genituen. Umegintzan adituak zirenak, harexek izaten genituen emagin. Gaurkoa ikusita, gure denporan ez dakit zelán ez

zen ezbehar handiagorik pasatzen? Hara, esaerak dion bezala: "Gure inozentziarako Jaungoikoaren misericordia".

»Gaurkoa esan dizut, baina zure aita eta, Bilbon jaioak dituzu. Jakina, modu apur bat zeukanak Bilbora joateari eman zion libratzen edo umea egiten. Bai, Bilbon jaio eta gero klinika ondoko elizan bateatu hurrengo egunean edo goizez izanez gero egunatan ere bai.

»Gaur asko eta askok bateatu ere ez ditu egiten umeak baina guk horixe ikasi dugu eta aurrera egiten diogu ohitura horri, bateatubakoak ere ez dira urrunago joan. Ni ez noatzu esaten bateatzea bateatu ez egitea baino hobea denik, bizitzan, ona non dagoen ikusi behar da eta gauzei alde ona aurkitu beti, datorrenetik datorrela.

»Belaunaldiz belaunaldi, aldatzen doaz ohitura batzuk eta aldaketa batek bere denpora behar izaten du. Gaur egun, arinegi bizi garela uste dut, batez ere zuok gazteok eta ohi-turak arinegi dabilta aldatzen, hausnartzeko asti barik.

»Nik neuk sarritan komentatu izan dut zure aitarekin al-daketa kontu hau eta aitak berak ere esan izango dizu baten baino gehiagotan gauza bera. Etxe bat eraikitzeke oinarri onak behar dira eta etxegintzarako era bateko edo besteko aldami-noak ere ondo etortzen dira.

»Bizitzan era askotako aldami-noak behar dira gure munduko bizimodua zuzen, artez eta zintzo eroateko baina zori-tzarrez gure denporan eta zure aitarenean ere bai zati handi baten, beharrezko genituen aldami-no horietariko asko des-montatzen ari dira eta euren ordezeko hobegorik ipintzen ez bada, zer? Kalamitatea nahinon eta nahinoz. Pertsonak, bizitzako leku-denboretara egokitzen jakin behar du. Larra

txarra dela esaten da, horregatik ez ibili ez arinegi ez astiroegi, neurrian baino.

—Amama, itxaron iezadazu apur bat, —komertzioa ebaiki egin nion—, zu entzutean neure aitaren berbak entzuten nagoela dirudi eta ulertu ulertzen dizut baina diostazun guztia ez ote da atzeregi begiratzea gaurko munduko etorkizunari baino gehiago?

—Hara Jon, erregalatu dizudan ordenagailu hau, ona duzu gaurko mundu modernorako baina adelanturik aurreratuetakoz inguratuta bizi arren ere, ona eta txarra bereizten ez badakizu galduta zaude munduan.

»Gure denporan, arrisku gutxiagoko tresnak genituen eta sarri askotan astia eukiten genuen txarra egin baino lehen atzerantz egiteko; gaur, ostera, peligruak errezkan datoz eta aurrezdik ez badituzu intuitzen irrebersible bihurtzen zaizkizu.

»Zu eta ni, biok gara pertsonak, ni amama zuretzat eta zu iloba niretzako, erdian, semea nik eta aita zuk, bion artean zubia egiten digula. Hirurok daukagu geure betebeharra bakoitzak bizi dugun belaunaldi eta garaian.

»Bizitza aurrera doa eta belaunaldi bakoitzetik bestera gauzak aldatzen doaz eta zure aitak eta nik ez dugu berdin pentsatzen gauza guztietan eta zuk zeuk ere ez gurasoenetan. Baina bizitzaren joanari begiratu, nire pentsakera, zure aita-rena eta zurea, bata bestearen gainean jarriz gero, elkartzen gaituena askoz gehiago da aldatzen gaituena baino. Jendeak, berba asko egiten du kanpotik baina norbere barrua ikutzen dugunean, oinak non ipini eduki behar da, bestela hankazgora goaz.

»Ez dakit diodana ulertzen didazun. Laurogei urteko esperientzia hamazortziko batenean sartzea ez da erraza baina argi eta garbi esango dizut, Jon bihotzekoa, ulertzen ez baduzu ere, eta sarritan zeure pentsakerarekin bat ez badoa ere, gorde ezazu zeure bihotzean lekutxo bat zeure guraso, irakasle eta gaisetikoan aholku zentzunezkoak entzun, hausnartu eta zeure eguneroko bizitzara egokitzeke. Gatx egingo zaizu baten baino gehiagotan, zeure inguruko askok, beste era batera jokatuko dutelako baina gure bizitzan neke barik ez daukagu ezer. Hori ondo dakigu baserritarrok. Solo onak bakarrik ez du balio. Lurra landu egin behar da, txorisatsa edo abonua bota, hazi ona erein eta ernaro onaren ostean jagon, harik eta heldu eta sasoiz ebagi arte. Frutua azkeanean dator, bere denboran, era guztietako arerioak ekidin eta gero. Mundu honetako leku-denboran pertsona da ardatza.

—Amama, pufffl, ia-ia durdiduta eta zorabiatuik nago, —esan nion esku biekin buruko ileak igurtziz—, neure aita berbaz balebil bezala zaude. Parkatu nire berbok, baina zuon sermoiak gogaitgarriak ere ez nuke esango baina pelmada bat direla ez deritzazu? Zergatik hainbeste beldur? Zer dela eta hainbeste aholku?

—Zure aitak ere sarri esaten zidan horixe bere gaztaroan eta gaur ere oraindino gauza batzuetan berdin egiten dit. Baina beste gauza askotan orain ematen dit arrazoia eta eskerak aholku on guztiengatik eta nik berari pozezko irribarrea entzuten jakiteagatik. Zuk ere, entzun benetan maite zaituztenen aholkuak, lagun onak aurkitu eta gogoz kontra ere, jarraitu bide onari, egunen baten behar den lekura helduko

zara eta. Zenbat eta zenbat geratu ote dira biderdian edo txarrago aholku onei jaramonik egin ez egiteagatik!

»Bueno, beharbada, gu zaharrok arduraren arduraz beti gabilta aholku ematen zuoi gogait eginarazi arte. Tira, jarrai diezaiogun gure lehengo kontuei, baina zeuk lagundu behar ko didazu galderen bidez, osterantzean niri gogoratu ere ez zaizkit egingo erdiak.

»Lehentxuago esan dizut zenbat neba-arreba izan ginen eta hurrengo belaunaldian, ostera, lau baino ez, zaharrena, zure aita.

»Zaharrena, zure aitita ere izan zen. Euskadiko gerreak harrapatu zuen bete-betean. Gaur, gaixotasunagatik ez da kapaz inori kontatzeko baina ikaragarria da gerra hasita lasterrera egin behar izan zutena. Gure partekoak Bilboko Errekaldeberriko tuneletan ebakatu ginen. Nik hamazortzi urte nituen, orain zeuk beste Jon. Zelako ezberdintasuna gure bion hamazortzi urteena ezta?

»Esan dizudan bezala zure aitita Martin gerrara joan zen, gudari bezala. Gure herri gaineko lainopetatik dena zen tiroa eta aparejua. Orduan, zure aititaren aitak eta amak, hartu behi bi buztarrian, bete burdia euren umez eta janariz eta Enkarterrietara alde egin behar izan zuten, euren herria ebakutzeko agindua hartu zutenean.

»Joan bazihoazen. Zure birraititak, itaurren, karreteru beharra hartu zuen akarreo berezi haretarako eta noizean behinean, ipuztarria geratu, andrea utzi behien aurrean txorbel batekin mandauli edo eta ezpadurdinak uxatuz ganadua geldi eukiteko, eta bide zati bat egiten zuen oinez ea aurrerantzako bidea libre ote zegoen jakiteko.

»Horrela egin zuten bide arlo handi bat. Ganaduak nekatuta, umeak negarrez gurdi gainean, ha zen ha kalbarioa, noraezean eta errukarri. Gautu ere egin zitzaien eta zelanbeist pasatu zuten gaua, gauaren luzea, urrunera tiro-zarata eta euren argiak ikusten zituztelarik. Hurrengo goizean, nire aitaxea izango zena, inontzik inontz kilometro pare bat aurreratu zen bide librea aurkitu asmoz. Joan egin zen baina berriro familiakoengana zetorrela:

«—Alto! Nor zaitugu eta nora zoaz? —soldadu batzuk eta erderaz.

«—Ba, ni, urlia, eta honetantxe nabil eta honetarako noa.

«—Ba, ezin duzu, inori pasatzen utzi ez egiteko agindua daukagu!

»Berba siku eta negargarriok entzun zituenean, zure birraititari eskuetako gan eta guztizko akuilua zorura erori zitzaion eta bernak dar-dar zituela negarrez hasi zitzaien. Soldaduok, pertsonak ziren haiek ere eta, errukitu egin zitzaizkion eta egia esaten zuela ikusirik joaten utzi zioten bereengana. Zelangoa izango zen sustosartua eta beragandiko bildursartua, berbartu eta guzti ibili zen gizagaixoa egun batzuetan.

»Bideko peripezia guztiak pasatuta, ailegatu ziren azken baten Enkarterrietara eta behin haraz gero Santanderreko lehenengo herrira sartu ziren, harik eta hemengo gerra akabatu arte. Villaverde de Trucios herrian egon ziren bitartean, ez zuten izan zure aitita Martinen berri bat esan eta bera ere.

»Gerra amaitu zenean, gure auzoko bat, gudari sartu beharrean Vitoriara entregatu zena nazionalen artera, nik neuk ez dakit ba, damututa edo, izan ere ebatzi gutxikoa zen izan

ere eta horrexegatik joango zen nazionalekin, bildursartuagatik, ba horixe auzoko hori ebakuazio-herri horretara ailegatu zitzaigun.

»Nire gizona izango zenaren aitak gizon hori ikusi zuenean, nazionalen akorduz baino auzoko lez egin zion berba esanez:

»—Oño Pello, bakez hator?

»—Bai, Paulo.

»—Tirauk ba! Eta zer berri dakark ba paraje honetara?

»—Hasteko, parka iezadak nirea. Bildursartuta nengoan eta egin nian egindakoa, baina nazionalekin egon nauan denbora guztian ezin izan diat zuen egoera ahaztu eta zuon Martin nire lagunarena gutxiago. Gerratik lizentziatuz batera, amistade batzuen bitartez jakin diat zuon Martinen berri.

»—Non zegok? Non? —esaten omen zion Paulok, arnasestu eta guzti.

»—Ba, zuon Martin eta lehengusu Anton, biak ibili zituan Bilbo defenditzen nazionalak sartu ez egiteko. Artxanda izan zuan azkenengo gatazka tokia. Zuon Martin hantxe hartu zitean preso eta Santoñako presontegian zegok. Anton hire loba ere bai. Baina Antonena sinestu ezinekoa izan duk.

»—Zer gertatu zaiok ba? Esan! —agintzen zion Paulok, jakiteko intzigu biziaz.

»—Ba, aditu, Artxandako deskalabruan, gudarien gorpuak errezkari agertzen zituan eta ama bat baino gehiago, ebakuaziora joan gabeak, jakina, Artxandara bertara joan eta euren seme bila hastean, zer? eta zenbat tragedia! Hire koinata ere hara joan zuan, balorea eduki behar duk e? Baina han zegoan. Ingurutik soldadu batzuk zebiltzaan tiro de gracia deritzona ematen konorte barik eta deslai zeudean guztiei. Halako ba-

ten hire koinatak ahozpez, luze etzanda, Karmengo eskapularioa esku barruan estututa zeukaala, aurkitu zian bere semea. Buelta eman eta berba erdi ere ez, zirkinik ere ez! Baina ama aurrean ikustean begi bietatik negarranpuluak dariola hasi zuan Anton eta orduan hire koinatak, badakik beti ere nolako mihian har bakoia izan den:

«—Eeee! Soldaduok! Hau bizirik daukagu eta ez eman tirorik, deitu iezaiozue aurreratxuagoan duzuen anbulantziari, arin, agudo!

«Soldaduek entzun eta begiratu egin ziaten baina euskarazko berbaikunarik ulertzen ez ziaten arren, hurbildu egin zituan eta azkenean, zeinua gora zeinua behera hartu zuon loba eta anbulantzian eraman ziaten. Ha ere Santoñan zegok, preso, baina osatuta.

«Bueno, orain banoatsue, gure herrian inork ez zekik nora etorri naizen eta mesedez, Jaungoiairen amor santuagatik, ez esan inori nire bisita honen berri.

«—Ez Pello, nasai joan hadi, ni berbako gizona nauk eta pasatuak pasatuta ere, gizon portatu haiz, bizitzan erratuak ere izaten dizkiagu baina damutzeko aukera ere beharrezko diagu eta horretarako bizi egin behar, bizi ezik nola damutu eta bide zuzenera eraldatu?

—Amama, —esan nion ia begiak beteta—, hauek kontu hauek aitak ere ez dizkit kontatu inoiz, baina nola izan dai-teke hori horrela horraitio?

—Aitu, Jon, zure aitak jakin badaki hau guzti hau, baina hain izan zen gogorra gerra gure belaunaldiarentzat, gogoratu gura ere ez dugu eta zure aitak ere ez du kalamitate haren zauria odol-malauria dariola ipini nahi eta beharbada horre-

xegatik ez dizu ezer esan, odolak ur egin ez dakizkizun. Gaur egun nahaste handia sortu da gure gizartean. Gu euskaldunak gara eta gure belaunaldiko askok, batzuk heriotzarekin eta besteak bizitzarekin, zaindu eta eutsi egin diogu gure herri zahar honi, baina gaur egun ez dakit ba nora goazen hain zatiturik! Euskal Herri bat gara eta Euskal Herri bat nahi dugu eta nola lortu hori? Nire laurogei urteotako esperientzia laburbilduz honelaxe: oinak firme, burua argi eta bihoztza samur edukita. Adibide bat ipiniko dizut, Jon, ebanjelioko parabola baten antzera. Begira, nire txiki denboran, bidegintza izaten zen eginbeharretariko bat. Zorua, zelai eta lurtsua zenean erraz zabaltzen genuen bidea baina haitz bat aurkitzen genuenean erdian, oboan-oboan joanez egiten genuen bidea, baina helburua lortu, hots, bidea egin. Gaur, ostera, haitza apurtu egingo genuke eta artez egin bidea. Hori posible da. Baina gure herri-bizitzako bidean ostoporen bat aurkitzen dugunean eta ostopo horretan pertsonak daudenean zer? Gure denborako irtenbidea ala gaurkoa? Hor dago kuestinoa! Bizia bakarra da eta baten baino ez gara bizi, baten bakarrik, hau serioa da gero e? Ba al dakizu zenbat ahalegin egiten den munduan gaixotasunak gainditzeko? Ez dakizu zenbat bider esaten diodan neure buruari, mundu honetan bizi egin behar gendukela eta bizi garela konpondu gizarte-arazoak.

»Beste adibide bat ipiniaz, badakit etxeak ere zaharkitu eta gauzentandu ere egiten direna, jakina. Gaur egun batek baino gehiagok jo eta apurtu egingo luke etxe zahar hori gustukoa ez duelako, baina nik neuk, zaharra bota baino lehen, berria egingo nuke edo eta etxe zaharra zutik dagoela berriztatu,

gaurko mundura egokitu eta etxean bizitzen jarraitu, baina bizi, oraintxe firmatuko nituzke beste laurogei urte jakinez gainera munduan alperrik galtzen direla itsasoko euria, urruneko egur iharra eta pobrearen arrazoia!

—Odolak irakin egiten dit, amama, —esan nion ikubilak sakatuz—, baina ikusten dudanez zure odolak nireak baino irakinaldi handiagoak jasan behar izan ditu eta zure bihotzak ez dario gorroto tantarik ere kalamitate guztiak gogoan eduki arren.

—Bai, Jon, halaxe da eta horrexek ematen dit barruko poza eta bizitzeko gogo. Hariak, jostorrazak baino luzeagoak izan behar du ezer josiko bada!

»Berriro ere sartu natzaizu nire erreflesioetan eta ebagi egin dizut birraititaren ebakuazio kontua. Goazen berrien berriz.

»Egunak joan egunak etorri, zelango halango bakea ailegatu zitzaigun eta nire gizona izango zenaren guraso eta neba-arrebak berriro etorri ziren jaiotetxera. Etorri egin ziren baina gerreak ez daukanez gauza onik, zer? eta ez zuten ba euren etxea apurtuta aurkitu? Egia esateko, etxea ez zen eurena, errentadoreak zirelako baina kasurako eurena zen, betiko euren bizilekua. Ha bai zela koadrua! Etxera etorri eta etxerik ez. Etxean utzitako tresnak arakatuta edo apurtuta, bihotza apurtu edo odolak ur egiteko moduko egoera izan zen izan ere.

»Zurumurrua barruntatu zuenean, atoan hurreratu zitzaien Pello, harako euren seme Martinen berri eraman ziena eta:

»—Hara, Paulo —esan zion zure birraititari—, semearen berri ematen joan ninduean jakitun nengoan hemengoaz baina ez nian minik gehigo eman gura eta semearena esanda

bakarrik itzuli ninduan, behin berriro honaz gero hemen konponduko ginela eta. Horregatik ba, hator nire neure baserrira eta han biziko gaituk harik eta gauzak arteztu arte.

»—Villaverde de Truciosen ere esan nian, baina oraingoan ere gizon portatu haiz eta ez zekiat zelan eskertu hau guzti hau!

»—Ez hadi larritu Paulo, —esan zion Pellok—, gerrako kontuak euki gaitik banatuta baina ahaztu egin nahi diat lehenbailehen gerrako hori eta lagun izaten jarraitu. Momentu baten berdin pentsatu ez egiteak ez gaitik alden du behar betirako. Azken baten, gu, baserritarrok, ez gaituk enteratu ere egiten goitik zer gertatzen den. Guk, bizi egin behar diagu eta auzoko legez, lagun onak izaten jarraitu eta horixe eramango diagu aldean mundu honetatik bestera.

»Era horretara egin zion berba Pellok gure Paulori eta batera bizi ziren, bateko besteko gorrotodunek txarto ikusita euki arren.

—Zergaitik ba txarto ikusita amama? —esan nion arduraz beterik.

—Ba, hara, Jon, Pellok bihotzez jokatu zuen baina beste batzuk ignorantziatz beteriko bihotz gogorkeriaz, oroak eta moroak lortuko zituztela pentsatuz edo. Arlo honetan gauza ikaragarriak gertatu dira gure herrian. Denak kontatzeko asirik ere ez daukagu baina kontuak hartu ditzazun bi kontutuko dizkizut.

»Aditu, gure herrian familia nonbradu bi zeuden eta badaude oraindikarren. Bata beti gutarra eta bestea bestetarra. Jakina, bestetarrek inon diren kalteak egin zizkieten, bateko denuntziak, besteko oztopoak, eta abar luze bat gutarrak

izateagatik. Baina edurtzarik handienez ere eguzkiak jo ezker lurmenak agertzen direnez, urteak joan urteak etorri familia bateko mutila eta beste neska nobio hasi ziren eta herriko ume bat besoetan hartu ere bai bateko aitabitxi-amabitxiak izanik. Zeresana ez zen falta herrian baina gauzak aurrera. Aurrera ezeze ezkondu ere bai. Ezkonberriek maitasuna zuten aurridi eta bidatu egin zuten zeresanak goiti-beheti. Azkenean familiak ere geroago eta hobeto konpontzera etorri dira eta orain ez dago lehengorik.

»Eta beste kasua, harrigarria da. Zuk ez zenuen ezagutu ere egin, zu jaio aurretik hilda zegoelako, eta gainera kontua ez da nor, zer baino. Gudaria zen. Zure aitita baino zaharra-goa. Gerra, gerizpea, gartzela esan nahi dut, eta gainetikoak igaro ondoren, bake-bakean bizi zen herrian. Egun baten, meza nagusia entzun eta gero, txikito bat hartzeko sartu zen herriko tabernara eta bestetar batek non diotson:

«—Ia, orain esan ezak “Gora Euskadi”!

«—Utz iezadak baketan —erantzun zion gudari izandakoak—, gerra bukatuta zegok eta ez diat nahi enkuentru berririk.

»Baina, gorrotoa norainokoa den e! Halako baten hasi zitzaizkion bestetar koadrilla bat ikubilkasuka eta ostikoka, eta lurrean etzanda utzi zuten gizon gizagaixoa. Konortera etorri zenean, zutunik ezin eta katuka joan zen etxera edo hobeto esanda eroan egin behar izan zuten. Inork ez zuen parterik eman herrian, batzuk harrokeriagatik eta besteek bildursartuagatik. Gure zauritua ez zen ikusi kanpotik hogeitaka egunetan. Saihetsak apurtuta eta odolunez beterik zeukan gorputza. Medikuari esaten ere beldur ziren zein

zergatia argitu, eta gizagaixoak errukarri igaro zituen egun luzeok. Paliza emandako astakirtenok harro zebiltzan herrian baina beste egun baten eurek ere hartu zuten hartzeakoa. Nazionalista familiako sasoiko morrosko batzuk lepoa bero-bero egin zieten eta hantxe geratu ziren lotsatuta. Eta orain dator gauzarik nabarmenena. Haietariko saihets apurtzailletariko bat hil ere egin zen denporakarrenean. Gure gudari izandakoa, fede handikoa zen izan ere, hileta mezara joan zen eta meza ostean, ohitura zen eta den bezala, meza bat atera zion, olata meza bat, bimila errealekoa. Beste gudari-lagun ohi batek ikusi egin zuen fetxoria guztia eta sakristiniatik urten eta elizportalera heldu zenean esan zion ba ze:

»—Hi, mezatara etortzea ere nahikoa izan duk, eta hik osterata meza ere atera egin diok hire zigortzaileari.

»—Bai egia duk, pasatuak pasatuta ere, nik ahaztu ez diat egin baina heriotzaren aurrean ez zaukaat gorrotorik, gogora ezak Jesukristok berak ere zer egin zuen zigortzaileekin.

»Zer deritzazu Jon? Hori bai gizontasuna e? Portaera hori ezin lezake edozeinek ulertu, hor bihotz beratasuna dago bitartean, badakizu Jon, kasu honetan, firua luzeagoa izan da jostorratza baino.

»Goazen aurrera. Egunak aurrera joan ahala, gartzeletako batzuk ere etxera etortzen hasi ziren baina gero beste hainbeste denbora edo gehiago soldadu joan behar izan zuten, Francoren ejerzitura. Baina denak dauka azkena eta halako baten zure aitita lizentziatu zen eta herrira etorri.

»Handik behiak, hortik ardiak, dirutxo batzuk ere egin zituzten eta beti Pelloren baserrian bizi beharrean, etxe berri bat egitea pentsatu zuten zure birraititak eta. Etxe berri bat

egitea ez zen txantxetako kontua baina ordurarteko ugazabak salgai ipini zituen baso, solo eta etxe apurtua. Nire aitaxea izango zenak eta, gura bai, baina ez ziren ausartzen propietatean sartzen hogeita mila erreal zeudelako bitartean. Pello, modukoa zitzaizun, etxagun handia, eta Paulori bul-tzakada bat emateko era honetara berba egin zion:

»—Hi Paulo, eros ezak propietate hori!

»—Zelan erosiko diat ba ez zeukaat behar den beste diru eta.

»—Bueno ba, neuk aurreratuko diat diru hori eta erre-ditu barik ordainduko didak gaur ez bada bihar. Zer deritzak?

»—Zer esango diat ba, prezio erdiari eusteko lain bazeu-kaat baina gainera etxearena zegok hor, etxe berria egitea ere, gaineko buruko mina!

»—Etxearekin ez hadi arduratu, lehengo zaharraren guz-tia aprobe-txatuko diagu eta eskubeharrerako aurkituko diagu nork lagundu. Obra berriaren baimen kontuetarako aurkituko diat errekomendazino-ren bat, hortik goitik ere denetarik ze-gok eta.

»Paulok arnasa sakon baino ere sakonago hartu zuen eta atzera barik aurrera egin etxaguntzarako izango zen Marti-nen gurari eta baietza jakin eta gero.

»Propietatea eskuratu zuten. Durangon bete zituzten pa-pelak herriko abadearen konduta ona adierazten zuen esku-karta erakutsi eta gero.

»Hasi ziren etxeginen eta hainbat gudari ohiren lagun-tzaz uste baino lehenago bukatu zuten. Hori bai, lau hormek neurriaren goia edo gana jo zutenean, Paulok, aurrealdeko hormaren erresuman ereinotz errama eder bat jarri eta “Gora

Euskadi” bat bota zuen zantzo eta guzti. Eskerrak ez zena egon salatzaierik inguruan, bestela?

»Propietario berri eginda zegoen Paulo edo hobeto esanda Martin. Eta jakina, ezkontza kontuetarako eta, etxaguntzalakorik ez zegoen. Horregatik ba Martin etxaguna ondo ikusita zegoen herriko neska eta euren gurasoengandik.

»Ni neu ez nintzen propietarioa, errentaria baino, baina zure aitita Martinek eta nik erromerietako jantzetako bal-tseoetan konpromiso handiegirik ez baina berba gozotxo batzuk ere esanda genituen biok errentariak ginenean. Paulori propietarioetako batek baino gehiagok botatzen zizkion iterantzunak euren alabak Martinekin ezkontzeko baina zure aititak, —gaur nola dagoen e gizagaixoa bera!—, hauxe esan zion bere aitari:

«—Aita, badakit berorrek hartu ere egin dituen ezkontza errekaduak baina berorri txarto ez baderitzo nik Pantxike elbarrengoarekin ezkondu gura nuke. Ez da etxaguntzakoa baina nire bihotzak ez du besterik ikusten.

«—Hara semea, niri ezkontza aitak egin zidaan eta ez nagok bat ere damututa baina hik heuk ebatzi behar duk eta heure esku uzten diat. Pantxike itxura oneko neskatoa duk eta bere aitamak zintzoak eta badakik esaera: “Haltzaren ondoan haltza erne”. Aurrera Martin, lagunabar zintzoarekin burutuko duk, bai horixe! Era honetara ez zaik gertatuko han hor hemengo mutil eta neska askori gertatutakoa, zer? eta uda goieneko lore bihurtu, oinezkorik gura ez eta zaldizkorik etorri ez eta.

—Amama —ebaki nion—, aititak bere aitari aipatu zizkion errekadu kontuak zer zaizkizu ba?

—Arrazoia, Jon, gaur egun beste era askotara ezagutzen da gazteria baina gure gaztaroan, edo guraso edo erromeria edo errekadu bitartez egiten ginen nobio, iturrietan ere bai bat baino gehiago iturriko uretan joaten zirenean.

»Bueno, errekadu egitea zer den jakin gurako duzu zuk ezta? Ba, aitu, lehenago, eta orain ere ez dugu galdu usadio hori, ezkontzedadea ailegetan zenean askok ez zeukan lagunabarra topetako erarik ere, eta errekadu egiten zen batez ere arean lotsorra edo betuxoa izanez gero.

»Batzuetan, lagun bat edo senitarteko bat izaten zen, baina beste batzuetan eskekoak ere igual, etxerik etxe ibiltzen ziren lez, ba, handik guzurra eta hortik abarra, banaka bat ipintzen zuten eztegu bidean. Gaur ere ez daude ba agentzia matrimonialak eta periodikuetako horiek zerok, zita anuntziok? Errekadu kontuetan istorioak ere zebreak pasetan ziren. Oraintxe denekin akordetea ere ez da fazila baina bi edo hiru kontatuko dizkizut.

»Baten joan omen zen mutil bat errekadu egiten lagun batentzat eta neskaren etxera ailegatu zenean, ondo baiño hobeto hartu zuten eta inoiz ez lako merindafaria ere atera. Egon eta egon, ez zaio mutila bera gustetan neskatxiari! Eta ba biak plantatu ziren ezkontzeko. Bestea paratu zitzaion paretakoa! Garbitu eginik izan zuen lehenengotan, baina tira gero beste batekin ezkondu zen eta ahaztu zitzaion ha afruntua, osterantzean, batek badaki zer trebituk irtengo zuen elkarren artean!

»Beste errekadu antzeko bat ere izaten zen neska bat nobiatzat hartzeko, neska mutil bien artean ume bat besoetan hartzea, eta horixe zen nahiko herri guztiak parejatzat onartzeko.

Eta hor ibiltzen ziren zuhur, umerik non jaioko, bateoko aitabitxi-amabitxiak izateko.

»Eta hau oraintxe kontatuko dizudan pasadizu hau ere polita zaizu. Baten, ez dakit ba nor ere, errentea pagetan joan omen zen eta ugazaba horren etxean krida gazte bat omen zegoen behesuan, eurei lepoa emanda, ba, talaburrinan taloak erretan.

»Ugazaba horrek tardatu egiten omen zuen ipuztarriko edeak soltetan eta errentore horrek talo usainera edo, badio-tso krideari:

»—Nik neuk jango nituzke bai zuk erretako taloak!

»—Nik neuk erre ere bai zuri zeuri! —erantzun omen zion.

»Eta begiratu gauzak zelan etorri litezken, zertu, ezkondu egin ziren seguru, handik urteagarrenera.

»Eta holangoak? zenbat gura eta harexen beste, makina bat fetxoria eta denodu batean bestean!

»Gero beste batzuetan bestera ere sugertetan zen, urliak aberatsago batengatik edo utzi eta aberatsago horrekin ezkontzea lortu. Orduan, batzuk, joan bertsolari batengana, eskribitu bertsoan sugertadu zaiona eta gero Urkiolan eta, saldu egiten zituzten bertso-paperak eta askok buruz ikasi ere bai. Holako gauzekin kreditua galtzen zen askotan. Horiek kontuok erleztarra edo kurebioen ahausigiak baino min gehiago egiten zuten sarri askotan, gero denborarekin ahaztuz joan arren.

»Guk, aititak eta biok, erromerietako baltseoan emanik geneukan gure berbea baina, ezkondu ez ginen egin atoan, ez. Gure Martinek eta, dirua aurreratu behar zuten eta nire aldetik bizimodua lastu egin zen.

»Gure ama ezbeharrez hil zitzaigun. Lehenago etxeetan urik ez zegoenez eta ganaduentzako gutxiago, ba gure amak egun baten, goiz beranduan, soloko beharrak egin eta behiak buztarritik soltatu orduan, ura edaten eroan zituen eta haronakoa egin eta gero etxearen albateko aurbheheratxoan behi batek laprast egin eta gure ama azpian zapaldu zuen apatxarekin besoa lorrinduz.

»Lehenago ez zegoen gaurkorik eta mina gorabehera aguantatu egin zuen. Baina besoaren kanpotik odolbatu handi bat baino ez zelakotan egon ginen eta min ikaragarriak handiagotzen zihoaztela ikustean, Bilboko ospitalera eramán zuen gure aitak. Baina berandu. Gangrenaturik zeukan besoa eta handixek hil zitzaigun, aita alargun gazte eta etxekada seme-alaba utzita. Eta diotsudanez, nik ere nahikoa zereginik neukan etxeko andrabeharrak egiten eta horrexegatik ez geneukan ezkontzeko estukurarik.

»Baina heldu zen eguna, ezkontzeko eguna. Aurretik etxeikusia ere egin genuen bitzuen aldetik eta lehen esan dizudan moduan, gure aitak, errentadore alarguna izan arren, nire dote gisa, erosi egin zuen nire gizona izango zenaren propietatearen partea eta zure aita Xabier jaio zenean, alkarporoso egin ginen eta harrezkero andra-gizonok gara etxagunak, usofrukto zein herentzietarako.

»Herentzia kontuak oso inportanteak dira gure herrietan eta bat baino gehiago jabetu ere egin izan da gurasoei burua berotuaz. Haserreak ere galantak ezagutu ditugu batean bestean.

»Behin baten, gure ezagun bat damutu ere egin zen herentziako ondasunak behar ez dela lortu zituelako. Baina

jazoera hau misteriozkoa zaizu, kontatu egingo dizut eta zuk zeuk atera kontuak.

»Baltzolako kobazuloaren ingurumariko baserri baten Petra eta Manu andra-gizonak bizi ziren. Lehenago ez zegoen argi indarrik, zuk Jon, ez duzu hori ezagutu ere egin, eta argizari, petroleo edo karburoa erabiltzen zen argia egiteko. Egun baten Petrak esan zion Manu bere gizonari:

«—Manu, bihar Villarora joan behar didazu petroleotan, asterako petroleoaren eske.

«—Bai, joango natzaizu egun sentiko kukurrukuak jotzen duenean.

«Halantxe egin zuen Manuk. Jagi tertzioz, barauskarri apur batekin barausi, jantzi domeketako soinekoak eta:

«—Petra, dirua emon beharko didazu petroleotarako?

«—Bai, banu, baina ez daukagu zentimo bat esan eta bera ere. Eutsiz dozenerdi arrautza eta hauexen truke ematen dizutena ekar ezazu edo gaintekoa hurrengorako fidatu!

«Joan zen gure Manu Villarora petroleotan. Bidean zihoa-la, asto bat aurkitu zuen biderdian.

«—Arre hortik! —egin zion gedar, baina alperrik. Berriro ere—: Kenakit enbarazutik, —eta lehen letxe. Hirugarrenean badiotso—: Zer jaungoiko behar duk ba astoa? —Eta horiek berbok entzun orduan, sutan, alde egin zion hark astoak Baltzolako kobara eta barruan estaldu.

«Beldurtu ere egin zen Manu, baina goizeko angelus erre-zatu ondoren, aurrera egin zuen Villarorantz. Petralandako bidekurtzetik zihoa-la sorginak ikusi edo barruntatu zituen euren funtzinoei eragoiela eta zantzoka esaten:

»—Enemesia etxandereak, Baltzolaganekoak, ez du eukiko osasunik harik eta gozatuten dabilen gozamenak toketan zaiolari entregatzen ez badizkio!

»Ileak ere arteztu egin zitzaizkion Manuri eta Lamindaoko larreak beheara, behingobaten heldu zen Villaroko petroleo dendara.

»—Tertzioz ere bazatoz Manu! —esan zion dendariak.

»—Bai, eta arnasestuan gainera!

»—Zer gertatu zaizu ba?

»—Ba, hauxe eta hauxe, honantxe eta honantxe, non? eta Petralandako Landan!

»—Hori kontu hori ezin utz zenezake Enemesiari esan barik, zein ezbeharren bat gertatu. Eutsi behar duzuna eta zoaz agudo Baltzolaganera belu baino lehen.

»Manu, orpoetan har barik joan zen Enemesianerantz, baina ez lehengo bideetatik, kaminoz baino.

»Enemesianera heldu zenean, ia berbartu eta guzti zegoen Manu eta badinotso Baltzolaganeko etxandereak:

»—Zerk ipini zaituen baino ez da hain estu eta larri!

»—Zerk? Bazeneki jakin hor Petralandako Landan zer entzun diedan sorginei!

»—Zer entzun diezu ba?

»—Ba, Enemesia, ez duzula izango osasunik harik eta zure gozamenak toketan zaiolari eman artean!

»—Ene Jesus! —esan zuen Enemesiak—, norberenarekin barik inorenarekin jaubetu naiz eta, jakina, jakin dut hor-tik gauza onik ez datorrena, atoan emango diot bakoitzari berea, bestela Josafaten landan eduki nezake enkontru txa-

rrren bat txarto eginaren orde. Ai ene! Zergatik ote naiz denabeharrekoa?

»Halantxe egin zuen. Deitu morroiari, buztartu idiak, bete burdia bereak ez ziren tresnekin eta egurdarte barruan kitutu zituen neba-arrebenganako zorrok.

»Zelako kontuak e, Jon,? Nahikoa duzu ala aurrera egingo dugu nire kontuokin? Ez diostazu ezer eta ez dakit ba asper-tuko edo gogaitu egin ote zaitudan.

—Ez, amama, —erantzun nion pozarren—, ondo daragoiozu zeureari eta ekin iezaiozu. Grabatzen nabilkizu eta ordenagailu moderno honek zenbat gura eta harexen beste leku dauka barruan. Zuk jarraitu. Benetan ere, beste mundu baten sartuta banengo bezala sentitzen naiz amama. Guk gazteok gaur bizi dugun mundua hain da ezberdina! Zure berbak entzutean gauza berezi bat bizi edo sentitzen dut nire barruan. Neure aitari ere sarri entzun dizkiot antzerako gauzak eta kontra egin ere bai sarritan, baina zure ahotik ere entzutean neure aitaren aitatasuna argiago ikusten nabilela dirudi. Ai ene! Hau ez dago liburuetan, hau bizitza da, amama! Zelan ez naiz ni honetaz konturatu lehenago? Jakina, amama, nik neuk ez ditut entzuten hortik kanpotik honelako gauzak. Gaur jendea beste era batera bizi da eta gazteek ez dute ia ezer jakin gura aurrekoen kontuekin.

—Tira ba, Jon maitea, ez iezaiozu zeure buruari lorrik eman, zu hamazortzi urteko gaztetxoa zara eta bizitza arinegia bizitzea tokatu zaizu. Tren hori martxan doa eta zuk ezin diozu abiadura horri galga bota. Gure bizitzako tren honek bagoi asko ditu eta denak dira beharrezkoak orekaz jokatzeke. Helburua ez da arinegi joatea, behar den lekura ondo heltzea

baino. Bizitzak ez du behar prisarik. Niri, igaroak igarota, arin pasatu zait bizitza, igarri gabe laurogei urte. Norako hainbeste prisa? Ea, ba, goazen lehengoari ekiten. Ezkontzarekin geratu garela uste dut eta zelan ospatu genuen esango dizut.

»Lehen ere esan dizut baina ezkontza egun aurretik, ohi-turari jarraituz, bata bestean etxeikusia egin genuen. Zuk, Jon, etxeikusia zer den ere ez duzu jakingo baina gure denporan horixe egiten zen. Hau da, ezkongaien etxeotara haronako bat egin ezkontza tratu eta antolamenduak egiteko.

»Gure denporan elizaz ezkondu behar izaten zen eta halaxe egin genuen herriko eliza nagusian. Ezkontza elizan adierazten zen. Ezkondu aurreko hiru domeketan irakurtzen ziren jaionak, ezkongai bakoitzaren datuak emanaz. Horrezaz gainera, abadeak eskatu egiten zuen ea bikote hori ezkontzeko inpedimenturik zegoen. Beraz, ez zen txantxetako kontua.

»Etorri zitzaigun ezkontzeko eguna eta oinez egin genuen elizarako bidea. Zure aititak kilometro biko bidea bakarrik egin zuen eta kaminoz, nik neuk ostera, zortzikoa eta zati handi bat burpiderik burpide. Nire gizona trajea jantzita etorri zen etxetik hasita, abarketekin eta zapatak eskuan zituela elezportalean aldatzeko.

»Ni neu etxeko soinekoekin joan nintzen eliza ondoraino eta behin haraz gero, sakristauaren etxean jantzi nituen errota berriak. Orduko denborak izateko, majarik joan nintzen. Linozko trajea eta alkandora zuria, eskotean bordadurekin. Buruko ilean, josten ikasten ibili nintzen ugazabandreak erregalatutako urrezurizko gantxoia eraman nuen. Ez dakizu zer dotore joan nintzen? Bueno, ez dakit zergatik kontaktzen dizu-

dan hau, gure baserriko komedoreko horman daukazu eskegita gure argazkia eta. Oraintxe eta oraintxe ere, a zelango brillua botatzen duen hark gantxoak urtekarrenean ere. Gero ha gantxoa bati baino gehigori ere utzi ere egin nion euren ezkontza egunerako. Orain, daukazun izeko bakarrak darabil hori gantxo hori, eta ondo estimadu erabili ere.

»Bueno, eta ezkondu ginen. Nire neba abadeak ezkondu gintuen. Beste neba frailea eta ahizpa monjak ezin izan zuten euren komentoetatik irten. Aititaren aldeko aitabitxia, Ameriketatik etorritako Paulotxu bere anaia izan genuen eta nire aldetikako amabitxi, bizirik neukan ahizpa bakarra, nire aurrekoa, krida joan zitzaiguna. Mezea latinez izan zen eta sermoia euskaraz. Kontsejuak onak eman zizkigun neba abadeak eta zeozertarako balio ere izan dizkigute, hemen gaudelako oraindik batera elkar maitatzen. Zure aitita errukarri dago baina inoizkorik gehien maite dut, oraintxe behar du eta nire laguntza. Zahartzaroa aurgora handia da gaurko munduan, lehengoan ere bai baina konparatzen joanez gero, lehen gure baserrian enberazu gutxiagokoa izaten zen. Lehen ere, bildurra egoten zen zaharren aldetik zein batenbatek bere burua asiloan ikusi. Hori dela eta mundu guztiak dakitsu harako ha lehentxoago esan dizudan seme bihotz gogordunaren istorioa. Nik neuk, Jon, ezin dut holarik kontatu. Zure aitak zeuon etxera ekarri gaitu enbarazurik gehien egiten dugunean. Maitasuna eta on egitea zer den e! Honek bai ematen duela bihotzeko poza eta bakea! Eta hau, katean datorkigu. Horra hor esaera hauek ere: “Zer ikusi ha ikasi”; “Umearen zentzuna etxean entzuna”; “Haltzaren ondoan haltza erne”. Lehentxoago edo gerotxoago denok pa-

satu behar dugu zahartzarotik. Mundu honetan ez da inor geratuko hazitarako!

»Kontetan nabilkizun bezala, meza ostean familia bieta-ko gonbidatu guztiok aititaren baserrira joan ginen berbaz-berbaz bazkaiteko gosea eginaz. Bazkaldu bakarrik ez, afaldu eta hurrengo eguna eta gaua ere han pasatu genuen denok zelan edo halan, txandaka lo eginaz. Janaria ez zen beste mundukoa baina ardi-okela gura dena geneukan eta umore ona. Aditu norainokoa. Soinularia, hango Zollo partekoa, atzamarretatik odola dariola zegoen hainbeste trikitixa jotzeaz. Ez zen gutxiagorako, izan ere ia hiru egun eman genituen ezteguak ospatzen, Canahango ezteguetan legez, baina mirakulo barik, jakina.

—Amama, eta biajedenobios nora egin zenuten ba?

—Ba, hara, ezkondu eta hirugarren egunera, Bilbora joan ginen. Oinez zati baten eta gero Arratiako tranbian. Ez ginen joan geu biok bakarrik, Bilboko neba Peru eta bereak ere gu-rekin etorri ziren eta Perurenean egin genituen egun batzuk. Peru nebak, zinera ere eraman gintuen, trolebusean. Beste egun baten Artxandara ere igon genuen funikularrean eta handiena izan zen puentekolgantea ikustea eta bertan ibiltzea. Trenez egin genuen Portugaleterainokoa eta Ibaizabal ibaia gaisetik igaro genuenean, han, puentekolgantetik dindilizka zebilen tramakulu haretan, sinestu ere ezin nuen egin. Barku handi bat ere ondotik pasatu zitzaigun ia-ia ikutu beharrean, baina poza? Hura bai zela poza, munduan besterik ez lakoxea!

—Amama, eztei-bidaiarena aitzakitzat hartuz, neure aitari ere sarritan aipatu diot baina zuok eduki duzuen sexu-

-harreman errepresioaz zer diostazu? Non eta nola ikasten zenituzten horiek kontuok?

—Aitearen eta semearen! Lotsatu egiten naiz komertzio horri ekiten baina pertsona beti dago ikusten eta ikasten eta hainbesteko intzigua baduzu berba egingo dugu horretaz ere, zergatik ez. Hau bai dela izatekoa? Neure semeari inoiz kontatu ez diodana orain ilobari egin behar?

»Hara, Jon, lehen zein orain, burua eduki duenak buruaz jokatu du eta beti esaten dena, bururik ez daukanak hankak erabili behar edo beste zeozer. Aditu, gure denboran ere denerik zegoen. Gaur besteko adelanturik ez zegoen baina sexu-harremanak egin egiten ziren eta makina bat haur jazo egon da gure artean. Erresponsablea zena ezkondu egiten zen. Beste batzuk zera egiten zuten, emakume haurduna bertanbera utzi, apellidua eman gabe. Batek baino gehiagok ezkontza probokatu ere egiten zuen gurasoen ezetzari aurka egiteko eta holako kontuak. Gaur egun, gauzak asko aldatu dira. Alde batetik, zenbat gura eta harexenbeste informazio daukazue etxean, eskolan eta abarretan. Beste alde batetik, antikonzeptiboak edozeinen alkantzura daude, abortoarekin kontua ere hor dago eta etorriko direnak, hor ez dabilta ba ikaragarritzko adelantuak egiten laborategietan?

—Bai, amama, genomaren hamarkadan gaude bete-betean sartuta, nik neuk hori Biologiatik eta Kimikatik dakit.

—Baina, Jon maitea, zu oraindino gaztea zara hamazortzi urte eduki arren eta asko ikusteko zaude Jaungoikoak lagun, baina hauxe eduki ezazu beti kontuan: lehen, gaur zein gero, erresponsabilitatea dela nagusi. Maitasuna da gauza bat eta plazerra beste bat. Maitasuna, bakarrean ere ona da

eta plazerrarekin batera hobea. Plazerra bakarrik ostera, arriskutsua duzu. Batek baino gehiagok esango dizu nik diotsudan hau arkaikoa dela baina kontua ez da arkaikoa edo modernoa izatea, ondo edo txarto egotea baino. Nire laurogei urteko esperientziaz hauxe esango dizut. Aititak eta nik, zure aitak eta amak bezala, elkar maite dugu. Gure belaunaldiaren frutua zure aitamak dira eta zure gurasoena zu zeu eta zure arreba. Bitzuok bizi gara pozik, baina ez sakrifizio barik. Sakrifizio gabeko bizitza opaka dabil mundua baina ez dago, bakoitzaren bizitza proiektu bat da eta familia sortzen duzunean proiektu hori zabaldu egiten da eta eguneroko sakrifizioak eusten dio proiektu horri eta egin ahalako horrek dakartsu bihotzeko poza, eta ordea, edozelango plazer bila dabilenak nekez aurkituko du ekilibrioaren askatasuna, momentu gozoak igaroko ditu baina bihotz barruko poztasunik ez, eta sarritan disgustuak. Beitu zer gertatu zitzaion, ezpabere, ako gure ezagun bati bere semearekin. Entzun!

»Bueno, hauek kontuok ixilean eukiteko hobeak dira baina hain eragon didazu asko eta gainera ikastolako sexu-hezkuntzaren bidez hau ulertzeko beste jakingo duzunez gero, ba kontatu egingo dizkizut holango isileko kontu batzuk. Ai, hau bai dela lotsa!

»Orain dela denboratxua, urlia, Gorbeia ingurumariko bat, izenik ez noatzu esaten, zergatik ze oraindino bera bizi da eta, eta gainera nor den jakitea gutxiena zaizu.

»Esaten ibili natzaizun moduan, neska-mutil bik ezkondu egin behar zuten eta elizara arrimatu zirenean, han omen zegoen andrazko bat ume jazoa besoetan dela. Nor ote den

ez ote den, halangoren baten arrimatu zitzaion ezkondu behar zuen mutilari eta badiotso:

»—Ezkontzera zatoz, baina ez al zara gogoratzen hako soldadu zeundela zelan eta zertan ibili ginen han sasi oste baten?

»—Horrek ume horrek ez dauka nire antzik —erantzun zion hark mutilak gorri-gorri eginda eta izerdi larria dariola.

»Berbalotsa hartaz ohartuta, ezkongai horren aita ere gainetu zitzaien ezbai horretara eta galdetu ea zer pasetan den, eta, ba, semeak badiotso:

»—Aita, ba, soldaduskan lelokeria asko egiten dira eta, bai, ibili, ibili nintzen honekin neskato beronekin, baina nik neuk txotxoka baten egin arrik gehiagok ere igual joko zion narrua, nok jakin?

»—Nok jakin dinostak? —esaten omen zion aitak odolak ur egiteko moduan—. Badakik zelango trebitua ipini didakan, desde luego! Gizonari zentzuna potroetara bajatuz gero ez zegok zereginik. Orain zer egingo diat nik? Hik egin didak egitekoa, kokorio pitxin luze horrek! Han ibiliko hintzan hi potro-boltsak tximortu arte eta ixorrabarri itxiko uan nor den beist neskato hori! Tirauk ba, sikan inork ez dik esango horretarako, zeretarako, balio ez duanik, mekasuen zotz!

»Ha eta guzti ere, kontu hori tratatu omen zuten, seguru, eta aita horrek esan omen zion umedun neskato horri:

»—Hik heuk ere ondo euki duna ba hire uso hori gorde-tako, baina, tira, lotsaria goiti beheiti aurrera egin behar da eta, ea, zenbat da eskatuten duzuna hori untze-jo hori kitututeko?

»Eta ez dakit zenbat izango zen baina, behinik behinean diru ederrak pagatu behar izan omen zituen urliaren aita horrek. Eta gero sarri kontetan zuen lagun artean eta “semearen untze-joak karu urten ziola”.

»Bueno, utzi diezaiogun hauei kontuoi bai!, ze pasetan dudana lotsaria ez da txikerra gero!

»Gura baduzu, kontuokin akabetako, daragoiogun komertazinoko esaera batzuk kontaduko dizkizut. Bata hauxe da: Badakizu andreari mun egiteko zeintzuk diren hiru lekurik onenak? Hauexek: begia, ahoa eta usoa! Barre egiten duzu? Eta esaten dute, usoa, deskuidu baten, dagoen lekuan barik bekokian balego, inor enemoratu ere ez traste hori ikusikeran! Gero, hauei, tabernetako neskatxiei eta ere esaten zaie: “Bide ertzeko haritzak eta tabernako neskatxiak sarri zirria eta aparejua!”. Gero hauek tabernetako kontuak dituzu, edan-edan egin orduan, batak handia botatzen badu besteak handiagoa egiten du, zeinek gehiagoka hasten zaizkizu, eta hauek fanfarroiek esaten dute, eltxoari aidean doala ere egingo lioketela narrutan. Eta gero behin katutuz gero, faltetan ere igual hasten dira, bateko urliaren andrea harekin dabilela, bestearena bestearekin eta holango sustarbakokeriak. Holangoren baten, ez noatzu izena esaten, baina, urliak ederra kontestadu zion berendiari. Batak esan zion ba ze:

«—Hi, hire andrea urli lekutako gizonarekin zebilek! Badakik zertan ez duk?

«—Ba, begiratu iezaioak —erantzun omen zion—, niri neuri behar dudana ematen zidak eta gainetikoarekin berak agintzen dik!

»Bueno, oraingoxean bai, utz diezaiogun komertazino honi. Oraintsurarte hauek gauzok kontatu ere ezin zitezkeen egin, kontetea ere bekatua zen, gaur graziak ez dagoena lehengorik, orain abadeek ere ez diote mirarik egiten honango kontuak konteteari, batzuk barre ere majo egiten dute. Orain, jakina, kontetea da gauza bat eta egitea beste bat, ze gaur ere txarto dagoena txarto dago, gaur ez dakit ba lar ez ote den pasatu jentea bestera, jakina, askori kupoa denbora baino lehenago betetan zaio eta gero ez dago dibortzio, bizi-alarguntza, nahastea eta pestekeria baino besterik.

»Artez dabilena ez da inoiz damutuko, eta ez euki inoiz artez ibilienaren damurik, oker dabilena lehentxuago edo gerotxuago agirian lotuten da eta gero zure fama eta kredituari ipurdian mun egin iezaiozu! Eta kontuz gaur sida edo dena delako gatx harrigarri horrekin. Gaineko nahaste-borrastea sortu den gaurko gazterian! Kontuz, ba, Jon, burua erabili eta garbi bizi! Ai, itxaron iezadazu, komertazino honen gainean kanta batzuk ere badakizkit, orain arte ez dizkizut kantatu baina haiekin gabiltzan ezkeru, aikomenzan:

Udaberria data
Manuela bero
harexek emoten dik
eskatu ezkeru.

»Gero beste bat, kanta barregarria izan ere, eta gainera erderaz. Hor, Durango aldeko andre bendejeraren bat Bilbora joan omen zen buruan otzarea dela gaztaina saltzen eta Bilboko kaleetatik joanean-joanean hauxe kanta hau kantetan omen zuen berekautan:

*Gastañas de mentugorri
no hay como la mía
anoche probó mi marido
y buen gusto tenía.*

»Eta guardia munizipalek detenitu egin omen zuten. Berak ezin zuen entenditu zergaitik, baina halakoren baten guardia edo denadelako euskaldunen batek esan omen zion:

«—Andratxoa, badakina zer esaten habilan?

«—Ba, zer esan diat ba? Atzo gauean nire gizonak gaineko tripakada egin zian honangoxe gaztainekin eta gozo gainera, hauek gaztaina mentugorriak dituk, klase gehiago ere bazegok, esaterako, ataloak, lopetxak, saldaimentuak, baina hauek lako gaztaina gozorik ez zegok!

«Orduan konturatu omen ziren erderaz zioena ez zela guardiek aditu ziotena, eta, jakina, atera egin zuten gartzelatik edo perreratik. Honelako erderakadak gehiago ere entzunda dauzkat. Beste baten ere, Durangoar bat omen zegoen Bilboko plazan txorizo edo lukainka saltzen. Eta ekin egiten zioten ea ba lukainka onak diren, etxeko piperrekin eginda dauden eta ez dakit ba zenbat tekla eta teklondoko. Halangoren baten arteak ere ezin zuen hartu andre hori hainbeste ekiterekin eta badiotso atiko koplaz beteko andraren bati:

«—Oye, ustes, mejor choriso que yo en todo Durango tampoco no hay e!

»Eta holantxik emon omen zion hankajokoa edo anda-fuerazko jantzia hari andra mirakollosari.

—Amama, itxaron ezazu, lotsaz-lotsaz kontatu dizkidazun sexu-kontuokin barre guradana egin dut baina hori gaztaina kontu hori zer den ere ez dakit. Aititak burua sano zeukanean

sarri erakusten zidan han baserriko kamaran gordeta dagoen egur-astoa, gaztaina-egurrezko zurmitzak lantzeko. Zelakoa zen ba gaztaina garaia?

—Lehenago gaztainea baso guztietan eukiten genuen, behar ere urte guztian zehar jateko behar izaten genuen eta. Jateko ezeze, gaztaina-zura etxegintzatik hasi eta beste mester askotarako erabiltzen genuen. Gaur ere gaztaina-tresna eta altzariak ez dira harantz horrantzakoak, joan bestela erosten, ikusiko duzu. Jan, oster, egiten dira gaur ere. Hemen bizi garen Bilboko etxe-kantoiaren ere, hortxe dago andrazko bat gaztainak erretan gona-magalak zorutik narratzatuela altziak dariola. Aditu, Jon, nik zure edadea nuenean, hor zemendi inguruan hasten ginen gaztainondoak erazten fartika luze batzuekin eta gero kirikiñoak pilatu egiten genituen eskutia edo ugelaxoaz zein kirikiño-harrak esku edo beste zeozer mankatu. Fartikarekin kontuz ibili behar izaten genuen, ezpabere, begiratu nire aita Manuri zer sugertatu zitzaion. Beharbada ez duzu jakin ere jakingo, baina gaztaina erazten zebilela, fartikatik behera jausi zitzaion holango kirikiño bat, begi-begian jo eta begi bata galdu egin zitzaion eta apur bategatik bestea ere bai zoltzaia begi batetik bestera ere pasatu zitzaiolako, eskerrak San Juan goizean batutako bedar-enplastuei, bestela! Behin kirikiñoak batuz gero, batzuk etxera ere ekartzen genituen lehenengotan jateko baina gaintetikoak basoan bertan uzten ziren. Horretarako, kirikiñusiak egiteko usadioa zegoen. Batzuk egurrezkoak eta beste batzuk harrizkoak. Kirikiñusiak bete-bete egiten genituen, gaintetik ida eta egur abarrez josita ipintzen zen gain guztia eta gero harri edo egur mokor handiak bota zein gana-

duek gaztaiñok jan, haizetu eta tragatu, urdailak errementaturik. Gaztaiñak, klase askotakoak geneuzkan, lehentxoago esan dizudan bezala, han durangoarraren pasadizuan, saldamentuak, ataloak, lopetxak, mentugorriak, batzuk esatearren.

»Gure gazte denboran, zer janik asko ere ez zen egoten eta horregatik gaztaiña asko jaten genuen, batez ere gauetan, bateko egosita besteko erreta, jakina, zerekin harekin bete behar gure ume eta ameen urdailak. Kirikiñusietan kirikiñoak usteldu egiten ziren eta gero beleki batekin errez apartatuten ziren, eta jan ahala etxera ekarri edo asko egonez gero saldu. Gero ba denborak joan ahala, gaztaiñari gaixoa etorri zitzaion eta egurra aprobeztetako de reo botatzen hasi ziren ipurdi-ipurditik ebagita eta apurka-apurka bere ordeztu pinua sartu. Pinuak asko eman digu. Alde batetik azpigarria eta bestetik egur-dirua seme-alabei laguntako. Bai, badakit, Jon, ekologisten mundua gogora etorriko zaizula, baina gaur egun, badago bai, zer zuzendu munduan. Mundukorik inportanteenok geu gara, pertsonok, eta begiratu asko eta asko nola dabilen norbere eta inoren gorputz sanoak alperrik galtzen. Nik ez neuzkan zure adinean zuk gaur dituzunalako arriskuak, zuhur ibili zaitez, eta bizitzan zer egin behar den argi ez baduzu ere, gutxienez argi euki zer egin behar ez den.

»Kamarako egur-astoa diostazu? Ba, beresietan ere eukiten genituen gaztaina gazte edo berez erneak, gaur ere badaude, ikusten joatea neke. Horiek, zurmitzak egiteko gordetzen zituzten gure aurrekoek eta guk geuk ere bai. Gaztaina egur gazteok, ebagi, etxera ekarri, uretan beratuten ipini, labean berotu eta gero matxet batekin zurmitzak ateraten ziren. Gero, zurmitzok findu eta zesto-otzarak egin,

edo silla-ipurdiak bota, zursubilaren laguntzaz. Zure birraitita Paulo eta Manu makina bat bider ikusi ditut beharleku horretan, etxerako batez ere. Herrian bageneukan zesteru bat, Gregorio, gaineko gizona, arteza eta behargin ona. Silla-ipurdiak, urritz-zurmitzez ere botatzen genituen baina gaztaina-zurmitza zailagoa zitzaizun eta zahartzaro hobeaz zeukatzun.

»Bueno, utz diezaiogun komertazino honi eta goazen beste batera, oraindikarren badaukagu zeri ekin eta. Lehenera joanik, gure eztegu-bidaia horixe izan zen. Astebete egin genuen neba Perurenean eta gero ostera ere baserrira, zemendi-beharrei ekiteko zintzo-zintzo. Egia esateko kostatu egin zitzaidan bizibide berrian mendia hartzea. Artean, amaren faltara, etxekoandre beharrak egiten ohituta nengoen neure etxean eta gainetik nebarreba guztiak ez zidaten lagundu baino egiten. Baina ezkonberritan, bikuntzan bizi behar izan genuen zure aitita etxaguna edo propietario izateko aukeratu zuenean bere aitak, baldintza hori jarri ziolako.

—Amama, —esan nion—, zer da hori bikuntza kontu hori? Ez dut traustik ere ulertzen.

—Nasai, Jon bihotzekoa, labur-labur argituko dizut bikuntzako bizimodua zer zen eta zer gorabehera zekarren.

»Aditu. Gure baserrian etxekada handia bizi ginen, zure aititaren gurasoak, euren ezkondu arterainoko seme-alabak eta gu geu ezkonbarri. Denok bizi ginen batera eta jakina, egunak joan egunak etorri, ni ez nintzenez bestean zaku bateko garia, ba, batzuetan irentsi egin behar gura ez duzuna ere. Aitita gizagaixoak, ahalegin guztiak egiten zituen ni pozik eukiten baina, hartutako konpromisoa zela eta, bere aitari

kontrarik egin ez egiteagatik, sarritan isildu egiten zen eta nik neuk ere konprenditu egiten nuen gizonaren jokabidea. Gaur ez da berdin, baina garai haretan horixe ikusten zen inguruetan ere eta, zer egingo zenuen ba? Konformatu egin behar! Etxeko gastuak ere erdibana egiten genituen. Esan iezaiozu ea zure aitari. Zure aita txikia zela, eskolatik etortzen zenean, etxeko gastuen zatiketak egiten jartzen genuen eta zenbat aldiz esan ote zigun zure aitak, batera bizi eta ea zertarako genbiltzan zatiketaginean. Horrexegatik, zure aitak ez du entzun ere egin nahi bikuntzarik gaurko munduan. Jokabide horren frutua oraintxe hartu dugu. Zure aitak zeuon etxera ekarri gaitu baina zuk, Jon, ez duzu egin behar, aldi baten zure aitak lako zatiketarik. Hemen dena da bat.

—Horixe baino ez genuke behar amama —erantzun nion serio-serio—. Gure aita beti dabilkigu esaten zuok gurasook zenbat lagundu diozuen eskolak ikasi eta gizon handia egin arteraino.

—Bai, egia da. Xabier, zure aita, gu ezkondu eta urte bira jaio zitzaigun. Bilbon jaio zen jaio ere. Orduko denporetan, modua zeukan asko eta asko Bilbora joaten ziren libratzen edo umea egiten. Klinikara joatea aberatsen kontua zen. Ni handi-handi nengoen eta umea egiteko nobedadea sentitu nuenean, gizonak, hartu bizikleta eta alkilerreko automobila eske joan zen. Etorri zen atibo auto hori baina baserrira heltzeko dagoela, zer? eta ez da aberiatzen ba? Ene, orduan! Zure aitita Martin estutu egin zen eta birritan pentsatu ere egin barik, joan herriko autobusak zituena gana eta libre zeukan autobusa alkilatu zuen. Bai, horixe, egia santua da gero hori e! Heldu ginen Bilbora eta bakez izan genuen Xabier,

seme zaharrena, zure aita. Hainbat diru kostatu zitzaigun eta kontuak atera ordaintze orduan zer gertatu zen.

»Autobusetako jaubea beldur zen zenbat zen esaten zure aitita Martini baina honek berak esan zion ba ze:

»—Hi, zenbat dok hirea?

»—Egingo dizkiagu kontuak beste egun baten.

»—Beste egun baten ez, oraintxe, zorrik ez diat nahi eta.

»—Ba, ba, badakik ba, tira, ekar itzak mila erreal!

»—Eutsoz mila errealok eta eskerrik asko gainera dena ondo atera delako.

»Dirua zen izan ere orduan mila erreal baina nire gizonak tapa-tapa eman zizkion eskura diruok eta kitutu zorra. Denok geunden pozik zure aitak hatz-begiak ondo ekartzeaz gain politen politegaz atentzioa deitzen zuelako. Bateatu ere Bilbon egin genuen. Ez dakit jakingo duzun baina lehenago, umeak jaio eta lasterrera bateatzen ziren.

—Zertarako ba amama? Ni, nire aitak esanda dakidanez, seigarren hilabetean bateatu ninduten eta gaur egun batzuk bateatu gabe ere badaude.

—Aitearen eta semearen, nola aldatu diren denborak! Gure garaian, doktrinatik genekien beste munduko bizitzako toki berezi bakoitza, hots, inperua, purgatorio edo garbitokia eta zerua. Laugarren bat ere bazegoen, linboa, eta hori toki hori zen bateatu barik hiltzen ziren arimen lekua. Horregatik, ume jaioberriak lehenbailehen bateatzen ziren, izan ere gure denboran ume asko hiltzen zen jaiorik hara edo handik lasterrera. Gaur egun badakigu jakin ere zergatik hiltzen zen hainbeste ume baina lehen inon diren aitzakiak edo zergatiak asmatzen zituzten, bateko begizkoa besteko parte txar-

rrekoak, haragoko eztakit zer..., ignorantzia galanta, baina bakoitzak bizi duen garaia bizi du eta kitu.

—Baina amama, zer duzu ba begizkoa? —galdetu nion arduraz beterik.

—Begizkoa? Hara, Jon, hori ez zaizu besterik, mantzinen baten bekaizkeriaren ondoriozko ezbehar bat baino, horrela neukan entzunda nik beti. Andrazkoa zein gizonezkoarena izan zitekeen. Horregatik, inori kalterik egin gabe ere, egoten dira inbidiadunak eta zertan esanik ere ez ernalditik bateo-rartean norberak aurkituz gero ezbaiak. Neurriak denboraz hartu behar izaten ziren, ezpabere gero berandu izaten zen herri-aztiak erremedio bila ibili arren. Hau ardura hau no-rainokoa zen jakin dezazun, kontatu egingo dizut urlu leku-tako ume bati zer gertatu zitzaion:

»Behin baten ume bat jaio zen Arratia partean, eta negar eta negar baino ez zuen egiten. Han zebiltzan kurandera eta barberuak negarrok argitu guran baina alperrik. Azkenean herri-aztiagana jo zuten ea begizkorik eukan jakiteko. Etorri egin zitzaien Ergoieneko herri-azti famatua. Umea zegoen kumara hurreratu zen eta sentzain zegoenari handik kentzeko agindu zion. Ondo-ondo aditu zion seinari eta esan zuen:

»—Honek ume honek begizkoa dauka!

»Serio-serio esan ere egin zituen berbok eta denak utzi ikaraturik. Herri-aztia itxura bereziko andrazkoa zitzaizun. Soinekoak beltzak, moñoa puntaz beterik, betuleak harro-harro, aurpegia zimurraren zimurrez zorribideak eginda, eskuak lurbela bezalakoak eta atzazalak luzeak azpitik kortikea eginda.

»Fetura horretako andrazko horrek hartu umea sehaskatik eta hortz artetik inork ulertu ez egiteko berba batzuk esan eta gero, zoruan utzi zuen eta etxeko nagusiari agindu:

»—Ipin ezazu surten sarten bat eta ekarri barreñu edo kaiku bat haitz-urez beteta!

»Esana egin zioten, agudo egin ere gainera. Gero herri-aztiak, gona magalpetatik berun apur bat atera eta surteko sartenera bota zuen. Behin sarteneraz gero, ha beruna urtu egin zen. Urtu zenean, herri-aztiak hartu sarteneko hori eta kaikuko uretara bota zuen lurrun-laino handi bat ateraz. Keak joan zirenean oboan-oboan zerabilen kaikua eta beruna berriez solidotu zenean, ura bota eta hango figurak interpretatzen hasi zen. Batetik begiratu, bestetik ukitu, urruma batzuk egin eta gero badio:

»—Begizko hau andrazko batena duzue, eta hau begizkoa uxatzeko zera egin behar duzue lehenbailehen: ume honen sehaskako lastamarraga eta oilalumaz egindako armuda erre baina kontuz!, ez edozein ordutan ez eta lekutan, beste herri bateko elizako eguerdiko hamabiak entzuten diren bitartean eta etxetik hurbilen dagoen bidekurtzean baino.

»Esan eta egin. Hurrengo egunean, San Martin elizako hamabietako kanpai-hotsa entzun zutenean, orduxean erre zituzten arto-kapaxaz egindako lastamarraga eta oilalumazko bururako armuda. Eginak eginda ere, ha umea hil egin zitzaien. Beste gaixoren bat izango zuen seguraski baina begizkoak jota hil zela esaten zuen mundu guztiak. Hau kontu hau, Jon, era askotara entzungo duzu batean bestean.

»Zure aita bateatu eta hiru lau egunera, herrira etorri ginen eta bide batez honantzean errekadu pilo bat egin

genituen jaiotza ospatzeko ezgauza batzuk erosiaz. Orain entzungo duzunarekin barre egingo duzu baina egia da gero hori e! Bilbotik herrira heldu ginenean, jakina, autobusa herriko plazan geratzen zen eta handik oinez joan behar baserriraino. Baina tira, zure birraititak taxista beharrak egin zizkidan. Autobusa bere azken geltokira iritsi zenerako han zegoen Paulo astoagaz guri itxaroten. Ni oraindino ez nengoen guztiz indartuta eta ezetzik ere ez nion esan. Gizonak lagundu zidan astora igoten eta horrela joan ginen baserriraino zure aita jaioberria eta biok, aldi baten Andramaria Jesusegaz moduan, baina, jakina, Herodesen mehatxu barik. Ermakariak ere egin genituen handik lasterrera. Gure Xabier, Bilbon jaio zen baina normalena etxean jaiotea izaten zen, herriko partera baten laguntzaz.

»Zer diren ermakariak edo enbrakariak? Ba, hara, ume bat jaioten zen orduan, usadioa zen ume hori hurrengo egunean bateatutea zein hil eta linbora joan betirako. Eta bateoa hurrengo egunean izanez gero, amak ezin joan izaten zuenez, aita, aitabitxi-amabitxi eta beste senitartekoekin egiten zen bateoaren elizkizun hori.

»Bateo egunean, elizportalean, partereak amabitxiri emoten zion umea besoetan hartzeko, hak aitabitxiri eta abadeak portikuan kanpoan hasten zituen bere errezuak, elizan ezin zelako sartu umea harik eta errezuok egin eta ura botatzeko sartu arte, han korupeko ponte edo potondegian, eta gero erotaten zuten eliza barruan aurrera. Gero irtekeran aitabitxi-amabitxiok euren gozoak eta, botatzen zituzten elizportalean denak harrapataka ipiniaz bata besteen buruak jo eginik. Gero ba, hamabosgarren egunean ermakariak esaten zitzaiona zele-

bretan zuten amak eta bere haizta eta kuñetek. Hauek eurek ekartzen zuten jaki-edaki zerbaist, oiloa besapean, otzaran fota, azukerea, kafea, txokolatea... Eta bazkari ostean ur gozotua edaten zuten paitar orde. Gero berrogeigarren egunean elizurterea ospatuten zen eta orduan ere ahal zuenak zelebretan zuen.

»Orain esango dudanak ez dauka ermakariekin zerikusirik baina, ume bat bateatu barik hilez gero, ortusantuko kanpo aldean ematen zitzaion lurra. Eta, gehiago oraindiño, umea galdu edo abortoa egonez gero, jaiotako etxeko itoxurapean ematen zieten lurra lehenago, hoiei hilda jaiotakooi, baina Eliza enteratu ahala, usadio hori galduz joan zen.

»Zure gurasoak, Jon, ez dute bide berdina jarraitu. Gaur gauzak aldatu egin dira, zenbat gainera, eta bateatzen direnak ere, ez daukate hainbeste prisaa. Zu zeu ere, lehentxoago esan didazun lez zure aitaren esanetarik, uda aldean bateatuta zaude, nire neba abadearen oporrak aprobetxatuz. Denok geunden pozik. Zure aitaren jaiotzarik ni neu ere propietatean sartu nintzen. Lehentxoago esan dizudanez, ezkondukeran alkarpoderoso egin ginen baina zure aitaren jaiotzak ekarri zidan etxaguntzako jabetza, neu ere propietario egin nintzen baina une horretan zure aita Xabier zen inportantea, propietatea eta dirua, ondo etorri arren, gauzak dira, baina ha umetxo bedeinkatua oparirik handiena genuen, eguneroko bizi-poza.

»Lehenengo semea genuenez, nahiera guztiak egiten genizkion aitite-amamengandik hasi eta izeko-osabarik gazteetararte. Zure aitak urtera orduko ikasi zuen oinez eta berbara ere askoz gehiago barik etorri zen. Berezkoa izango

zuen baina, guk ere, ona zela eta, berbara arin etortzeko eskekoaren ogia eman genion jateko, eta ez dakit horregatik edo zer, baina tertzioz hasi zitzaigun berbaz. Kontuak atera norainokoa izango zen, bigarren semea, zure osaba Koldo, euki genuenean, ni neu Bilboko klinikan nengoen libratu berri eta aitita Martin etxean, laster urte bi egiteko zegoen Xabierren sehaskari eragiten lo arrazoteko. Eta horretan badi-notso aitari:

»—Aita, ez eragin gehiago, bakarrik egingo dut lo eta!

—Barre egiten duzu, Jon? —esan zidan amamak, bera ere adurra dariola—. Ba, bai horrelakoxea zen zure aita. Gaur ere baditu holako testuak eta esakerak, zeozergatik daukagu gizon handia eginda.

»Gero ba, bigarren semea ezeze, beste alaba bi ere euki genituen, bataz beste urte birik urte bira. Badakizu, lehen ez geneukan gaurko antikonzeptiborik eta umeak zetozen erara hartu behar. Baina laugarrenarekin ez nuen ondo pasatu eta hantxe erabaki genuen gehiago ez ekartzea. Zure aititik ere onartu egin zuen, bizitzan ezer izan bada, erresponsablea izan delako. Orain koitadua ez da gauza bere burua jagoteko ere, baina bere zintzotasuna zuok ere badaroazue odolean.

—Amama —esan nion—, gure aitak eta zer egiten zuten ba umetan baserrian? Aitak inon diren kontuak kontatzen dizkigu batzuetan. Hainbeste aldatu dira gauzak ordurik hona? Egia zaizu hori?

—Izango ez zaizu ba egia? Bai horixe. Eta beharbada ez dizu den-dena kontatu izango.

—Ba, zuk zeuk kontatu amama, halan biona jakingo dut!

—Hara, Jon. Zure aita eta, eskoledaderarte etxean eukiten genituen. Gure baserritik eskolak ere kilometro pare batera zeuden, eliza nagusia ere bai.

»Zure aita, txikitan, bizkorra ere bizkorra zen eta beti zegoen zeozer asmatzen bere aititak erremintak utziz gero. Txori-topetan ere oso trebea zen eta beste era bateko jolasetan ere ideosoa.

»Baten, han auzoko etxean, ura ekarri zuten etxera. Lehen, badakizu, lepoz eta buruan ekarri behar izaten genuen erre-kako ura garbikuzia egiteko, zein da, gaur herri pobreetako erreportaietan ikusten dugun legez telebistan. Itoxuretako ura ere aprobe txatu egiten zen. Eta, ba auzoan ur hori ekartzeko, zanja bat zabaldu zuten eta uraren tuberia etxeko hormapetik pasatu zuten. Lurra askatuta zegoen eta gizonak beharren zeuden bitartean, gure Xabierrek auzuneko neskato-mutilekin txapetara jolastea pentsatu zuen. Harri mehe eta zapalak behar zituzten horretarako eta Xabierrek, joan zanja askatuta zegoen horma ingurura eta atoan aurkitu zituen zelango halango harriok. Baina, beste lagunengana zihoala, etxerako zuloa egiteko askatu zituzten harrien artean distiradun zeozer ikusi zuen. Atzera pausu bat egin zuen eta ene! txanpon hori-hori bat. Hartu egin zuen eta zanjaginen zebiltzan gizonengana joan eta:

»—Aditu ezazue zer aurkitu dudan!

»—Ekark hona! —erantzun zion baserriko Txomin etxagunak—. Non aurkitu duzun baino ez duk txanpon hau!

»—Ba, hortxe, zuloa egiteko askatu duzuen etxeko horma-harri artean, zer ba?

»—Zer ba diostak? Ia urregorritzkoa den gero!

»Eta efetibamente. Txominek hartu zuen txanpon hori ha, garbitu praka-barrenetan igurtziz eta haginkada bat eman zion. Aditu zuen berriro eta:

«—Hi, Xabier, heuk topatu duk eta heurea duk, etxearen kanpoaldean aurkitu dualako, eta txapetan olgetan barik joan hadi heure etxera eta gorde ondo-ondo txanpon hau. Ehun errealeko gorria duk, urregorritzko txanpona, haginarekin egin-dako erraia sakonean duk ezagun. Joan hadi, egun askotako soldata irabazi duk.

»Eta egia da, Jon, zure aitak ekarri zuen poza! Nik neuk gorde nuen baina ezkondu zenean berari eman nion, esaiozu, esan erakusteko. Jakina, lehenago diruak, eta batez ere urregorritzkoak, ehun errealekoak, hamaseiko gorriak eta, horma zuloetan gordetzen ziren eta baita etxearen oinarrietako harri-pean ere horrelako txanpon bat testigu bezala edo. Baliteke Xabierrena horrelakoren bat izatea, toki bera arakatu arren ez zutelako beste txanponik aurkitu.

»Urteak joan urteak etorri eskolara joateko adina eta eguna etorri zitzaizkionean, orduan izan ziren kontuak. Berbaz ondo zekien baina erderarik traustik ere ez. Bueno, berba soltu batzuk egiten zituen eta utzi ez genion egiten baina jakin bazekien erderazko txorigorriren bat edo beste, nagusiei entzunda, jakina. Hau dela eta, baten, ostontara ibili ziren zure aita eta. Halako baten, bilatzen zebilenak ikusi gabe esan zuen Xabierren izena eta gureak:

«—Joder! Hi, horrek ez dik balio, ezin izan nauk ikusi eta!

»Esan bazuen ba ze berba hori, entzuten dio zure birraitita Paulok eta badiotso ida-meta egiten zegoen lekutik:

»—Xabier, hori berba hori ez da esaten, eta ez ezazu berriro ahotik askatu, errekoño!, hauek ume hauek ikasi ere gero behar ez dena!

»Ba, Jon, nik neuk ere ez dakit noraino sartu zitzaion Xabierri bere aititaren agindua, baina, harrezkero ez diot sekula entzun holakorik.

»Azkenean etorri zen eskolarako eguna. Normalean, ume berri bat eskolara hasten zenean, auzuneko neska-mutil kas-konduagoekin joaten zen eta kito. Baina gure Xabierrek ez zuen lagunekin bakarrik joan gura eta aitak lagundu zion lehenengo egunean. Hau kontu hau beharbada ez zizun kontatuko aitak, ez ezta? Ba, bueno, joan ziren eskolara. Oinez, jakina, kilometroetako bidean eta aitita Martinek kontatu zidan bezala, bidean aurrera barik atzera gehiago begiratzen omen zuen zure aitak.

»Dotore-dotore jantzita bialdu nuen, fraka-laburrean eta abarka-median, neuk egineko ardilanazko mediekin, ilea ere ertza ondo aterata eta, hori bai, modu handirik euki ez arren, garbi-garbi eta itxura onean.

»Eskolara heldu zirenean etorri ziren kontuak. Zure aitari eskolako atea jo zituenean eta hark maisu handi eta bibotedunak irten erdara-hotsean, hantxe sortu ziren zure aitaren larritasunak. Jakina, ha egoera ha ez zen txantxetako. Nire gizona txapela kenduta maisuaren aurrean eta erdaraz berbaz, Xabierrek ez zuen ezer ulertzen eta nik neuk ez dakit ba zer pasatuko ote zuen burutik, baina une haretan Xabier kakadario baten lez zegoenez, bere aitari oratu praktetik eta ez zegoen maisurik ha eskolan sartzekorik.

»Gure Martin gizagaxoak, gaineko lotsaria pasatu behar izan zuen baina maisuagan baino semeagan gehiago pentsatuz ulertu egin zuen egoera, eta maisuari barkamena eskatuz etxera bueltatu ziren biak. Hurrengo egunean, auzuneko lagunekin batera joan zen Xabier eta horrela sartu zen eskolan. Orduko eskola ez zen gaurkoalako, mutilak mutiletara zeuden eta neskak nesketara sei urtetik hamalaurartekoak. Zure aitak, eta bere antzean beste batzuk ere, txarto ere txarto pasatu zituzten eskolako lehenengo egunak. Zelan ez ba? Maisua erdara hutsean zebilen eta gure Xabier eta, euskara hutsean, erdara zer denik ere ez. Maisuak ematen zituen azalpenak ez zituzten ulertzen baina, beldurratik, baietz esan behar, bestela?

»Makina bat palukazo eta koskoteko hartu behar izan zituen zure aitak, eta gure denboran askoz gehiago, erdara ia ikasi ere ez genuen egin eta eskolako aldi guztian. Egia esan, gure denboran, gutxik amaitzen zuen eskolako aldia. Hagatik edo horregatik, urten egiten genuen eskolatik, kridu-krida edo beste menester batzuetara. Xabierren denboran, arazoak arazo, eutsi egiten genion eskolako denborari, denok gura genuelako gure umeak gu baino gehiago izatea.

—Amama —esan nion adi-adi nengokiola—, ahoa zabalik naukazu hau guzti hau entzuten, ezin dut sinestu ere egin nire aitak bizitakoa, baina zelan izan zitekeen ba hori horrela?

—Hara Jon, iloba maitea, zuok zeruan bizi zarete zure aitarekin konparatuz gero, zure aitak zuri daukanetik onena ematen dizu geuk berari eman genion bezala, baina garaiak ez dira berdinak. Gaur, zorionez, pasauak pasatuta ere, zure aita gizon handia eginda dago eta zuk, gurasoei eskerrak hartu

dituzun oinarriekin, gizon handiagoa izan behar duzu, ez ezazu aukerarik galdu. Guk, genekiena irakasten genuen. Eskolak eskolan, dotrinea elizan, eta etxean zer? Ba, pertsona izaten irakatsi zuhurtasun-zintzotasunean. Begiratu, esate baterako, gure Xabierrek zortzi urte egiteko zeuzkan, orduxean lehenengo Jaunartzerako gertatzen, eta eskola egun baten, iluntzean etxera artez barik eskolondoko tabernariari laguntzen geratu zen hiru-lau gailetagatik. Badakizu, umeak edozergaz engainatzen dira egin ere eta.

»Gure Martin eta biok, gauza justoa, arduraz beterik geunden eta aitita Martinek etxe ondoko ermitako abemarietako kanpaiak jo zituenen, kaminoa behera joan zen Xabier bila. Kilometro bat ez zuen egingo, hantxe zetorren Xabier, kamino bazterrik kamino bazter eta aita ikusi zuenean negarez hazi zitzaion eta Martinek:

«—Non egon zara Xabier? Esaidazu egia, ezer ez dizut egingo eta!

«—Hara aita —erantzun zion negarrari eutsi ezinik—, urliak esan digu eskolatik urtekeran taberna inguruak garbitzen laguntzeko eta berari jaramon egitearririk berandu egin zaigu. Aditu, hemen dauzkat eskubarruan oraindik gailetak, estukuraren estukuraz jan ere ezin izan ditut egin irentsikeran gosunea egiten izan zait eta.

—Ondo dago —erantzun zion aitak—, berriro ez ezazu horrelakorik egin eta etorri egunargiz zeure bidean. Gehiago oraindik, gurasoei ez esan sekula gezurrik, zigorra hartzen baduzu ere ez, etxekook maite zaitugu eta zuzentzen dugunean ere maitasunagatik egiten dugu. Ez ahaztu, etxean egia,

ez zara damutuko eta. Gezurra biderdikoa da eta egiak, ordea, gezurrari jarrita itxaroten dio.

—Amama —esan nion—, jakina, nire aitari bere aitak eta niri neureak esan dit baten baino gehiagotan gauzak non eta zelan kontatu behar diren. Egia esan, kanpoan, sarritan gezurra eta abarra baino ez dago eta ezin zara edozeinekin fidatu eta gaurko munduan gutxiago. Ni neu ere jadanik konturatu egin naiz hortaz eta eskerrak berriz!

—Hala da, Jon, bizitzarako oinarri onak hartzealakorik ez dago. Baina, tira, gaurko gure bion komertzioa serioegia izan ez dadin, zure aita eta biok sarritan egoten garenez gure ume-tako kontuak gogoratzen, jazoera negargarri-barregarri batzuk kontatuko dizkizut, zeure aitari entzunak dituzula zein ez dituzula.

»Hau niri neuri pasatu zitzaidan. Eskolara sartu eta lehengo egunean, maistreak lista pasatu zuen. Ai ene, nire larrialdia! Nagusienetik hasi zen izenak esaten eta erantzun egin behar zitzaiola konturatu nintzen. Ni beti izan natzaizu jeniokoa eta negarrez hasi beharrean, belarria zuhur ipini eta besteen erantzuna ikasi egin nuen, bueno ikasi edo. Nire izena ahotik askatu zuenean hak maistreak, nik neuk, birritan pentsatu barik: “Esauste”, erantzun nion eta ez zidanean ezer esan, esan nuen nerekautan: Ene!, ikasi egin dut erantzuten. Ha bai zela poza! Horrela ibili nintzen luzaroan. Baina urte batzuk pasatu zirenean eta idazten ere ikasi, konturatu egin nintzen astakeriaz eta eskolako azken urteetan “esauste” barik, “servidora de usted” erantzun behar niola jakin nuen.

»Zure aitaren eskola-garaia ere anekdotaz beterik dago. Erdera ikasi arte gorriak pasatzen ziren baina umore ona sekula ere ez zen galtzen. Ez dizu kontatu aitak behinolako eskolako futbol-partiduarena?

—Ez amama, baina zeuk kontatu, gero neuk kontatzeko neure aitari beharretik datorrenean.

—Ba, aditu. Xabierren maisua, oinez etortzen zen kilometro bi luzean egunero eta batzuetan, eguraldi txarretan batez ere, eskola ondoko tabernan berotzen zioten lapikokoa. Eskolako giltza bat ere hantxe uzten zuen badaezpada eta ustekabeko errekaduren bat ere bazegoen hantxe tabernan notatzen zen. Egun baten, taberna horretako eskoledadeko semeak mostradore bezterreko papel pilatuen artean, nota bat aurkitu zuen. Ardo kortikea goiti behiti, irakurri eta etxean ezer esan barik, hartu eskolako giltza eta orpoetan har barik joan zen ordua baino hainbat lehenago.

»Behin eskolaraz gero, nagusitxuenak elkartu, atera poltsikotik ha papeltxua eta hasi zitzairen esaten lagunei:

«—Hi, gaur ez zetorrek maisurik.

«—Zelan dakik ba hik hori? —esaten zioten besteek.

«—Jakingo ez diat ba? Aditu ezazue nota hau, maisuaren beraren letra duk gero! Eta hemen zera jartzen dik, gaur meza ostean abadea etorriko zaigula ordezko.

»Tira, konbentzitu ziren denak. Zabaldu eskolako atearak, mahai guztiak alboratu, ume txikitxuenak kantoi batera eramanez biderketa taulak kantatzen, zure aita ere txikitxuon artean zegoena eskerrak, eta beste guztiak hanka-pelotan ez ziren hasi ba!

»Elizan bederatziak jo zutenean, eskolakook jo ta ke zebiltzan futbolean abadea oraindino ez zitzaiera etorriko pentsatuz. Halako baten eskolako atea. Nor? eta maisua! Ene mutilak. Maisuari biboteko lumak ere arteztu egin zitzaizkion ha eskenatokia ikustean. Eskola guztia harrিতta geratu zen, zure aita eta, negarrez eskola kantoian eta jakina, denak zeuden hari tabernako mutikoari begira euren adikuna salatazalea bitarteko. Maisuak orduan, hartu jokariok banan-banan saputzetik, bere mahaian makurtu arazi eta esku batean egur-erregela zuela ipurdia bero-bero-bero egin zieten bidebatez beste eskuaz buruko ileetako bazpiak erantatzen zizkien bitartean. Sekula ez omen zen ezagutu halako hodei-astapala eta palizarik eskolan. Ez da txokatzekoa zure aitak kontatu ere ez egitea hori kontu hori, berak eukiko zuen bildursartuarekin, maisuak eurak ere joko zituen. Karu ere karu urten zion tabernakoari hark papel zaharrak. Zintzo-zintzo, bere aitari erakutsi izan balio nota ahaztu hori ez zitzaion buruberorik sortuko.

»Hau beste hau osterata polita da eta gustatuko zaizu. Zure aitak sarri kontatu dit unibersitatean ere erabiltzen duelako jazoera hau.

»Gure Xabierrekin batera antzean, hona gure herrira etorritako andaluziar familia bateko mutiko bat ere sartu zen eskolan. Pepe mutikotxoak ere ez zituen gogatsu bizi izan bere lehenengo egunetako eskolak. Hemengo umeak denak zebiltzan euskaraz eta Pepek ezin zuen mendia hartu. Maisuarekin bakarrik ulertzen zen, eta ez zen gutxi gure Xabierrenarekin konparatuz. Baina umeak Madrilen ere umeak direnez, handik lapraskada bat bestetik beste bat, Pepek

ulertu egiten zuen euskara, lagun arteko euskara, zein? eta hitanoa. Holakorik! Orain Pepe eta zure aita elkartzen direnean, zenbat bider esaten dio batak besteari:

«—Hi, Xabier, akordatzen haiz han eskolan? Nik neuk hitanoa lehenago ikasi nian zuka eta berorika baino, zelan diren gauzak e?

«—Bai, Pepe, eta guk hirekin erderaz, eskerrak hiri hainbat gauza ulertu nizkian. Hau duk izatekoa, nongo puntatik etorritako batek interprete lanak egin! Txikerra zer da hau mundu hau!

«Eskolako anekdotekin bukatzeko, bestela hemen joko digu gaulendi eta gau osoak, beste jazoera barregarri bat kon-tatu behar dizut.

«Sinestea ere kostatu egingo zaizu, zure aitaren garaikoak izan arren, baina ezagutu bazenitu haiek lekutako puntako neba-arreba bihurri biak, ez zinatekeen harrituko. Eskolumeak ziren baina basapiztiak hurrago eskolara hasi zirenean. Gero tira, maisuak tolestu zituen dezente eta ezkontzak ere onak egin zituzten.

«Ba, neba-arrebok, egun baten, eskola osteko olgetaldia egin beharrean etxera joan ziren tipi-tapa. Bidean eztabaidan zihoazen, eta ezbai horretan badiotso nebak:

«—Hi, gaur maisuak irriatiaren funtzionamendua azaldu zigun eta han barrutik berbetan daudenak benetakoak direla esan, horraio!

«—Hago isilik —erantzun zion arreba gazteak—, nola arraio kabituko dituk ba han barruan pertsonak.

»—Baietz ba! Maisuak esan din ahots hori uhin bidez datorkigula urrunetik eta “onda korta” horrekin Parisekoa ere entzun genezakeela.

»—Hi zoratu egin haiz ez duk! Ikusiko duk, gaur etxera heldu eta irratia martxan botatzen dugunean, barruan zer dagoen ikusiko diagu.

»—Hi, neskato, kontuz ibili beharko dinagu elektrizitate kableekin gero! Maisuak ez zigun beste kontsejurik eman kableekin kontuz ibiltekoa baino.

»—Eskua ahal ez dela ere, estaka ederrak zeuzkeagu horretarako eta ez hadi estutu mutil.

»Etxera iritsi eta gurasoak solo-beharretan zeudenez, isiotu irratia, hartu estaka bat eta apurtu ez zuten egin ba irрати preziatua! Gero izan ziren izatekoak. Gurasoak etxera etorri eta ha fetxoria ikusi zutenean, irratia apurtutako estaka beraz hartu zituzten narrukoak. Hurrengo egunean, eskolan, inozente eta artaburu gedarrez erabili zituzten aurretik neba-arrebok.

»Barre egiten duzu Jon? Makina bat holako bizi izan dugu gure denboran eta txarragoak ere bai. Gogoan daukat oraindino, nire adineko batzuk eskolarik ere ez zuten zapaldu. Ume zuhurrak baina modurik ez eta, etxean jaio, hazi eta bizi behar. Irteera bakarra soldaduska. Ha tristea zen gero e! Analfabetoak izango ziren baina leloak ez. Begira behin zer egin zion horrelako batek herriko albaitariari.

»Zuentzat gaur normala da baina lehenago ez zen txakurrik eta, bakunatzen, nahikoa zen Gabon gaueko ogi-kuzkurrarena. Baina txakurrok txertatzeko agindua iragarri zuenean abadeak elizan, gure denboran elizan hartzen ge-

nituen horrelako abisuak, gora-behera handiak sortu ziren batean-bestean. Bakunatzea ez zen problema, dirua baino. Diru gutxi etxeetan eta akordatzako gastu berri bat. Horretara, behin baten, joan zen bat al baitariagana txakur eta guzti. Sartu zion indizinoa eta txakur hori kateatik soltatu eta etxera bota zuen. Txertaketaren pagurik ez zuen aipatzen eta luze iritzita badiotso al baitariak:

»—Hi, ez daukak ordaintzeko gogorik ala?

»—Ordaindu? Nori baina?

»—Nori egingo diok ba, niri neuri, nik beterinario titulua zaukat, ez dakik ala?

»—Baina berorrek nori sartu dio indizioa? Txakurrari ezta? Ba kobratu biezaio txakurrari atzerik hara joanda, ea kapaz den harrapatzeko.

»Al baitariak ezin izan zion kobratu baina hurrengo baten behi haizetu bat tratatzeko deitu zionean, doblea kobratu zion eta kito.

—Amama, benetan ere, ikaratuta nago hain denbora laburrean gauzak asko aldatu direla ikustean. Ez da txokatzekoa nire aita eta, herri-ohiturak biltzen ibiltzea, zu enziklopedia bat zara, nik gurata ere ezin dut jakin zuk beste. Aurrera, aurrera amama, ordenagailuak grabatzen daragoio eta. Aitari ere utziko diot entzuteko datorrenean beharretik.

—Eskerrak, Jon, baten batek aintzat hartzen dituen ere gure bizikerak. Aitita Martinek ere makina bat bizikera izan ditu baina orain buruak ez dio uzten bizikera horiek bata bestearen atzean josten, nahaste handia du buruan eta enziklopedia horrek, hobera egiten ez badu, ez dizu balio Jon maitea, akaso hoberazkoa egingo balu?

»Nire kontatu beharraren kontatu beharraz, alborik hara ibili natzaizu baina goazen zure aitarenari ekiten, zure aitaren eskola-garaiari.

»Xabierrek lau urte bakarrik egin zituen eskolan. Izan ere, zure aitaren anaia abadea eta herriko parrokoaren aholkuz, atera egin genuen zure aita eskolatik paguko kolegio batera eramateko. Maisuari ez zitzaion gustatu baina guk aititak eta biok aurrera egin genuen dirua goiti-beheiti. Orduan diruak ziren baina aurrera, begi biak itxita. Ikastetxea urrun zegoen, Donosti partean. Ikastetxe berezia zen, ikasleak mutilak baina irakasleak monjak. Seminario eta komentuetarako gertatzen zituzten ikasleak. Argi dago, beraz, hurrengo urtean nora joango zen zure aita, seminariora, beste asko bezala.

»Xabierren aitzakian, geuk ere Donostia ezagutu genuen. Hondartza ederra, Igeldo, akuarium eta gainetikoak gozatu genituen. Badakit dakizuna, zeure aitak esanda, baina zure aita oporretan etortzen zitzaigunean, handitzat kontatzen zizun ikastetxe erdaldun haretan gipuzkoarrekin euskara egiten zuela eta ulertu gainera. Ja-ja-ja!, barreak ematen dit oraindino lehenengo astean gertatu zitzaiona gogoratzen dudanean.

»Ikastetxeko ohitura bat zen sarri-sarri konfesatzea, baina gure Xabier ez zela egiten konturatu zirenean, beharbada igarrita zergatik, monja euskaldunetariko batek esan zion ba ze:

«—Zer dela eta ez zara konfesatzen beste batzuk bezala?

«—Hara, D. Anastasio kapellauak ez daki euskararik eta ni neu ez naiz sekula konfesatu erderaz!

«—Ez larritu semetxo, izango duzu autorrentzule euskalduna.

»Esan eta egin. Komentuko superiorrak hurrengo egunerako abade euskaldun bat ekarri zuten euskaldun guztiak nasaiago konfesatzeko. Xabierrek Bizkaiko eran egiten zion berba eta abadeak Gipuzkoakoan erantzun eta handixek ere asko ikasi zuen gureak. Urte edo kurtso polita egin zuen zure aitak eta oker ez banago zeuri ere erakutsita daukotsu ha ikastetxea, gaur ere han dago, ikasle barik baina hantxe.

»Konportamentu onekoa zen zure aita. Aditu, igandetan, konportamentu onekoentzat, jakina, dominak banatzen zituzten paparrean ipini eta inguruetatik erakusteko. Monagilloa ere bazenez, ondoko nesken komentuko kapellanari meza erasoten ere joaten zen eta gero kapellanarekin armo-satu, gailetak, kafesnea eta egun bakoitzean menbrillu diferentea. Niri neuri ere ahoan txua egiten zait horraitio!

»Asko ikasi zuen zure aitak han ikastetxe haretan. Gauzak antolatzen, garbia izaten, ohea egiten, zapatak garbitzen eta gainerako gauza asko, gaur ere bizitzarako ondo datozkionak.

»Garbikuzia aipatu dizut baina oraindino ere zure aita aitearenka egoten da harako dutxetara joaten zirenean gertatzen zenarekin. Guk etxean ez geneukan dutxarik eta han bai, bata besteari deusala eta sarreran kortina zuri batekin. Bere esanetatik dakit, baina, dutxatzen joaten zirenean, kaltzontzillo eta guzti egiten ziren, zergatik?, ba sarrerako kortina bota barik utzi behar izaten zutelako monjeak ikusteko ea ondo egiten zuten gorputzeko garbikuzia, eta jakina, ezin biluztu monjea aurrean dela.

—Ez da egia izango hori, amama? Gaur gu biluzik dutxatzen gara ba eta, gimnasia egin eta ostein?

—Bai, badakit, baina zure aitarena mil nobezientos zinkuenta y tantoseko kontua da gero e! Ba, holangoxe kontuak. Baina estudioak aurrera eta mundua ikusi, ez gure moduan beti baserrian sartuta.

»Kurtso hori bukatu zenean, papelak bete genituen seminarioan sartzeko eta uda horretan hamabost bat egunetan interno egon behar izaten zuten test-ak egiteko, preseminario deitzen zioten kursillo horri. Uztailean izaten zen kurtso hori eta parrokoak eramán zituen, kotxez orduko denboran, Xabier eta beste hiru. Xabierrek eta beste hirurak ere aprobatu egin zuten eta etxerantzako bidea bakarrik egin zuten. Lehenengo trenez eta gero autobusez. Transbordoia egiteko laurotariko baten Bilboko izekoa arduratu zen.

»Uda horretan, arropa, muda, maletin eta behar zen guztia antolatzen ibili nintzen. Arropak zenbakiturik eramán behar ziren bakoitza berearekin jaubetzeko. Asteroko arropa zikina garbitzeko, aditu zer egin genuen. Seminariotik Bilboraino trenez, zenbakidun boltsa baten sartuta. Bilbon, herriko lagun horren izekoak eramaten zituen autobusera eta guk etxean hartu, garbitu eta bueltan beste hainbeste. Arropa artean letra batzuk ere idazten genituen irakasle-prefektoen kontroletik kanpo. Osterantzeko kartak zabalik bota eta zabal-duta hartzen zituzten zure aitak eta. Horixe zen ohitura. Gaur ez genuke onartuko baina!

»Arroparena kurtsoaren hasiera baino lehenago esan dizut baina ez dio ardura, oraintxe kontatuko dizut gainerikoa.

»Kurtsoaren hasiera inportantea izan zen. Seminarioa zati edo bloke bitan zegoen banatuta, handia eta txikia. Gero bien erdian eliza eta dorre ikaragarri bat egin zuten Sondikako

aireportuarekin kontatuta noski. Xabier hasi zen urte horretan inauguratu zuten erdiko edifizio eder hori eta personaje handiak etorri ziren inauguraziora. Zuk jakin ere ez duzu egingo, Jon, baina garai horretan Madrilen Franco zegoen eta Bilbon Gurrupide gotzain bezala. Ni ez nintzen egon inaugurazioan, aitita Martin bai. Baina zure aitak esanda dakit, nola abadegai guztiak egon ziren seminario aurreko eskalinetan Derioko gurutzetik obispoa noiz agertuko itxaroten. Mercedes beltza begiztatu zutenean, prefektoen aginduz, denak hasi ziren txaloka harik eta obispoa merzedesetik bajatu arte. Txoferrak atea zabalduz batera, erretorea lehenengo eta abade-irakasleak jarraian, erreberentziak eta atzamarreko eraztunean mun egiten hasten zitzaizkion eta elizarantzean “Sacerdos et Pontifex...” abestia kantatu organo hotsean.

»Holakoxe errespetoa orduan. Gaur obispoak konprimentu barik etortzen zaizkizu eurak txofer direla. Zure aitak, gaurko gotzaiari “zu” egiten dio eta ez “berori”, seminarioan abade zela ezagutu zuen eta. Gehiago oraindik, Xabier seminarioan eraman zuen parrokoak “hitano” egiten dio gotzaiari. Baina lehen? Berori hutsa, bueno, “usté”, euskerarik ez zutelako egiten, jakin beharbada bai baina egin ez, badakizu ba, hark Madrilakoak zer esango eta egingo ere!

»Hasi zen kurtso hori eta tira, konforme, aurgora gabeko aurbeherarik ez zegoen baina aurrera. Hileroko lehenengo igandetan bisita eguna izaten zuten eta joan ere egiten ginen, herriko lautzuak, lau mutikoen gurasoak. Autobusa hartu herrian, Bilboko katedralean meza entzun, sarritan meza baten azken aldea eta hurrengoaren aurrekoa, eta gero trenez semi-

nariora. Han egoten ziren mutiko guztiak bisitaren zain euren eskuetan hileroko notak zituztelarik.

»Lehenengo beharra notak erakustea zen, baina asignatura bakoitzeko nota baino lehen beste lau eukiten zituzten: kondukta, garbikuzia, edukazinoa eta aplikazinoa. Xabier, bera aurreratu zitzaigun berbaz hango nota baten azalpena eman nahian eta:

«—Aditu, latinean eta gaztelera euskaldun guztiok ibili gara kili-kolo baina konduktan eta, zortzi atera dut.

«—Ekar ezazu nota txartela —gure Martinek—, eta ez zaitetz ikaratu. Hauek aurrenengo lau nota hauek dira inportanteenak. Hauetan ez dago ez listorik ez lelorik, hemen denok atera dezakezue bikain, beraz, zuk Xabier, bikain atera lau nota hauetan eta ez arduratu beste notekin, berez-berez etorriko dira bere senera eta.

«Santo erremedio! Xabierrek ondotxo ikasi zuen aitaren esana eta halaxe egin ere. Ez da sekula damutu eta begira gaur non dagoen, baina lehenengo, gizon, gero gizon ikasia. Ikas-teak bakarrik ez du balio, pertsona izan behar da lehenengo. Gaur karrerako asko dago baina batzuk gizontasun barik eta txarrena kargu edo negozio inportantean badago, orduan akabo!

—Amama, horrenbeste nik neuk ere badakit —erantzun nion barru-barrutik—. Niri neuri behintzat ondo etorri zait aitaren aholkua baina ikusten dudanez, aitaitarena ere bada. Nik bukatu dituk batxillerreko ikasketak baina nire hainbat eta hainbat ikaskide geratu egin dira biderdian edo kanpoan errezbidean ibiltzeagatik.

—Bai, Jon, ez dakizu zenbat poztuten nauzun hamazortzi urterekin horrela pentsatu eta bizitzeaz. Zure aitaren eskola-lagun batzuk ere kargutu gaur non dauden, ahal duten beharlekuan eta etorkizun ilunean. Bat baino gehiago hilda ere bai, modu txarrean hilda. Okerreko bideak hartu, edabeak, drogak, eta abarrak, eta behin puntu bateraz gero ezin atzera egin eta betiko galdu euren buruak etxekoen bihotzak apur-apurtuta utzirik.

»Ba, horrexetarako, pertsona eta jakituna izateko sartu genuen zure aita seminarioan. Komentu baterako ere eduki genuen gonbitea baina herriko abadeak, ba, hara eta guk ere haraxe. Hamar bat urte egin zizkigun seminarioan eta hamar-kada horretan aldaketak ere dezente egin ziren. Aldaketa guztiak ezin izango dizkizut kontatu ez genukeelako amaituko sekula baina batzuk bai, afari aurretik badaukagu oraindik astia eta.

»Kontuak hartu, hasierako urteetan, opor garaia etortzen zenean, kurtsoko azken egunean gotzaina joaten zitzaien kartilla irakurtzen, hots, udarako baldintza eta arauak jartzen.

—Zer baldintza, amama, baina zer diostazu? Oporretan ere gotzaiak agindu? Zelan ba?

—Ah, Jon, gaur ez dago lehengorik. Neuk entzunda daukotsat hari obispo txiki baina agintariari. Euskaraz esango dizkizut nik haren erderazko aginduak. Hauexek, besteak beste: «Abadegai maiteok! Oporrak bai eta oporrak ez! Oporrak bai, zuon ikasketen liburuan orrialde bat pasatu duzuelako, baina oporrik ez, arimak ez daukalako oporrik. Horregatik, ezin duzue hau eta hau egin, bestea eta bestea ere ez». Eta

horrela nik neuk ere ez dakit zenbat gauza, erdiak ulertu ere ez nizkion egiten eta.

»Gero behin herriraz gero, parrokoagana joan behar izaten zuten eta haren agindupean jokatu. Eskerrak gure parrokoa euskaldun eta nazionalistea zena eta horrexegatik, ahopetik, baina bihotz-bihotzetik esaten zigun: “Zuok ez arduratu, parrokian neu nauzue nagusi eta obispoa ez zait kontuak hartzen etorriko, jakina, ni Bilbon ondo nengoela hona bialdu ninduen zigor bezala euskalduna izategatik, baina bestela bizi da bat haregandik urruntxoan”.

»Guretzako hori entzutea, Jon, nasaitzea zen eta parrokoari esker, abadegaiak sakristian ikasi egiten zuten goizetan, meza ostean eta gero arrastietan etxean lagundu, baserrian beti dago zereginen bat egon ere eta.

»Estudianteen artean, batzuk señoritoagoak ziren eta lotsaritzat eukiten zuten etxean behar egitea. Gurean ez. Gurean zure aitak naiz Koldo osabak denerik egin dute bakoitzak ahal izan duen neurrian. Gure baserri aurretik bidaztiren bat etortzen zenean eta gure seme-alabak beharren ikusi, batek baino gehiagok esan ere egiten zigun:

»—Zer? Estudianteak eta beharren?

»—Zer ba? —erantzun guk.

»—Estudianteak ez du eskurik ez abarka-medirik zikindu behar, horraitio!

»Baina guk kasurik ere ez. Etxea denona zen eta esaerak dion bezala, “egur eskarmentatua sugin ona”, hau da, zure aitarentzat eta etxean behar egitea ongarrri zela ikusten genuen. Zenbat bider esan ote zigun zure aitak iraille partean pozik baino ere pozago zihoala seminariora ikasten. Etxean

alperkerian ohitu izan balitz, helduko ote zen heldu den lekura? Batek badaki!

—Itxaron, amama, bidaztiak esan duzu? Baina nor ibiliko zen ba orduan atzera aurrera baserrietako bakean?

—Bai, Jon bihotzekoa. Gaur beste ez baina gure garaian ere ibili ibiltzen ziren bidaztiak bideak betean, oinez jakina, eta batzuk interesgarriak eta beharbada zelebreak batez ere zuontzat gazteontzat. Egarriz ikusten zaitudanez, kontatu egingo dizkizut bidaztietariko batzuen haronakoak.

»Gure gazte denporan, eta ia-ia oraintsurarte, zuk zeuk, Jon, ez duzu mundu hori ezagutu baina zure aitak zati handi baten bai, bidazkiak, pausuko topetan genituen, hor bideak betean, etxerik etxe, herririk herri. Bidaztia edozein da, baina batzuk fijoak izaten ziren eta bakoitza bere tertzioan agertuten zen handik gure paraje haretatik. Batzuk herrikoak zitzaizkizun baina beste batzuk albo-herrietakoak eta banaka batzuk urrunekoak, zeinda, horiek peregrinoak, edo baheroak edo mieleruak esaterako.

»Aitearen eta semearen!, denen berri gura duzula? Ba, orduan badaukagu zati baterako bidaztion kontuekin.

»Hasteko, gura baduzu, ehunleak edo ehuleruak aitatuko ditugu. Gure herritik Zeaniztar bat eta Zeberioako elbarrengo bat ibiltzen ziren, liño denporan, liño beharrak eginda gero. Liño-firuzko harilak pisura hartzen zituzten. Zaldi edo mandoarekin etortzen ziren eta euren otzarok bete arte etxerik etxe ibiltzen zitzaizkigun. Gero handik denporakarranean, berriro etortzen ziren baina oraingoan mihisezko izara edo beste klase bateko tela eginda. Eta, kobratu ez zuten egiten diruaz, zeinda, gaur erosten den moduan, ezpabere ze, eurak

lotuten ziren honenbeste edo harenbeste firurekin edo hari-
lekin, errotariak arto edo gariarekin egiten zuen letxe.

»Gero ba, ermandadakoak. Han gure parajea, ergoie-
nen, hamabi etxe ginen eta ermandadea egiten genuen. Etxe
bakoitzeko ugazaba edo errentorea bada, ganaduen jabea, ba
San Justoko ermita-portalean batuten ginen urtean behin.
Zure aitita Martinek hartzen zituen kartak eta bateko urrea
toketan zitzaiona, presidentea izaten zen, gero beste karta
batekin, mayordomoa eta beste birekin beste lagun bi. Eta
hau, urtean-urtean.

»Hileko lehenengo igandean errekorridua egiten zuten,
kortarik korta. Eta, jakina, korta bakoitzean, horiek laurok
eta etxeko ugazaba batzen ziren eta hilero-hilero behi guz-
tiak tasatu, denen konformidadearekin. Eta, ba, gero, egunen
baten, bateren bati behiren bat tragatu edo maltratatur gero,
edo behien batek txala galdu ezketiño, ba juntatu egiten
ziren eta kaltearen kostua denen arte zatitu eta kitutu.

»Beste batzuetan, etxe-errearena batzen etortzen ziren. Ni
neu ere ibilita nago horretan menester horretan. Badakizu,
lehenengo baserriak zaharrak ere bai eta, gariak eta bedar sikua
ere kamaran gordetan genuen, kortan berriz, azpigarria eta
idea, eta, ba, hagaitik horregaitik sarri erretan ziren etxeak eta
goizetik gauera ezer ere barik lotu hango etxeakoak. Orduan,
herriko gazteak eta, elkar hartu, eta etxe-errearena batzen
joaten ginen etxerik etxe. Borondate oneko jenteak ez du ze-
ozer eman barik itxiten. Beste herri batekoa bada ere berdin
ematen zaie, ze ezebezean lotutea gauza tristeza zaizu gero!
Eta ba, denerik batzen zen. Dirua, janaria, arropak, tresnak,
muebleak, eta batzuk ardi edo txerri edo beste animaliaren bat

edo beste ere bai. Beste batzuk hagearena ematen zuten, hau zera zaizu, etxe berria egiteko zutunik dauden haritzak eman, behar duenean bota eta hage, zoliba edo kabrioak egiteko etxe berrirako.

»Eskekoa berriz, eskandalua ibiltzen zen lehenago, batez ere gerra ostean, gaur ere bai baina, gaur, hirietan, kamino-kurtzetan, semaforoetan, kaleetan, eliza sarreretan eta abarretan.

»Eskekoetariko bat ez zait sekula ere ahaztuko, kontu erratuarena batzen etorri zen. Zer den hori? Nola jakingo duzu ba, Jon, hori nik neuk ere berari entzun arte ez nekian zer zen eta. Baina kontatu egingo dizut bihar etzi baterako ikas dezazun. Aditu.

»Era askotako eskekoak zebiltzan gure herritik; batzuk erdaldunak, beste batzuk euskaldunak eta euren artean batzuk asto, mando edo karroarekin ere bai baina gehienak oinezkoak. Eta esan dizudana, ba, etxerik etxe zetozten eta eskatu baino lehenago errezetan hasten zitzaizkigun, pater noster bat edo abe maria bat. Eta ba limosna edo janaria ematen zitzaien, bakoitzak berak ahal zuena. Egotez etxeetan ere ez zegoen zer jan askorik. Begira ezazu baten gure ama defunteari, zure birramamari, holako eskeko erdaldun bat etorri zitzaion eta limosna eskatu zionean erantzun omen zion zelanbeisteko erderan: "Bastante pobre tenemos aquí". Euki ere bai, etxe bete ume ginen eta izan ere. Intera haretan ez zegoen jakatzurik, ez eta hau jan ezazu edo hori edan ezazu esateko beharrizanik, azpira inguruak erlaumea zirudien sarritan. Aditu noraino, nozonoz umeren batek barrabaskeriren bat egin eta bazpiak erantatu barik alde egitea lortuz gero, hau zer

hau esaten zitzaion: “Joan hoa baina azpirak ekarriko hau”, hau da, goseak.

»Euskaldunak ere baziren banaka bat hemekoak zein gipuzkoarrak. Bat herrikoa ere euki genuen eta hor ospitalean emoten zituen gauak eta egunez etxerik etxe eskean.

»Horrek herriko horrek eskatu ezeze errekadu ere egiten zuen. Lehentxoago esan dizut errekadu egitea zer den, ba urliari ezkontza preparatu edo bidean ipini. Eta osterantzeko errekaduak ere egiten zituzten, ze lehenago automobilik ere ez zegoen eta familiak zabal egonez gero ondo etortzen zen holango bat elkarren berri emateko. Osterantzeko eskekoek lo egiteko etxe seinalatuak eukiten zituzten, jakiten zuten ze etxekok ematen zuen ostaturia, kortan edo tejabanako bedartzan. Gure baserrian ere makina bat eskekok lo egin izango du, zer egingo zenien ba! Orain, hori bai, tabakorria eta metxeru edo mistoak sutean itxi erazotea logretan genuen zein kortak edo tejabanak sua hartu, eta hurrengo egunean berriro eman. Hauek neurriok hartu ere egin behar, ezpabere zeozer pasatuz gero, ipurdian mun eiozu! Horiek eurak ez zeukaten zer galdurik baina guk gure azinda apurrak ez genituen ez neke barik egin!

»Eta orain kontatuko dizut kontu erratuarena batzen etorri zenarena. Nongoa zenik ezin esan diezaizuket baina harrenbatekoa izango zitzaizun, dendik ere, zelebrea. Ba, seguru, gizon hori ere eskean zetorren eta ez zeukan fetura edo itxura txarrik ere eta esan zion gure ama defunteak:

«—Zuk zer batzen duzu ba horrekin itxura horrekin?

«—Ba nik neuk kontu erratuarena batzen dariot.

«—Eta zer zaizu ba hori?, esan zion zure birramamak.

»—Hori? Ba, aditu iezadazu, honenbeste diru neukan aurreratuta zahartzarorako eta honenbeste urte biziko nintzelakotan nengoen. Orduan, urtean-urtean gastatu egin dut nire neure kotejazinoa, baina urte gehiago bizi ditut eta orain eskean joan behar, kontu erratuarena batzen, merezidu ez dut baina, uskeritxo bat baino ez bada ere emango bazenit!

»Ba, holantxik eman omen zituen bere azkeneko egunak, hagaitik eukiak guztiak ez dira jan behar, gerorako ere zeozer itxi behar da. Bateren batzuk bestera ere pentsatzen dute. Behin hilez gero, ostekoei zorrak itxitea dela onena, ze arean itxiz gero, askotan liorako baino ez da izaten eta. Zorrak kanpaiak pagetan dituela esaten dute beste batzuk. Horiek kanpaiok, hil-kanpa edo tokadak zaizkizu.

»Nik neuk ez dut gura ezelango zorrik. Gure aita defuntuak esaten zigun zorrik onena baino arkienik txarrena hobe izaten dela, eta ni neu ere horretan nago, gauean lo nasai egitealangorik ez dago, ez hor askoren moduan, fraketan kabidu ezinda, lorik egin ezinik euren zorrok direla eta ez direla, zertan ez dela buruari lorra emoten, konformidadea gauza handia da ba! Ez duzu pentsetan, Jon, maitea?

»Jitanuak izaten ziren beste batzuk. Horiek karro eta guzti etortzen ziren eta gure herrian euren lekuak eukiten zituzten gaua egiteko edo emateko. Bat hantxe dago, Isasin, oraindino ere han dago zipresa, arbola ederra, eta hantxe, ziprespean egiten zuten lo, hori zure aitak ere ondo dakitsu, makina bat beldur pasatu zuen eskolarantzean euren aurretik pasatzerakoan. Gaur ere oraindino, horri leku horri "jitanuen lekua" deitzen diogu denok.

»Baheroak genituen beste bidazti hauek, hau da, baheak egiten ibiltzen zitzaizkigunak etxerik etxe mundurik aramaino. Hortik Galizia aldetik edo etortzen ziren, eta ba gurean egiten zuten lo, ostatua eskatzen ziguten eta gero joan etorri guztietan gurera, izan ere, gurera Gorbeian begia atereak ere joko zukeen eta. Gure ama, gazterik hil zitzaigun ezbeharrez, baina eskuzabala zen. Zenbat bider esaten zigun Aste Santuko misiolari bategandik ikasitako ha erderazko esaera: “Manitas que no dais, ¿qué esperáis?”.

»Hauek baheroak, mandoekin zetozen eta badakizu, gari beharrak eta egiteko, baheak eta galbaheak euki behar ziren eta hauek, batez ere baheak egiten zituzten. Etxe bakoitzean zelango neurrikoa halangoxea. Uruna azpiran eralgiten zen eta klaro, azpirak ere ez ziren denak berdinak, gainera, bahearen telea edo sarea ere ez. Tela batzuk zeheago eralgitekoak ziren uruna finago eralgiteko, tela finetik eralgiz gero urun zehe-zehea ateraten zen eta hori zen onena ogi zurirako. Osetera, tremesa egiteko uruna ez zen hain zehea, zahiarekin nahastaturakoa baino birzahiarekin zehatz esanda. Haregatik ez zeukan hain kolore zuria. Guk ogi zuria geneukan onenentzat eta orain begiratu, orain bestea omen da hobe, zahiarekin nahastaturakoa, integrala deritzogun hori. Eta, ba, gaua egin orduan, ematen ziguten dirua edo baherik behar izanez gero bahe truke, eta holan izaten zen. Guri grazia egiten zigun euren arteko berbaikuneak.

»Pasigerak izenez ezagutzen genituen bidaztiok. Horiek montañasak izaten zitzaizkizun, andrazkoak. Eta arropa zaharrak eta lana zaharra batzen zuten. Lepotik kubanu handi batekin ibiltzen ziren eta kilo arropa edo lana txakurrandi bat

edo hiru txiki pagetan zuten. Dirua gura ez zuenari orratz batzuk edo ditare edo holango balio gutxiko zeozegaz pagetan zioten. Zuk, Jon, txakurrandia zer den ere ez dakizu ezta? Pezeta baten hamarrena. Lehen diruak gehiago balio zuen. Orain, horrekin Euro horrekin berrien berriz hasi beharko dugu, batez ere zuok, moneda txikiak erabiltzen.

»Legoak ere bidazti eginik zebiltzan. Horiek ba komentotatik etortzen zitzaizkigun limosna batzen, eta dirua ez zenean gari edo artoa ere igual, badakizu ba, komentoko ahoak ere bete behar ziren eta. Horiek errezatu egiten zuten, estanpak eman ere bai. Batzuk morroskoak ederrak ziren, zankaluzeak eta kokote bete-betekoak.

»Fraileak, horiek mezakoak ere etorten ziren baina ez eskean, mutiko topetan baino, euren komentorako. Gure herritik asko joaten ziren, akabatu gutxik. Lehenago fraile edo abade sartzea ez zen gauerdiko ahuntzaren eztula. Jakina, estudioak akabatu ez egitea ere txarto ikusita zegoen. Horiei "malestudiante" deitzen genien, deitu ere. Baina horrela deitze hori gure denborakoa da, eta ikasle alperrontziari esaten zitzaion. Zure aitaren garaian ia ez zen erabili ere egiten, seminariotik kanpo ere ikasle onak ez duelako behar horrelako izenik.

»Frailea, kategoriakoa, Aita Patxi defuntua genuen. Hark makina bat meza eman zuen gure herriko etxeetan, zahar edo ibilpidea galdurik zutenenean batez ere. Bideak oinez ere egiten zituen baina edadekoa zen eta, ba, kantsatu ere bai, eta auto stop egiten zuen bideak betean. Denek zekiten hari autoa paratuz gero eta komertazinoari utzi, errosarioa errezetan hasiko zela eta geratu ere ez. Oinez joanda ere

igual, zure aitita Martin baten Andramarira joan zen laguntan eta bidean hiru errosario edo errezzatu zituzten. Batzuk burlazar ere ekiten zioten, baina ha beti berera, gizon zintzoagorik! Zerurik badago, Aita Patxi han daukagu!

»Martxanderak ere ibiltzen ziren. Zelan esango dizut banik, horiek martxanderak andrazkoak zitzaizkizun eta hemen Gorbeia aldean feriak egiteko usadioa zegoenez, horiek martxanderok, ba, oilo, oilasko, oilanda oilar eta arrautzak eta saltzen ibiltzen ziren guzurra eta abarra dariola.

»Erosten zituzten egaztiak ez zituzten eurek etxean gehiago hasten en jeneral, hobeto zetorkien han-hor-hemen loditutakoak logretea gero ferian saltzeko. Arrautzak eta batzeko, otzara besotik eskegita etortzen ziren eta hemen dozenerdi hor beste erdi, ba, bete egiten zuten zurmintzezko otzara. Guk ere, saltzen genizkion, zegoenean jakina, ze batzutan oila-lokeari ezarteko ipini behar zitzaizkiola edo jan ere egin behar zirela edo karetan sartu, ba sarritan ez geneukan euki ere.

»A! hori karetan sartzea dinostazu? Ba bai, hor udaberrian arrautza ugariago jaioten zen eta saldu egin beharrean karetan sartzen genituen urterako edo gutxiago jaioten direnerako zer jan eukiteko. Zuk ez dakit jakingo duzun baina lehenago karobietan karea egiten genuen, bai, egin zulo batzuk kontra-terrenoan oska bat kanpora duela, eta gero kare-harriekin arketa bat egin eta goraino bete kare-harriekin. Gero, beheko oskan otegurrekin eta, su bizia egin eta dena zuritzen zenean karea bihurtzen zen, kare gobela deitzen zitzaion. Gero hori kare hori solorako eta izaten genuen, gauza askotarako. Eta holango kare bizia hauts eginda bota-

tzen genuen bidoi batera eta ura gainetik dela han barruan arrautzak kontuz-kontuz sartu eta han kontserbetan zitzaizkigun. Gaurko frigorifikoak eduki izan bagenitu! Zoritxarrez, sarritan arrautza bat baino gehiago apurtu ere egiten zitzaigun aterakeran, baina tira, ez zegoen beste modurik eta konformatu egin behar.

»Karea, osterantzean, karobi frantsesetan ere egiten zen, horietan beste sistema bat erabiltzen genuen, zera, kapa bat harri eta kapa bat ikatz edo egur eta holan, eta eginaz-eginaz joaten zena behetik atera egiten zen baina ez zen hain kare garbia, ikatz edo egur errearen iduria nahastuta eukiten zuen eta. Solorako ez zion ardura. Baina arrautzak sartzeko eta horretarako kare garbialakorik ez zegoen.

»Orain ez dugu egiten baina karobi zuloak etxe inguru guztietan daude, eta karobi frantsesen horma zaharrak ere hainbat lekutan. Azken urteotan han Zeanuriko herrian gazte talde bat dabil lehengo usadioak berbiztuten. Zu zeu ere ez zinen joan ba gurasoekin San Justoko karobi berriztatua ikusten?

—Bai, amama, eta asko gustatu zitzaidan gainera. A zelako gauzak egiten zenituzten lehenago. Guk ikastolan eta liburuetarik ikasten ditugu baina bizian ikustealakorik ez dago. Gaur kontatzen zabiltzan kontu asko ere ez ditut argiegi ikusten baina benetan ere ez daukate desperdiziorik. Zer mundu ederra zuona!

—Baketsuagoa bai, Jon, gaur baino modu gutxiagorekin, jakina, baina konformitate handiagoaz bizitzea tokatu zaigu eta bizigurako ilusioa sekula ere ez dugu galdu. Gaur jendea edozergatik sartzen da depresio deitzen diozuen horretan,

guk, gure kalamitate eta guzti, depresioa zer zen ere ez genekien eta belea beltzago ez dela egingo pentsatuz aurrera egiten genuen.

»Bidaztiekin jarraituz, hara han tratanteak, ganadu erosten etortzen ziren, batzuetan mataderorako baina gehienetan eurak erosi eta beste batzuei ferietan saltzeko. Batez ere txahalak erosten zituzten, eta horiek begipisuan erosten ziren, hau da, begiz egiten zen tratua, begi ona eukiten zuten, mi-ruak harra ikustekoa lakoxea. Geuk ere seguruan jokutzen genuen, eta tratanteak etorri baino lehen pisu erromanekin pisatuta eukiten genuen eta, jakina, gero euren iritzia entzun orduan konformatu edo ez egiten ginen. Tratanteak okerrak dira gero! Baina gu geu ere zuhur, inoiz holangoren bat etorritz gero, “urliak honexenbeste opatu digu” esaten genien ea jausten diren, baina, kia! nok harrapatu horiek? Horiek?, azkonarrak zer dira gero!

»Gero, hilteko ganadua zenean, ba batzutan bizipisuan egiten zen tratua, hau da, bizirik pisatu edo beste batzuetan kanalean, han mataderoan. Baina haragia pisatzeko hozten uzten zuten, hotzean gutxiago pisatzen du eta. Hortik dator esaera: “Beroarena errebatatu behar zaio”, eta hau, gaur egun, haragiarentzat baino norbaitek neurritz kanpoko gorai-pamenen bat egiten duenean erabiltzen dugu, guk adinekook behintzat, zuok gazteok ez dakit ba?

»Eta gehiago zer esango dizut ba, afiladoreak ere etortzen ziren, paragueroak ere bai, mieleruak ere bai ezta eta gaztaia eta saltzen, eta ba, ez dakit ba nik, iaber, itxaron ezazu, inoiz-inoiz peregrinoak ere ikusi genituelakoa hemetik. Peregrinoak nire aldi-aldi gutxi pasatu dira, lehenago asko ibiltzen

zirela daukat nik entzutea, ikusi badiotsut, gutxi baino ere gutxiagotan. Gure etxera bi biderrez etorri ziren. Lehenengoz gizon bi, txarto jantzita. Batak samatik dingilizka zeukan errosario modura itsasoko txirlekin egindako kollarra, barrenean kurutze bat eta besteak ezer ere ez. Batak jana eskatu zigun eta besteak ura. Esan ziguten Konpostelara doazela promesaren bat betatuten.

»Beste baten, beste peregrino bat agertu zitzaigun, ha ere txarto jantzita, eta ura baino besterik ez zuen eskatu, hark ostera itsasoko bitxoekin egineko pitxer bat zekarren aldean. Baina badiotsut, hau antxina izan zen, ni neu ere ozta-ozta akordetan naiz. Ahaztu ez zaizkit egin ze hain izan ziren bidazti zelebreek!

»Ai!, eta hauek eurak ere bai, zerak, serorak. Serora etorzen zen batzen. Elizarako hamarrenak eta azken antzean beretzat ere batzen zuen. Lehenago, elizari pagatu egin behar izaten zitzaizkion “hamarrenak” ezpabere hil-kanpairik ere jo ere ez harik eta zorrak kitutu arte.

»Bidazti frantsesak ere etorrita daude hemendik. Nik neuk ikusi ez nituen egin, baina badakit pasatu zirena. Zerk ekarri zituen hemendik diostazu? Ba, aldi bateko gerra famatua bitarteko zela eta etorri ziren. Azaldu egin beharko dizut apurtxo bat, bestela?

»Hau gerra hau, 1808an hasi eta 1814an amaitu zelazkoa daukat entzunda eta harrezkero beti jakin dugu edo entzun behintzat, horiek frantsesak, gerra ostean, hemen Gorbeia inguruan urre gorrizko kutxa bat gorde zutela haitzulo baten urre gorriz beterik, eta baten baino gehiagotan etorri ere egin zirela berreskuratzen baina alperrik. Urteak joan eta urteak

etorri, ez zen frantsesik barruntetan Gorbeia ingurutik eta egun baten, baserritar batzuei urre-gorri hori bila joateko asmoa etorri zitzaien, altxor horren entzutea bazeukatelako.

»Esan eta egin. Joan ziren gizon eta mutil koadrila handia euren tresna eta guzti Gorbeia haitzulo horretara. Egin ahalak egin zituzten urre gorri hori topetan baina dena alperrik, txakur-amesean geratu ziren euren asmo guztiak. Etxerantz zetoztela, eurerariko batek era honetara berba egin zien beste guztiei esanez:

«—Zergatik ez goaz hara Bilboko aztu famatuagana eta itaundu ea non dagoen frantsesok gordetako urre gorri hori!

«—Joatea baino ez dago! —erantzun omen zuten besteek.

»Joan ziren Bilbora, Arratiako tranbian, eta aztu edo adibinadorearen etxera heldu zirenean, ateetara urten zien aztu andereak eta esan:

«—Zer da gura didazuena ba?

«—Ba, honantxe eta honantxe frantsesadako gerra osteko urre-kutxa bila gabiltza Gorbeian kobazulorik kobazulo eta ezin dugu aurkitu.

«—Begira, joan zaitezte berriro urli lekutako haitzulo horretara, sartu estaka luze bat eta eguzkiak lehenengo jotzen duenean gerizpea norantz, hantxe jo ezazue lurra eta sakondu!

»Esana egin zuten baina lehenean geratu ziren. Horretara, baserritarrik indartsuenak badio erdi haserre:

«—Oraingoan neu joango nauk andre horregana eta ikusiko dik ona zer den horraitio, gezurti horrek halako horrek!

»Joan zen gizon hori, jo aztuaren ateak, egin aurrekoen lako itauna eta erantzunaren zain geratu zitzaion. Aztu-anderea gela ilun batera sartu zen eta tardatu egiten zuen,

ez gutxi, bueltatzen. Bien bitartean, baserritarrak, gose ere bazen eta, aztuak sukaldean egosten zeukan indaba-lapikoari tapea kendu, barruko lukainka eta saiheskiak jan eta berriro jazarri zen itxaroten. Agertu zen halakoren baten aztu hori eta oraingo honetan hauxe esan zion eskuetako paper tximur eta zahar batzuk igurdiz:

»—Joan zaitezte berriro eta goizean eguzkiak lehenengo jotzen duen tokian, hantxe jo ezazue lurra eta sakondu!

»—Zenbat da? —itaundu zion gizonak.

»—Lau siri eta beste hainbeste mari (marabedi)!

»Baserritar indartsu hori etxera heldu zenean eta beste guztiak galdetzen hasi, honela erantzun zien:

»—Mutilak! Azti horrena dena duk gezurra. Nola igarriko dik horrek urre gorria non dagoen, gela barruan dagoela jan egin dizkiat lukainka, sahieskiak eta, bera konturatu ez dela! Utz diezaiogun beharleku honi eta geureari ekin, baserriko beharrari, probetxu handiagokoa izan ere egingo diagu eta!

»Gauzak, horrela geratu ziren, baina handik urteakarrerenera, frantses batzuk agertu egin ziren berriro ere Gorbeia ingurutik mapa batekin. Frantsesok, ateak jo zituzten Balbina Olabarrikoaren aititaren aitarenean ha koba zuloa topetako laguntza eske. Beldurtu ere egin ziren, ez gutxi, hango etxeo guztiak, baina halan eta guztiz ere ez zieten laguntza ukatu.

»Ibili eta ibili, mapara begiratu, zuloak arakatu, halangoren baten aurkitu egin omen zuten frantsesadako gerran gordetako urre gorria, baina ez lehen utzi zuten tokian, beste baten baino. Jakina, bateren batek isilean lekuz aldatuko zuen eta gero etorri ezinen bat gertatu. Holakoak dabilenari pasetan zaizkio.

»Badiotsut, frantsesok, pozik baino pozago geratu ziren eta Balbina Olabarrikoaren birraititari hamaseiko gorri bat eman zien lagundutalde.

»Halantxe akabatu zen urte askotan zehar bizitako urre gorrian aurkitu beharra eta bake santu bat! Bakoitzari berea ematealakorik ez dago!

»Bidazti gehiago ere etortzen zitzaigun, guardasol eta lapiko konpontzaileak, ardi zein asto mutiltzaileak, azagariak harrapatu eta ondorengo aginaldo biltzaileak eta abar luze bat, baina, hauetan azken aldiotan gari garbiak ez diren bidaztiak ere badaragoioe baserrietatik sorots egiten, bateko gezurra besteko abarra gure zaharrak engainatzen.

»Lapurrak ere gainetu izan zaizkigu baten baino gehiagotan. Gurean sekula ez da itxi atea egunez, txaramela akaso, baina azken urteotan giltza bota behar izaten izan diogu zein lapurrak sartu eta ostu. Zer ikusi behar ez dugun baino ez da etorri datorkigun mundu ziriguztu honetan!

»Orain baserria geldi daukagu, badakizu, Jon, zergatik, baina zure aitak arregluak egingo dizkiola esan dit eta uda partean denok joango garela, aitita ere bai. Ez dakizu zelako poztasuna eman didan ideia horrek! Bazeneki zenbat baino gurago dudan berrien berriz baserrira joan eta hango hango-tasunean zertzea!

—Amama, ez egin negarrik, konponduko gara. Gurasoak eta gu egunez hara horra ibili arren, gauean joko dugu baserrira eta denok pozik. Gainera orain telefonoa ere aldean daramagu eta ez dago problemarik.

—Bueno ba, bidaztion kontuari ekin eta ekin ia-ia komertazinoa non utzi dudan ere ez dakit. A bai, zure aitaren seminario garaiko oportretan geunden.

»Zure aitaren seminarioko denpora horrela joan zen, konportamentu onarekin batera eskolak ikasi, deporte asko egin eta oportretan etxean lagundu, herrian ere bai, batez ere parroikia inguruko zereginetan.

»Eskolak onak baino hobeagoak ikasi zituen gure Xabierrek. Grekoa eta latina oinarrizkoak ziren abadegintzarako. Euskararik ez zen irakasten. Eta hori baino txarrago, euskaldunen artean erdaldun bat egonez gero, txartzat ematen zen euskara egitea eta gainera sarritan berba gogorrak entzun behar izaten zituzten euskara egiteagatik. Baina, beti dago munduan buruargiren bat edo beste eta batxillerrean gora zirenean, irakasle euskaldun batzuk euskara ere irakasten zieten zure aitari eta, baina ez klaseko orduetan, aparte baino.

»Zenbat bider kontatzen du gure Xabierrek harako Txomin Agirrereren “Garoa” zelan heldu zitzaion eskuetara eta uler-tu, gainera, gipuzkera! Harro ez zen egoten bera ba! Bertso-ginen ere horduxean hasi zen. Eta musika? Hortxe ere trebea zen zure aita. Instrumentuak ere bere kontura ikasi ditu. Zu kontserbatoriora bidali zaitu baina bere denporan ez zegoen holakorik, norberak egin behar eta egin, eta gero badakizu, “eginak egin gabekoari itxaron”.

»Gero ba, urteen joanean, gauza kuriosoak ere gertatzen zitzaizkien seminarioan. Orain kontatuko dizudan hau nik neuk ere ez nuen jakin berandu baterarte.

»Antza denez, abade izateko, gizon-gizona izan behar da. Hori baieztatzeko nahikoa zen medikuaren agiria baina ez,

zure aitari eta errebizioa egin zieten ea beste kontuok ondo zituzten ala ez jakiteko. Horretarako, egun baten, mediku bat ekarri zuten seminariora, prefektoen esanetatik apendizitis errebizioa egiteko. Han joan ziren banan-banan eta inork ez zuen apendizitisik eta denak pozik. Baina handik gerora ohartu ziren zertarako izan zen guztia. Galdetu, galdetu iezaiozu aitari halako egun baten, ikusiko duzu!

»Sexu kontua delikatua zen garai hartan. Dena zen pekatua, intentzioa ere bai, kontuak atera. Pelikulak ere, zensura eta guzti ikusten zituzten. Andrazkoren bat musuka agertzen bazen, bonetea ipintzen zuten eta pantaila ilundu. Hori, musuekin, eta gaurko moduko oheko eskenak edo biluztuteak eta, bueno, pentsatu ere ez.

»Beste gai batzuetan ere kontuz! Dibortziodun pelikulak ekarri ere ez. Nola egingo zuten ba, liburuak eurak ere kontrolatuta zeuden eta. Zuk, Jon, beharbada, entzunda ere ez duzu edukiko baina zure aitaren batxiller aldian, oraindino, hainbat eta hainbat irakurgai liburu “indize” zeritzon zerrendan zeuden eta irakasleen baimen bereziaz bakarrik irakur zitezkeen. Esaterako, zure aitari ez nion garai hortan existentzialismo kutsuko libururik irakurtzen ikusten.

»Ha zer nolako diktadura? —esango didazu, Jon—, ba, bai, baina zure aitak, beste batzuk ez bezala, bizitzako gora-beheretan alde ona hartzen jakin du eta on egin dio. Beste batzuk derrotistak izanez errebelatu egin dira seminario edo eta antzerako hezkuntzaren kontra, zergatik? Ba alde txarra bakarrik ikusi dutelako. Zoritxarrez, zure aitaren ikaskide batzuk errukarri ibili dira eta beste batzuk azkenean, seminario

osteko bizitzan ere alde txarra bakarrik ikusten jarraitu dutelako. Eta eurak bakarrik balira? Ostekoak txarrago oraindino.

»Seminarioko azkenengo urtea ez daukat ahaztuteko. Beharbada zure aitak kontatu ere ez zizun egingo guzti-guztia, baina egunen baten kontatuko dizu orduko erretolika.

—Zer den baino ez da ezkutuko kontu hori, amama? Gaur demokrazian ez gara bizi ala?

—Bai, baina kontuz gaur ere, agintarien demokrazia eta azpikoena ez da berdintsua izaten. Nik neuk, diktaturako bildursartua kendu ere egin barik daukotsut oraindinokarren. Dena den, hainbesteko intzigua badaukazu zeozer esan egingo dizut. Gaur beharbada edo beharbada barik, ez diozu inportantzia handiegirik emango baina orduan? Garai hartan ez zen behar gauza handirik giltzaperatzeko.

»Zure aitaren diska artean ez duzu ikusi “Gogor” izeneko bat? Ba hori egia da. Filosofiako azkenengo urtean, 1968an, seminarioan enzerratu zen abade talde bat Euskal Herriaren egoera larriari erantzun bat emateko. Gure herrian, gazte batzuen aldetik, abertzale baketsutik haragoko beste bide gogorago batzuk hartzen hasita geunden. Egoera eztabaidatsua zure aita lako gazte batentzat. Nik lorik ere ez nuen egiten. Egunak joan egunak etorri, lehengo gerrakoa larregi izanda, berriro hasi zitzaigun euskal odola gure amalurra gorritzen. Seminarioko azkenengo urteko Gabon-oporretan, familian bertan eduki genuen odol-jarioa. Han dago ortusantuan hogeitaka urteetako mutil gaztea!

»Denok geunden bihotza apurtuta, edozer egiteko zorian, batez ere gazteek, baina, egunotan, herriko parrokoak, eskertzeko aholkuak eman zizkigun eta gure Xabierri esku bie-

tatik oraturainoko guztiak, buru-bihotzekin jokatzeko aginduz honela hitz eginik:

»—Xabier!, neurekin ibili hadi, nire neure kontsejupean. Bizitza, bakarra duk eta epe laburrera erraza ez baduk ere, ikasi ezak orain arteko moduan gero ere alde konstruktibotik jokatzeko eta epe luzera asko egingo duk Euskal Herriaren alde!

»Xabierrek, arin eta erraz ulertu zion mensajea seminariora txikitan eraman zuen parrokoari, berak ere gure semea ondo ezagutzen zuen eta. Hortxe, hortxe hartu zuen zure aitak bere bizitzako ebatzi handienetarikoa bat. Nik negar eta guztiak egin nituen egun horretan semearen nortasunezko jokabidea ikustean, bizirik nahi nuelako eta ez giltzape edo ortusantuan. Azken kurtsoa bukatu zuen eta uda horretan utzi egin zuen seminarioa. Ez balio ez zuelako, galdetu bestela oraindik bizi diren parroko zein irakasleei, ezpabere ze, gaur zure ama denak bihotza bete ziolako baino.

—Amama, oraintxe bai badaukadala intzigua aita eta amaren hasierako kontuak jakiteko. Nire gurasoak beti dabilta «ai gure denporak eta oraingoak» esan eta esan birik baten. Hainbesterako ote da ba?

—Ba, entzun, Jon. Nik neuk ere hainbat bider esan diot horixe zure aitari ezkondu arte, gero ez, gero erderaz esaten dena «casao pide casa», bera da bere buruaren jabe.

»Belaunaldiz belaunaldi, arrazoia den bezala, belaunaldi-maila bat daukagu eta pentsaera ere aldatuz doa. Zure kasuan, Jon, aldaketak arinago datoz bizitzak horixe erakutsi digu eta. Ez duzu harritu behar eta gurasoei kasu egin, esaten dizutena zeure onerako baituzu, sarritan ulertu ez arren.

»Zure gurasoak elkar non ezagutu ziren jakin nahi izan-go duzu ezta? Ba, nik neuk ere ez dakit hasiera-hasierakoa. Badakizu, horiek gauzok ezkututxoan edukiten dira gehienetan, gaur egun agiriegian beharbada.

»Zure aita, seminariotik urten eta gero, unibersitatera joan zen, letretako karrera egiten, jakina. Karrera destakatu egin zuen. Asko ikasteaz gain, lehendik zeukan seminarioko preparazio ona ondo baino hobeto etorri zitzaion. Euskararen ederto moldatu zen. Titirik harako euskal oinarri onak edukitzeaz gain, Euskal Herriko beste berbaikunak ere ikasi egin zituen eta orain ere beti dabil euskara horregaz sakondu eta sakondu.

»Aspaldiko partez nilakoen euskara batzen daragoio baserririk baserri bere aparatuok bitarteko. Magnetofoiak ere ez dakit zenbat apurto dituen, apurto edo zaharkitu erabiliaren erabiliaz.

»Nik neuk sekula ere ez nuen pentsatuko gulako atso-agureon euskarak hainbesteko estimazioa edukiko zuenik. Makina bat bider entzun izan genuen euskara egitea atrasu bat zela, baina eskerrak zure aitaren D. Inazio irakasleari, haren esan zigun aititari eta bioi hizkuntza bi jakiteak garaiak zabaldu egiten zituela.

Seminarioan dena erderaz izan arren, D. Inazio abadeak euskara egiten zieten zure aitalakoei, eta alimua eman. Gehiago oraindik, zure aitak berak esanda dakit, behin baten klasean erderakadaren bat bota zuela zure aitak eta ikaskide erdaldunak barre egin. Horretara D. Inaziok, erderaz jakina, erdaldunei gedar egin zien esanaz:

»—Barre egiten diozue, barre? Xabierrek erderakadak botako ditu orain, baina urte gutxi barru, erdera ondo ikasten duenean, hizkuntza bi izango ditu eta frantsesagaz hiru, ikusiko duzue. Gainera hizkuntza bat baino gehiago jakitea beste areatarako ere mesede baino ez da. Nongo delitua da ba euskaldun jaiotzea? Horraitio!

»Karrera bukatuz batera, soldadu joan zen gure Xabier. Bere herriko kinto-lagunak hogeita bat urterekin joan ziren soldaduskara baina gure Xabierrek prorrogak eskatu behar izan zituen estudioekatik. Garai hartan ez zen erraza prorroga lortzea. Konduta oneko agiria behar zen eta hori goardia zibilak eman behar izaten zuen. Xabierrek lortu egin zituen prorrogok baina aurpegi txarrak ikusita. Badakizu, zure aitita gudaria eta gartzelan egondakoa zenez fitxatuta zegoen bizkaitarra zelako, baina herriko alkatea gizon portatu zitzaigun eta eskerrak berari lortu agiriok.

»Soldadu, Vitoriara tokatu zitzaion, hori zeuk ere jakingo duzu aitari entzunda, baina orduxean, soldadu joan zen interan hasi zen zure amarekin nobio, elkar ezagutu askoz lehenagotik egin arren.

—Zelan jakin zenuen baino ez da, amama, hori kontu hori, zu hemen eta aita Vitorian egonda?

—Ai, Jon, guk gurasook, batez ere amok, zureak ere bai, aparteko intuizioa daukagu seme-alaben mogimenduez oharatzeko. Soldadu joan eta lehenengo permisoarekin etorri zitzaigunean, bazkaria ahoan sartu orduko, hartu seiszientosa eta kaminoa behera joan zen. Esan nion ba ze aititari:

»—Martin, gure mutilak badauka hor elbarrenenantz interes handiko bateren bat eta neska konturen bat izango zaizu.

»—Nola dakizu ba —esan zidan aitita Martinek, irribarreka—, ez du ezer esan etxean eta?

»—Ba, horrexegatik, ezer esan ez digulako. Beste edozer izan balitz beti bezala kontatuko zuen, izan ere, beti izan delako arteza etxean dena kontatzen, baina kontutxo hori ezkutuan dauka antza. Tira, denporeak agertuko du elurra mendian, ez deritzazu Martin?

»Egia esan, pozik geunden, karrera bukatuta eta soldaduska egiten, ez zen tertzio txarra emaztegaia hartzeko. Batzuk, gazteegirik hasten direlako, kupoa betetzen zaie eta aspertu arinegi. Beste batzuk, ostera, utzi eta utzi, mutil eta neska-zahar egiten dira. Kontu honetan, harroak ere eurenak pasatzen dituzte. Sarritan, oinezkorik gura ez eta zaldizkorik etorri ez gertatzen zaie. Aditu bati zer pasatu zitzaion, neska galant bati:

»Neskaren bat omen zegoen galanta baina galanta, seguru, eta askok egiten zion errekadu ezkontzeko, baina berak antza ez zuen topatzen beretzako lagunabarrik. Eta, badakizu, holan dabilenari ere denbora joan egiten zaio eta neskato galant horri ere urteak aurrera zihoazkion. Eta, jakina, neskatxi horri ere zera pasetan zitzaion, lehentxoago esan dizudana, oinezkorik gura ez eta zaldizkorik etorri ez, bueno, gaur kotxea izango litzateke ezta? Eta urteak joan urteak etorri, halangoren baten bere burua udagoieneko lorea lez ikusten zuenean esaten omen zion berekitan bere buruari:

»—Oraintxe baten batek txiterdi egingo balit ezkontzeko laster egin eraziko nioke etxe-ikusia eta neuk ere bere etxerako haronakoa!

»Itxaron eta itxaron, udagoieneko lorearentzat ere beti egoten da baten bat eta agertu zitzaion zelango halango gizonetzkoa eta birritan pentsatu barik ezkontzeko plantatu zen, egon ere irakiten zegoen eta ezkontzeko, zergatik ze bere lagunak ume kaskonduekin ikusten zituen eta ezin bere burua neskazahar ikusi.

»Neskazahar izaterainoko estukurak aldea batera utziz, ezkondu zen, eta itxaron eta itxaron ere, etxaguntzara ezkondu. Kostatu zitzaion ez gutxi mendia hartzen baina tira, hezialdi horrek balio izan zion. Egun baten, igande arrastiz, beresi batera joan ziren andra-gizonok baina-parratan soloan ipinteko. Jarri ziren han beresi goienez eta kontualdia kontatu orduan, badiotso gizonak andreari erdi burlazar erdi benetan:

«—Hi, pentsatu sarri egin dinat baina esan ez dinat oraindino inoiz egin, hi hain ederra eta galanta izanda zergaitino ezkondu haiz ba nirekin, zergaitino hau akordatzako ezkontze hau?

«—Hago isilik eta joan hadi beresi barrura eta bilatu itzak ahalik eta bainaparrarik artezenak!

»Joan zitzaion ba gizon hori eta beresian behera joan ahal, errezkan aurkituten omen zituen bainaparra artezak eta adapo bakoak, baina haragoan hobeak egongo zirelakoan onak itxi eta hobeak topetan zebilen, seguru, beresi guztitik zehar. Larra ere txarra izaten omen da eta gizon horri ere egur okerak geroago eta ugariago agertzen omen zitzaizkion eta lehen goragoan txartzat utziak zetozkion gogora, eta halangoren baten gorantz aditu eta eupada bat egin omen zion andreari esanaz:

»—Hi, balio din berriro gora joan eta horiek goiko palu artezok hartzeak?

»—Horrek balio izan balik ez nintzuan hirekin ezkonduko! —erantzun omen zion andre galant horrek.

»Baina, konformidadea gauza handia dela eta, aurrera egin omen zuten andra-gizonok eta seme-alaba ederrak hazi.

»Esan dizudanez, gure Xabier ez zen lo egon eta egia zen. Handik lasterrera jakin genuen nor zen bere emaztegia. Gure geure lagun batzuen alaba gaztea. Gaur ere bada, baina neskatxi polita aukeratu zuen zure aitak. Polita, etxe onekoa eta estudiantea. Karrera egiten zebilen oraindino, gure Xabier baino gaztetxoagoa zelako. Neska ona, etxerako modukoa. Irribarre egiten duzu Jon? Egia diotsut. Gaineko suertea duzue zuk eta Izarok dituzuen gurasoekin!

—Amama, zure garaikoa apur bat kontatu didazu, baina nire gurasoen denboran nola ibiltzen ziren nobio-nobiak? Aitari eta amari sarri galdetu diet baina irribarre egin eta ez didate gauza handirik kontatzen. Kontaidazu zeozer, eurei ez diet ezer esango eta!

—Ba, hara, zure gurasoen belaunaldian ere denerik zegoen. Batzuk, buru gutxikoak eta beste batzuk zentzundunak. Gero, jakina, «bururik ez daukanak hankak erabili behar», eta egin gabeko bideak egin ezin sarritan arinago ibilita ere. Alperrik galdutako urteak ezin izaten dira errekuperatu, jakina, balizko oleak burdinarik ez edo abadeak sermoietan sarri esaten ziguna kasu hauetarako: «Vita mutatur, non tolitur». Nik neuk ez dakit zer esan nahi duen baina entzun eta entzun, badakit zertarako zen latineko esaera hori.

»Gauza bat da jijiji-jajaja ibiltzea eta beste bat erresponsiblea izatea. Ezkontza gauza serioa da eta sarritan aurbehera baino aurgora gehiago egoten da eta horretarako bata bestearen indarrak elkartu egin behar izaten dira proiektua aurrera eroateko, batez ere umeak erdian badaude. Ezkontza sakratua da. Nik neuk, oraintxe eta oraintxe ere, berdin-berdin maite dut Martin nire gizona, hobeto esanda, lehen baino gehiago, alde batetik familia ugaritu egin dugulako eta bestetik, gaitotasunean nire beharrizanean dagoelako.

»Bosten bat urte bai ibili ziren nobio zure aita eta ama. Ezkontzeko, guraso bitzuon laguntzaz gain, diru gehiago behar zen pisua erosteko eta halaxe ibili ziren zure gurasoak dirua aurreratzen. Beharra edo lana aurkitzean sorte ona izan zuten. Zure aitak, soldadu zegoela, zeinakio edo denbora alperrik ematen ibili barik, oposaketak prestatu zituen eta soldaduska bukatzeaz batera plaza atera. Azterketa gogorrak izan ziren baina ekinalakorik ez dago gauzak lortzeko. “Lo dagoena hilda dago”, esaten zuen gure aitak.

»Zure amak ere beste hainbeste. Karrera lehenengo eta espezialitatea gero, erraz hartu zuten beharlekuan.

»Zuk ere, Jon, sarri diskutitu izan duzu gurasoekin asteburuetako irteerak eta etxerako orduak direla eta, baina, aditu. Zure aita, amarekin nobio zebilela ere ez zen sekula berandu etortzen etxera. Nik esan ere egiten nion erretiro onaren damurik ez zuela sekula izango eta sarri aipatu eta eskertu dit hori. Gaur, erru guztia zeuok ez daukazue baina, askok eta askok egunez lo eta gauez gaupasa egiten duzue eta horixe da moda, ezta, Jon?

—Bai, amama. Baina zer egingo dugu ba mundu guztiak egiten badu? Etxean geratzen bagara, gaixorik gaudela pentsatuko dute. Batek baleki zer egin?

—Ba, kontu honek konponketa eskasa dauka, Jon. Gaur, gazteak ezeze, helduagoak ere ikusten dira gaberdirarte kalean, eta jakina, umeak zer? Beste hainbeste. Eta txarrago oraindik, ume eta gaztetxo askok ordutzarrak ematen dituzte bakar-bakarrik etxean telebistan edozer ikusten eta horrela. Zer eta norengandik ikasteko?

»Nik, Jon maitea, ez dakitsut zer esan. Nire aholkua hauxe duzu: nortasunez jokatu eta gurasoen esana egiten baduzu, zabiltzan zabiltzanetik onik aterako zara. Jokabide oker batzuk zuzendu ere egin litezke beste batzuk ostera ez daukate bueltarik.

»Berkak soberan daude. Gure hurrengo portalean bizi den gizon gazte hori, zuk oraintxe duzun adinean hasi zen okertzen. Estudioak gaizki, etxean giro txarra, gurasoak banatuta, alkohola alkoholaren gainean eta azkenean zoritxarreko droga eta orain sida. Hori bai dela akabua! Aita horrela, langabezian, ama edateari emanda, eskeilarak garbitzen, eta lau ume txiki, zaharrena zure arreba Izaroren adinekoa. A zer nolako etorkizuna etxe horretan!

»Orain ulertuko duzu, Jon, zure gurasoen ardura. Gure denboran ere edukiten genituen baina gaurko arriskuak larriagoak dira, askotan bueltarik ez dagoelako. Baina, tira, ez gaitzen bihozberatu. Zu aro onean jaio eta hazia zara eta burutuko duzu zintzo-zintzo, ezta baietz?

—Bai, amama, horrenbeste badakit eta ez dauzkat gurasoak aldatzeko, naiz eta batzuetan diskutitu huskeriaren

bategatik. Aitak inoiz esan izan digu neba-arreboi, burlazar, jakina:

»—Akaso gura izango ote zenukete nik beste ama bat edo amak beste aita bat etxera ekartzerik? Edo guraso biok aldatzerik?

»—Ez, holakorik ez! —izaten da beti gure erantzuna. Egia esan, imajinatu ere ezin izango nuke egin holakorik!

—Tira ba, Jon, horrela pentsatzeaz gain, noizbehinka gurasoei eurei ere esan egin behar zaie hori, ni neu ere asko pozten nintzen seme-alabek ulertzen zutenean gure euren-ganako maitasuna. Maitasuna, hitz polita da baina ez beti erraza. Zuk selektibitatean bikain atera duzu ezta? Nota hori polita da baina ikasketak kostatu egin zaizkizu, ez al da horrela? Izango ez da ba?

»Galdu natzaizu berriro, Jon, nire burua durdidu ere atoan egiten da eta edan bako hordia ere sarri izaten dut. Nondik ibili gara?

»A, bai!, gurasoak ezkongai-aldian. Ba, pozik ikusten genituen biak. Guraso bitzuok ere elkartzen ginen noizean behinean. Eta ezkontzeko ere plantatu zitzaizkigun. Ordu-rako pisua ere erosita zeukaten, ezkongai-aldiko diru aurrezkiekin. Nahiago izan zuten apur bat itxaron eta norbere pisua euki, lehenago ezkondu eta errentan hartu baino. Etxea, etxe-
-ipinia deritzona, beteaz-beteaz joan ziren, hasieran dena nork dauka ba?

»Nik ez dakit ba, Jon, gaurko askoren feturea ikusita zerk irten behar duen. Zure aita eta, larunbat-igande eta ahal zenean, ostegunetan ikusten ziren, baina gaur? Gaur edozein egunetan, edozein ordutan, edozein lekutan... aitearen eta

semearen! Enpatxatu ez dira egingo ba? Egin behar. Barre egite duzu, Jon? Ba, asko esatea da baina gaur ez ote da etxea teilatutik hasten? Entzuten direnak entzunda eta ikusten direnak ikusita, guk azkenengo egiten genuena gaur lehenengo egiten da, zera esan nahi dizut, guraizana edo amorea edo dena delako hori, lotsatu egiten naiz aipatzerakoan ere. Zuk zeuk ez al didazu eukiko neska-lagunen bat?

—Amama, mesedez —erantzun nion irribarreka—, nik lagun asko dauzkat baina oraindik ez zait pasatu burutik holarikorik. Horretan aitarekin nago. Lehenengo karrera eta gaineretikoak aseguratu eta gero-gerokoak. Lagunak asko ditut, mutil zein neskak, batzuk beste batzuk baino lagunagoak. Nire adineko lagun batzuk badabilta neskalagunarekin, baina ni neu ez, ez dut nahi amarrarik dagoeneko. Nahikoa dut neure ikasketa, kirola, dantza, musika eta abarrekin. Gainera, amama, urteen joanean, geroago eta lagun talde hobea egiten nabil, selektoagoa. Hamabost-hamasei urterekin lagun talde soltuagoarekin ibiltzen nintzen, txarrik pentsatu barik. Baina gurasoen laguntzari esker, eztabaidak bitarteko, jakina, lagun onekin geratzen joan naiz eta orain bestela nabil. Errazoia daukazu, amama, tokian tokiko eta garaian garaiko gurasoen aholkuek on egin didate.

—Ez dakizu zenbat pozten nauzun, Jon, ezkontza zein beste era bateko erabakiak ondo pentsatu behar dira gero damutu ez egiteko.

»Zure gurasoak, ezkondu aurretik ezeze gero ere fetura onean ibili ziren. Gure garaian, ezkondu eta urteagarrenean familia etortzen zitzaigun, jakina, ez geneukan gaurko argitasunik ez eta mediorik, horiek antikonzeptiboak, profilak-

tikoak eta abarrak diot, baina zure gurasoen denboran bai. Horregatik jaio zinen zu laugarren urteagarrean.

»Zu ere, Jon, zure aita bezala, Bilbon jaio zinen baina zelako ezberdintasuna zure aitaren jaiotzarekin konparatuz. Zure aitak ikusi egin zintuen jaiotzen. Medikuen arropa berdeak jantzita egon zen kirofanoan. Jaio orduko bazekiten mutila zinela, amaren sabelean sei aste zenituenetik, ekografien bidez, ikusi egiten baizintuzten. Zelako adelantuak e? Haiek gure herrietako parterak ikusi bazuten hori, zer esango ote zuten?

»Lehenago, hil ere ume asko hiltzen zitzaizkigun. Zure garaian, Jon, ernaritzuz batera hasten ziren medikuarengana joan eta zaintzen, bateko ekografiak, besteko odol-analisiak eta gaisetiko guztiak. Zure amak, gainera, ez zuen ez alkoholik ez zigarrorik ezpaineratzen zeure ona bilatu nahian, hatz-begiak zuzen ekartzeko.

»Eta halaxe izan zen, izan ere. Dena den, gurasoak beti egoten dira arduraz harik eta umea jaio arte, gero ere bai, jakina. Guraso batzuentzat seme edo alaba sano bat izatea loteriarik handiena da mundu honetan. Horregatik, Jon, zeu izan zara lehenengo eta Izaro zure arreba gero, zure gurasoen loteria. Zu ez zara konturatuko esaten dizudan honekin harik eta zeu guraso izan arte. Esaerak dio gurasoak dena diola zor euren umeari eta halaxe da baina zeu guraso izan arte ez dakizu hori zer den. Zuk ere jakingo duzu egunen baten. Hau guzti hau bizitzaren joanean ikasten da, orain zure adinean, entzuteaz duzu nahikoa.

»Bilbotik etxera ekarri zintuenean, han zeneukan zeure gela polita prest-prest. Inguru guztiak dekoratuta, erropa

mendi bat, bata baino bestea politagoa, berba baten esanda, ezeren falta barik. Baina printzipalena, guraso eta gainetiko-koen maitasuna. Maitasuna diotsut, eta egia da. Begira. Etxera etorri eta lehenengo gabea, negar baino ez zenuen egiten. Titia ondo hartu zenuen, baina negar eta negar. Horretara amak goardiako pediatriari deitu zion eta hark anisak emateko agindu tripalak izango zenituela eta. Goizaldeko ordu biak ziren eta zure aitak hartu autoa eta goardiako farmaziara joan zen anisok bila. Farmazia, ordu horretan, beste herri baten zegoen eta haraxe joan behar. Heldu zen eta farmaziako txirrina jo zuenean berehala etorri zitzaion farmazeutikoa eta esan:

»—Gauza larriren bat gertatu zaizu ala?

»—Ba, anisak bila nator, pediatriak aginduta.

»—Anisak? Baina bueno?

»—Zer ba? —erantzun zion zure aitak susto aurpegi eta guzti.

»—Zer ba diostazu? Anis batzuketatik ez da etortzen goizaldeko ordu hauetan loa galerazoten.

»—Parkatu —esan zion Xabierrek—, lau eguneko seme-txo bat daukagu eta tripalekin ezin du lorik egin, negar baten daukagu, eta ni neu munduan azkenera ere joango nintzateke soluzio bila!

»Farmazeutikoak, irribarre egin zuen zure aitaren fede ona ikustean eta eman egin zizkion anis-belarrok. Zuk zeuk ere lo ondo egin zenuen anis-belarron ura edanda gero.

»Zure jaiotza garaia gurea baino modernoagoa izan arren, ermakariak ospatu egin genituen, baina ez andrazkoak bakarrik, denok batera baizik, gizon, andra, ume eta

ame. Bateoa, jαιο eta bosgarren hilabetera egin genuen. Lehen ere esan dizut baina zure garaian ez genuen eduki zera, linbora joatearen beldurrik eta horregatik zure aitaren osaba abadeari itxaron genion harik eta udako oporrak hartu arte. Bateoa ondo ospatu genuen, aitabitxi-amabitxiak zure amaren aita eta ni neu izan ginen eta gero Izaro zure arrebarrenak alderantziz, zure aitita Martin eta beste amama. Bateoa errestaurantean egin genuen, eta ondo deritzot. Gure denboran ospatu ere ez, baina orain denok pasatu genuen ahaztu ez egiteko moduko eguna. Argazkiak eta bideoa ikusten ditudan bakoitzean, a zer nolako poza bihotzean. Aitita Martinek eta biok jantza eta guztia egin genuen, ikus ezazu ea bideoa!

»Gaur gauzak aldatu egin direla esan dizut, Jon, eta begira bateoa dela eta zure aitak entzun behar izan zituenak.

—Zer entzun zuen ba amama, behar ez denaren bat?

—Ba, hara, zure aitaren eskola lagun batek, erdi broma erdi benetan adarra jotzen zion zorioneko bateo hori zela eta esanez:

»—Hi, Xabier, oraindino ere abadeen kontuekin habil? Zer uste duk ba, hire semea nagusi egiten denean elizara joango dela ala?

»—Ez zekiat —erantzun zion zure aitak—. Hori berak ikusiko dik nagusi egiten denean. Baina orain neu nauk arduraduna eta fededuna naizenez neurerik onena emango zioat semeari. Bateoak ez zekark ezer txarrrik ez eta elizara joateak ere. Nik hauxe ikasi diat gurasoengandik eta horixe emango zioat semeari munduko bizitzaren ohitura bidean. Horregatik ba, bateatu egingo diat eta geroago baten jaunartzea ere

gingo dik. Nik hi errespetatzen haut, hik ere egin ezak beste hainbeste nirekin.

»Horrelaxe erantzun zion zure aitak, Jon, eta begira gauzak nola joan diren, zure aitaren eskola lagun horren semeak hor dabilta errukarri inolako sentimentu barik. Eliza ingurutik ibili barik ere izan daiteke pertsona ona, hobe ez! Baina gaurko mundo modernoan ere, ezagun dira kristau zintzoak. Gauza modernoa eta gauza ona beti ez doaz batera, joanez gero ondo, baina ez badoaz, zer?

—Amama, gure Izarok aurten egin digu lehenengo jaunartzea eta jakingo duzu ezta? Bere laguntxo batek bateoa eta jaunartzea batera egin ditu.

—Jakina, Jon, gurasoek ez zuten bateatu eta orain umeak berak eskatu izango die jaunartzea laguntxoekin batera joatearrrik edo.

»Horrelako gauzak gertatzen dira. Eskerrak, Jon, zure gurasoek nortasunez jokatzeko dutena. Orain hamazortzi urterekin zeure kabuz pentsatzeko gauza zara eta gurasoek egingdako zerbaitek konbenzitzen ez bazaitu ere, ez dudatu euren borondateaz, onena ematen ahalegindu dira eta.

»Onen horretan, hezkuntza onena ematen ahalegindu dira eta orain ere, unibertsitatean sartzen zarenean beste hainbeste egingo dute, ez ezazu galdu oportunitate hori, ez zara damutuko eta. Bizitza, bat baino ez daukagu, fedea eduki arren ere, ez dakigu bestean zer dagoen, baina mundu honetan zeozer ganorazkoa egiteko lan egin behar da eta horretarako bizi, gogora ezazu esaera zaharra: “Biziak bizi-lan eta hila lurrak jan”.

—Zer esan gura du, amama, horrek esaera horrek? Neure aitari ere inoiz entzun izan diot baina egia esateko, ez naiz kargutu ere egin zuri zeuri entzun arte.

—Bai, Jon bihotzekoa, jaio, baten egiten gara eta hil ere baten. Bitartean, bizi egin behar da, bizi sentidu onean. Bizitza gorabeheraz beterik dago eta erremediorik ez dagoenean, ez dago erremediorik, baina badagoenean neurriak hartu behar dira. Bizitzan, zeozer izan nahi baduzu, behar egin behar duzu. Horretarako zeure buru-bihotzak zaindu eta bizitzaren joanean landu, datozen denboretara egokitu eta beste abar luze bat. Ni laurogei urtera heldu naiz dagoeneko. Ez dakit Jaungoikoak noiz arte edukiko nauen mundu honetan. Kalamitate asko pasatu dut baina berriro jaioko nintzateke bizi-teagatik. Bizi denak, nahi badu, bizilan egingo du, hau da, burutuko du bizitzan, txarto edo ondo, sortea ere inportantea da baina norbere bizigurea garrantzitsuagoa. Zoritxarrez, bat baino gehiago biderdian geratu izan da arrazoi askogatik. Batzuk hagatik horregatik hil, beste batzuk desbideratu eta asko eta asko bizi direla hilda baleude bezala dabilta inongo sentimendu onik gabe, zer lastima!

»Ez dakit, Jon, ulertu ere egiten didazun oraintxe esaten ari natzaizuna. Hau ulertzeko ez daukazu lehenxeago esan dizkizudan jazoera batzuk gogoratzea baino. Aditu. Nire belaunaldiko asko ez dira heldu ni nagoen lekura. Zure aitaren adinekoen artean ere beste hainbeste gertatu da eta zure kideen artean ere, Jon, dagoeneko, batzuk bide ona hartu duzue eta beste batzuk ordea larria. Eta, jakina, gizarte on bat egiteko, pertsona bakoitzak izan behar du behar bezalakoa. Norberagan dago sekreto. Jagirik hara egin behar dira egu-

neroko proiektuak eta gauero ebaluatu, txarto dagoena zuzendu eta ondo dagoenari "hori dok eta" egin.

»Gaur egun, mundua txikitu egin da, begira bestela, zuk esan didazun bezala, zenbat informazio lor zenezakeen aurrean duzun ordenagailuaren bidez. Arinegi bizi gara eta horrek bere arriskuak ditu: eraginak asilimatu ezina. Abiadura horrek, aldatu egiten ditu, Jon, nire bizi-lana eta zurea, gaurko deskuidu asko irrebersibleak direlako. Zuk, "biziak bizilana" zintzo egiten baduzu, "zahar on egin" arte baztertuko egingo duzu "... hila lurra jan".

Hementxe, eta esaera sakon horrekin bukatu zen amamaren berbaldia aititak deitu ziolako zertarako hartako bere logelatik.

Amamak alde egin zidanean neure logelatik, ipini nituen ukondoak belaun gainetan eta burua eskuartean nuela, nik neuk ere ez dakit zenbat buelta eman nizkion amamaren aholku guztiei. Zenbat aholku? Zergatik hainbeste ekite? Zertarako?

Amamaren adina eta borondate onena ikusirik, ez nion haintzat ere hartu aholkuak hainbeste bider errepikatzea ez eta hain gauza serioak esatea nire hamazortzi urterako.

Une batez, amamak esandakoarekin batera, neure aitak sarritan esandakoak etortzen zitzaizkidan gogora. A zer nolako interseksioa! Zergatik hainbeste bildur? Hainbesterako izango da? Berba baten esanda, nik neuk ere ez dakit zenbat galdera egin nion neure buruari. Aholku bakoitzaren zergatia bilatzen hasten nintzen bakoitzean, beti heltzen nintzen leku berberera: maitasunera. Dena zen aitak, amak, aitate-

-amamak eta abarrek maite nindutelako. Zer egiten duen guraizan eta maitasunak e?

Beste alde batetik, buruari bueltarik handienak emanda ere, argi ikusi nuen ezingo nituela nire neure hamazortzi urteotan gurasoen berrogeitakak edo eta amamaren laurogeiak sartu. Nire neuretasunean, Izaro bibliotekatik eta aita unibertsitatetik etxera etorrita zeudela ere ez nintzan ohartu, harik eta amak afaltzeko hots egin arte. Amamak ordurako emanda eukotsan afaria aititari eta beste guztiok jarri ginen mahai inguruan, beti bezala, familian afaltzeko. Nik ez nuen neure burua ikusten baina igarri egin zidaten gurasoek. Amak keinu bat egin zion aitari eta aitak badiost:

—Pentsakor hago, Jon, zer? Testamentua egiten habil ala zer?

—Bai, zera!

—Zeozer bai! Aurpegian duk ezagun.

—Ezer ere ez aita, amamarekin eman dut arrasti osoa barbaroan, hobeto esanda, bera ibili zait kontu kontetan, horixe da guztia.

Afarian, inoiz baino berba gutxiago egin nuen. Aitari eta amari begira jartzen nintzen bakoitzean, amamaren irribarra gurutzatzen zitzaidan. Lehendik ere ongi ikusita banituen, orain askoz hobeto ikusten nituen gurasoak. Izaro arrebari ere begi hobekin begiratzen nion. Zerbait gertatu zen nire barruan. Denak baloratzen nituen lehen baino gehiago. Denen alde ona bakarrik ikusten nuen eta bihotza pozez gainezka neukan. Halako baten, eskusadurako aitzakian, aititaren logelara joan eta bi musu eman nizkion, mahaira bueltatzean inori ezer esan gabe.

Afalostean telebista ikusten barik, neure gelara joan nintzen aurretik denei musu bana eman eta gabon esanaz. Behin neure logelaraz gero, aurikularrak ipini eta berrien berriz entzun nuen amamak esandako guztia. Oporretan nengoenez, erlojuari begiratu ere ez nion egiten eta oherantzean gurasoak etorri zitzaizkidan neure gelara argia isiotuta neukalako. Aurikularrekin harrapatu ninduten, begiak itxita, irribarreka eta pozezko negarranpuluak dariola.

Gurasoak besarkatu eta musu bana eman zidaten aurpegiaren alde banatan. Eurei ere begiak bete zitzaizkien eta besterik gabe lo joan ziren. Ni ez nintzen logura baina pozik baino ere pozago nengoen, naizena, guraso eta gagnetikoen-gatik naizela pentsatzen. Aitita-amamen eta gurasoen bizitzako aholkuak jira eta bira erabili nituen gau osoan eta hurrengo egunsentian itzartu nintzenean, indarberrituta, adore handiz eta bizi-pozez begiratu nion neure etorkizuneko bizitzari biziak bizi-lanean.

Hiztegia

adapo: arboletako, batez ere inausi eta gero sortzen diren laktatzak, laztasunak

aitaxe: aitagarreba

aitaaren: harridura adierazteko otoitz famatuaren hasiera (aitaaren, semearen...)

akordatzako: ustekabeko

akuilua: burdinazko gan eta guztizko makila ganaduekin ibiltzeko, idi-behiekin etab.

alkarpoderoso: bikoteak ondasunen aginpide berdina izatea

altzi: apur bat; dariolako haritxoak

amea: ama baina animaliena

arean: apur bat, pixka bat

arkien: hartuan, hartzeko

armuda: burukoa (ohean lo egiteko)

arnasestua: arin ibilte edo estutasunaren ondorengo arnasa bizia

arrasti: arratsalde

astrapala: zarata handia

atibo: bizkor, prest

atoan: arin, berehala

atundu: konpondu, antolatu, apaindu

aurbehera: aldapa behera, aldats behera

aurgora: aldats gora, aldapa gora

aurridia: uztartutako idi bikoteari beste bikote bat jarri aurrean laguntzeko

azindak: ondasunak, aberastasunak, diruak, abereak

azpigarría: pinu-orria, bestelako orbelak edo ida ganaduei azpiak egiteko

azpíra: sukaldeetako armairu berezia, goiko partea ogiak eta egiteko erabilia

aztu: azti, adibinoa

bahea: garau ehoa eralkitzeko tresna

baltseoa: jota-porrueen ostean egiten den dantza agarratua

barausia: gosari txikia, oherik harakoa

barauskarria: baraua hausteko janari-edaria

barruntatu: entzun, asmatu

bazpia: bartza, zorrien arraultzak ileetan

begipisuan: ganaduen pisua begiz kalkulatu salerosketetan

begitxapela: betazala

begizkoa: gaitzaren errua bestearen desio txarrari botatzea, (*gazt. mal de ojo*)

behargin: langile

beharleku: lana, zeregina, ekintza

beharren: lanean

belea beltzago ez egin: (esaera) gauzak txarrago ezin irten

beleki: egurrezko aitzurra

berbaikuna: hitz egiteko modua edo era

berbalotsa: berbaz batenbatzuk, jendea mar-mar hizketan

berbara: berbaz ikastea, hitz egiten hastea

berbaroa: jendea berbetan

berbatu: prometitu

beren beregi: espreski, propio, hartarakoxe

berendia: (*gazt. mengano*)

beresi: baso berez-ernea, oihan txikia

betuxoa: uxoa edo hitz egiterakoan begietara barik behera adi dagoena

bikuntza: familia bi etxe baten bizitzen, dena erdibana

bildursartua: lehenagotiko beldur kendu ezina

birzahia: zahi latza eralki ondoren geratzen den zahi zehea

bitzuk: bikote bi (bitzuk, hirutzuk, lautzuk...)

bizilan: diligentzia. Bizitzagatik egin

bizipisuan: ganadua bizirik pisatu, kanalean barik

burlazar: adarra joten

daragoio: ekiten dio, dihardu

daukotsat: euki + nori. (Entzunda daukotsat = entzuna diot)

de reo: basoko arbola denak ebagi edo botatzea

dendik ere: dena den, dena delakoa

denodu: indarra, bizitasuna

denporakarrenean: denbora asko pasatu eta gero

deslai: abandonatuta, bertanbera utzita

dolare: txakolin-ardo edo sagardoa egiteko tresnariadun tokia

don izan: prestijioa euki

durdidu: zorabiatu, mareatu

ebatzi: erabaki

edan bako hordia: zorabioa

edea: ganaduak uztartzeko larruzko estukin luzea

eginen: zeregin

egunatan: egun beratan

egurdarte: eguerdi aurrea, goiz osoa

ehun errealeko gorria: antzinako urregorritzko bost ogerle-kokoa

ekidin: ebitatu

elbarren: herri barren, herriaren beheko partea

elizurterea: bateatu eta berrogeigarren eguneko ospakizuna
eragon: ekin, jardun
eraldatu: eraz aldatu, kanbiatu
eralgi: bahetu edo galbahetu behar dena
erantatu: mugitu, astindu
erazago: errazago, komodoago
erdara-hotsean: erdaraz berbaz
erdu: zatoz
erlauma: erregina berri baten ondorioz banatzen den erle taldea
ermakariak: umea jaio eta egun batzuetara egiten diren opari-
-ospakizunak
ernaldi: sabeleko enbarazua
ernaritu: ume berria sortu, enbarazatu
ernaroa: haziaren erne aroa
errekadu egin: ezkontzeko eskaria egin, norberak edo gehie-
netan beste batek
errentadorea: alkilerrean bizi dena
erresuma: hormaren gain-gaineko teilatu-hegalpea
errezkan: asko, ugari
eskandalua: asko, ugari
eskapolota: armairu berezia, erdi-alturakoa
eskekoa: eskalea
eskusadu: komun, irol
eskutila: eskuare, arrastelu
estukura: estutasuna, apuroa
etxaguna: etxeko jabea, propietarioa
etxaldea: etxe eta inguruko propietatea
etxeikusia: lehen, ezkongaiak bata bestearen etxea ikusi eta
etxeakoak onartzea

etxe-ipinia: etxe barrua bete bizitzeko moduan
etxekada: etxe bete jende
eukotsan: -na zion
-(e)z josita: beterik, ugari
ezgauza: ohizkoa ez dena, gutxi ikusia
ezpadurdin: gazteleraizko *tábano*
eztegu: ezta, ezta eguna
fetura: itxura, patxada
firua: josteko haria
fota: ogi mota bat
gaineko: a zer nolako
gainetiko: gainontzeko
galbahea: galgaraua eralkitzeko tresna
galbarra: ile mota batzuen buruko erremolinoa
galga: frenua
gana: akuiluak puntan duen burdinazko zirikagailu punta-
-zorrotza
garbikuzia: garbiketa
gaulendia: iluntzea, ilunabarra
gauzeztandu: balio ezean geratu
gedar: hitz-zarata gogorra, matraka
gobela: kare-harria berotu ondoren zuritutakoa, gero kare-
-hautsetarako
gogaitu: aspertu, aburritu
goiti-beheiti: gora-behera
gosunea: arin jan edo edatearen ondoriozko samako mina
haginadura: ahoko haginak edo izara, mantel eta abarren
punta-ertzetako bordadua

hamarrenak: ondasunen % 10 ordaintzea, dirutan zein ekoiz-
kintan

haril: hari edo lanazko obilloa, bobina

hatz-begiak ondo ekarri: (esaera) haurra falta barik jai,
ondo osatuta

haur jazo: solteratako umea, ezkontzaz kanpoko

ibilpidea: oinez ibiltzeko ahalmena, kapaz izatea

igurdi: igurtzi, frotatu

intera: garaia, denbora, sasoi

intzigua: gogo handia, bizia

ipuztarria: idi bikotea uztarran (behiak ere bai)

itaurren: uztartutako idi edo behien aurretik ibili gidatzeko

iterantzuna: alusioa, ziria

itoxura: itogin, gotera (batez ere teiltagealetik erortzen dena)

ixorrabarri: ernari berri

jaionak: ezkon aurretik elizan egiten ziren hiru deialdiak

jakatzu: jateko gogo barik, inapetente

Josafaten landa: (sineskera) beste mundura bideko landa
kontu-hartzailea

kabrio: teiltatuaren gailurretik teiltagealetara datozen habeak,
gainean ohola josi eta geinerago teilak ipintzeko

kakadario: beldurrez kaka dariola

kargutu: kargua hartu, aditu, ohartu

kaskondua: ume hazitxo, mutikoa

kintzenea: soldata, jornala

kirikiñusia: gaztaina-kirikiñoak pilatzeko hesia (egurrezko
zein harrizkoa)

kokorio: lelo, artaburu

konortea: sena, zentzuna

konprimentu: inportantzia
kortikea: zikinkeriazko azala, kostrea
koskoteko: buruko golpetxo
kotejazinoa: neurria
kreditua: fama, sinesgarritasuna
kurebioa: liztorra (gazt. *avispa*)
lagunabar: norbere ideako edo neurriko laguna
lain: beste
lainaberea: behelainoa
lastamarraga: arto-kapaxaz egindako koltxoia
libratu: jaio, erditu, umea izan
lo arrazo: umeari lo egiten lagundu loak hartu arte
lorra: zerbaiti buruan bueltak eman, hausnarketa sakona
lurbela: lur iluna edo beltza
lurmena: elurra urtu eta lurra ikusten den tokia
mandauli: euli mota bat, ganadu kiratsera etortzen dena (mando-euli)
mari: marabedi (diru mota bat)
mehatzunea: baso edo antzerako zelai hutsa eta garbia
mendia hartu: (esaera) egokitu, hartara egin
menester: zeregin, eginbehar
meza eraso: meza ematen lagundu, monagillo egin
mihian har bakoa: edozer esateko beldur bakoa
mihisea: lino-hariaz egindako tela edo ehuna
mira: kasu, harrera
mirakollos: kotilla, dena jakin gurakoa
modua egin: dirua irabazi edo patrimonioa egin
morrala: sorbaldatik eskegita eramateko zakutoa
mundurik aramaio: (esaera) mundurik zehar, hortik zehar

mutildu: ilea edo lanea ebagi labur-labur
nahiera: kapritxoa
nahinoiz: noiz nahi, edozein unetan
nahinon: non nahi, edozein lekutan
narrua jo: sexu harremanak izan
negarranpuluua: negar-malkoa
notatu: apuntatu
oboan-oboan: inguratuz-inguratuz, bueltan-bueltan
odolak ur egin: (esaera) haserre amorratua, disgustu ikaragarria
odol-malauria: odol infektatua zauritik dariola
oheadarra: ohe mota batzuen lau ertzetako goranzko apain-
garria
okela: haragia
oroak eta moroak: (esaera) gauza asko eta handiak lortu
orpoetan har barik: arin, bizkor-bizkor
ostera: ordea
osterantzean: bestela
porreak buruan jo: (esaera) azkenerarte itxaron
potondegi: elizetako ponte edo bateatzeko harri-aboa
potro-boltsak: barrabil-narrua
prefektoa: lehengo ikastetxeetako irakasle zaintzailea
-(r)i deutsal: ondoan baina ikutzen, apoiuan, arrimuan
seguru: antza, dirudienez
sentzain: haurra zaintzen, umea jagoten
serora: abadetxe eta elizako andere arduraduna
siri: antzinako diru mota bat
surte: behesua
sustosartua: aurreko sustoen eragina kendu barik
tabula rasa: (latineko esaera) ezer ez balegotik hasi

talaburrina: taloak erretzeko haztadun burdina zapala
tertzio: garai, sasoi, goiz, ordua
tragatu: hil, akabatu (batez ere animaliak)
traustik: deusik, ezer
tremesa: irina eta birzahia batera dituen ogia, gaurko «ogi integrala»
trolebusa: lehengo autobus elektrikoak, pisu bat zein bikoak
txakur-amesa: iratzarririk ametsetan
txakurrandia: pezeta baten hamarrena (lehengo txanpona)
txakurtxikia: txakurrandiaren hamarrena
txaramela: ate osteetako pasadora
tximur: zimur
txiterdi: berba erdi, hitz erdi
txokatu: extrañatu, harritu
txorbel: zuhaitz adartxo bat orri eta guzti ganaduei euli eta abarrak uxatzeko
txori-satsa: abonua, ongarria (lurra aberasteko)
txotxoka egin: larrua jo, sexu harremanak izan
txua: txistua, listua
ugelaxo: gaztaina-kirikiñoak hartzeko egurrezko tresna
untze-joa: narrutan egin, sexu harremanak izan
urlia: (gazt. *fulano*)
urruna: pertsonen edo batez ere ganaduen marru, baurre edo orro antzekoa
urteagarrenean: urte bat barru, urtera
urteakarrenean: urte batzuk barru, urteetara
uso: emakumearen sexu organua, txori mota
vita mutatur non tolitur: (lat. esaera) bizitza badoa eta ez dator berriro

zahia: gari garauaren azala eho eta gero

zakutoa: zaku txikia

zantzo: irrintzia

zaputz: kokote, buruko ile

zehe: xehe, fin-fin, birrin-birrin

zein... + aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba...ere. (gazt. *por si...*)

zeinakio: zer egin jakin ezean egon

zelanbeist: nolabait

zemendi: azaroa

zerbaist: zer edo zer, zerbait

zigarro bat egin: (esaera) atsedena hartu

zirigutzi: nahastu, astindu

zoliba: baserrietako solairu edo plantetan ohola josteko azpiko habeak

zoltzaia: infekzioa, pusa

zorribidea: zimurdura bitarteak batez ere aurpegian urteak bete ahala

zurmitza: otzarak eta egiteko egur mehe landuak

zurzubil: zurmitzak gurutzatzeko tresna otzaragintza eta abarretan

GAILURREAN BILDUMA

1. Ipuin-entzulea

Aitor Arana

2. Biziak bizilan

Juan Manuel Etxebarria

3. Mattin Mottela

Jose Mari Satrustegi

GAILURREAN

Elaberri honetan, amama-iloba batzuen arteko elkarrizketa bidez, gaur bizi dugun belaunaldi-egoera ikus daiteke. Gure artean, hiru belaunaldi bizi gara batera, baina ez lehen bezala, bizimodua aldatuz doalako, gizartearen aldaketa sozio-ekonomiko-politikoak bitarteko. Elaberri honetan, amamak, berak bizitako garaia erakusten digu, iloba gazteak ere bere hiririk harakoa eta erdi-erdian dute semea batak eta baita besteak. Gaurko mundua atzokoaren gainean eraiki dugu eta gerokoa gaurkoarenean egingo da. Horregatik, hiru belaunaldiok gaude uztarturik euskaldun izakeraren gurdiari tiraka. Badakigu jakin, hiru belaunaldion elementu bateratzailerak aldatzaileak baino ugariagoak direna, hirutzuok balore iraunkorretan oinarrituta egoteari eskerrak. Benetako balore bidean bizitzero, gauza izango gara etorkizuneko espazio-denboretara zintzo egokitzeko biziak bizilanean.



IBAIZABAL



9 788483 254646